

Goienkaria

2006ko urriaren 6a > Egubakoitza > VI. urtea > 259. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Kooperazioa da herri pobreek garapenerako duten bide bakarra"

Raul Hernandez
Mexikoko kooperatibista > 09



G2a

Kantu flamenko txapelketa Al-Andaluzen > 43

LANGABEZIA

Abuztutik hona 0,52 puntu jaitsi da langabezia tasa ibarrean > 04

ELGETA

Torrealdara sartzeko hirugarren errail bat egingo dute > 37

FUTBOLA

Hiru debagoiendar, Eibar 2.B mailan jokatzen > 40

ETORKIZUNA > ARRASATE IRAUNKORRA FOROAK BERE HELBURUAK AURKEZTU DITU

Iraunkortasun proiektua ibar osorako, Arrasatetik abiatuta

AURKEZPENA Arrasate Iraunkorra foroak bere asmoak eta horiek aurrera eramateko ekintzak aurkeztu ditu

IRAUNKORTASUNA Etorkizun hobia gura dute Arrasate herriarendako, eta eredu hori ibarrera zabaldu gura dute

DENETARIK Foro horretan borondatez daude arlo guztietako lagunak: politika, enpresa, gizartea... > 02-03

ARAMAIO > ETXEBIZITZA

Babeseko etxeak, atzeratuta

Eraikuntza enpresak ez ditu oraingoz egingo, urbanizazioa ez duelako egoki ikusten > 38



Arritxu Oñden.

GOIATZ ARANA

Aretxabaletako alkatea da Mankomunitateko presidentea

Arritxu Oñden Aretxabaletako alkatea da, eguaztenetik aurrera, Mankomunitateko presidente berria. Bederatzi boto jaso zituen. Arrasate Mankomunitatean izango dituen lau ordezkari berriek ere eguazteneko batzarrean hartu zituzten euren karguak. Mankomunitateak Oñatin egingo du hurrengo bilera hilaren 25ean. > 05



BERRIAK Arrasateko lau ordezkari berriak Mankomunitatean: Matilde Martin, Itziar Lamarain, Ines Aldai eta Ander Rodriguez.

GOIATZ ARANA

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-41
Kultura > 45
Saillatuak > 46
Eskelak > 47
Literatura > 48
Gazteak > 50
Denbora-pasa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

ARKAUZ
GRUPO
ARETXABALETA 1950-2006 ARRASATE

ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
Andramari auzunea
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

ETXE MODEL
LITZARAIN
Araba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

ARKAUZ
MUGURTZA
Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

Zure familierentzat onena topatu nahian? Har ezazu irudi. Konfidantzazkoak gara. Arkauz etxearekin erosotasuna bermatuta izango duzu.

Arkauz zure etxea da.

30 URTEURRENA

Ford Focus Trend TDCi 115 ZP 150 €-gatik hilean*, 36 kuotatan.
Sarrera: 3.462,69 €. Azken kuota: 9.002,40 €. UTB %6,70 (Prever Plana barne).

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

IRAUNKORTASUNA > ARRASATE IRAUNKORRA FOROAK BERE HELBURUAK AURKEZTU DITU

Etorkizun hobea gura du Arrasatek, berretako eta ibar osoarendako

TXOSTENAK Bi txosten aurkeztu ditu Arrasate Iraunkorra foroak eguenean, eta 2020ra bitarteko ekintzak proposatzen ditu hor

EKINTZAK Arrasateren egoera hobetzeko neurri asko hartu gura dira garraio, etxebizitza, enpresa, aisialdi, lan, administrazio... arloetan

AITZINDARI Foro aitzindaria da Euskal Herrian, eragile asko eta denetarikoa batzen dituelako, jaso duen adostasunarengatik eta neurri aurrerakoiengatik

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE
Arrasateren etorkizunaren alde lanean diharduen Arrasate Iraunkorra foroak pauso garrantzitsua eman du aste honetan: arlo guztietako eragileek eta Arrasateko alderdi politikoei onartu dituzte bere Iraunkortasun Plana eta Ekintza Plana, hurrengo ekintzak aurrera eramateko bitresna garrantzitsu. Era berean, Etorkizunerako Foroa -plana aurrera eramaten dela begiratu-ko duen foro- sortzeko borondatea agertu dute.

Arrasate Iraunkorraren helburua etorkizuneko erronkei aurrea hartzea da, betiere iraunkortasunaren bidetik, eta horretarako, herriko bizitzaren arlo

guztiak lantzen dira: udal jarduera, etxebizitza, ingurumena, hezkuntza, gizartearendako neurriak...

EUSKAL HERRIRAKO EREDU

Orain arte, hausnarketa egin dute; fase horretan, ekintza batzuk adostu dituzte, eta aipatutako txostenetan zehaztu dituzte horiek. Iraunkortasunaren kontzeptuaren barruan, hainbat konturi erreparatu diete: esaterako, asko azpimarratzen da erregai fosilak kontsumitzeari utzi beharra dagoela pixkana-pixkana; garraio publikoa sustatu behar dela; etxebizitza sozialak eta alokairuzkoak promozionatzea; boluntario lanaren beha-

Arrasaterendako eta Debagoiendarendako etorkizun hobea lortzeko ekintza asko egin gura dituzte: garraio publikoa indartu, alokairua bultzatu, energia garbia erabili...

rra; herriko merkataritza bultzatzeko premia... Era berean, neurri horiek aurrera ateratzeko alderdi politiko guztien adostasuna bilatzen dute.

Arrasateko bizitza sei multzotan banatu dute, eta multzo bakoitzerako helburu batzuk finkatu dituzte. Honakoak dira multzoak: Erakunde publikoak; Gizarte arloa; Ekonomia eta enpresa; Ingurumena; Hezkuntza, sormena eta berrikuntza; eta Garraioa, energia eta eraikuntza. Hasierako helburuak orain hasi eta 2010era bitarteko eperako dira, eta, arloka ez ezik, urteka ere finkatu dituzte.

Izan ere, lehenengo helburuak bete dituzte, eguenean bi



ARLO GUZTIAK Erakunde publikoak, sindikatuak, al

txosten horiek aurkeztuaz: Iraunkortasun Planari ekitea eta alderdi politikoen arteko hitzarmena lortzea. Arrasate Iraunkorreko eragile batzuen iritziz, hortaz, pentsatzekoa da proposatutako ekintzak eraman, eramango direla aurrera.

Arrasate Iraunkorra foroaren garrantzia haratago doa: izan ere, Arrasateren etorkizunearabateko eragina izateaz gain, Debagoien osoan eragin gura du. Besteak beste, Mankomunitatearekin elkarlana planteatzen da. Horrez gain, Euskal Herri osoan ekimen berria denez, aurrekaria, beste udalerrri batzuetako eredu ere bihur daiteke. Hauxe diote foroko arduradunek: "Kultura berri bat sortuko da Arrasaten eta, herri debagoiendarra erreferente moduan, Euskal Herria nazio erreferente bihurtuko da munduan. Era berean,

FOROKO ERAGILEEN ESANAK

"Hurrengo pausoen artean, guretako oso garrantzitsua da Etorkizunerako Foroa sortzea eta izaera juridikoa ematea"

Inazio Lakuntza

"Orain, plana herriari zabalduko diogu, eta parte-hartzea behar duten taldeak sortuko dira; jendearen iritzia beharrezkoa da"

Iñaki Azkoaga

"Plangintza bera martxan jarrita, erronkei aurre egin ahal izango diegu; bestela etorkizun beltza izango dugu"

Juanjo Gabiña

"Garapena iraunkorra izatekotan, nortasunean oinarritu behar da: alegia, euskaran eta euskal kulturaren"

Inazio Arregi

I A A R D C L Z M U S I K A B M O C P O I A A R D C L Z P L I
L R S E C E T R E L I B H E V G O I N A L R S E C E T R E L I
P A A I S O E L K A R Z R E A R O Ñ D E P A A I S O N C N B C
A S R T V P T Q B Ñ T D H E H L M N Q Q A S R T V P T Q B Ñ T
L N D L I B U R U A K E K V E O E T N O L N D T N A T R R Q H
V S H T E L K A R F M S S B Ñ D V L A I S I A L D I A A R F M
V S H Ñ I N L S N E A B A R A O B M I V V S H Ñ I N L S N E A
Z H K U L T U R A A Ñ R I G S S A A R R A S A T E N E P E A Ñ
T E H H Q L F P T A A Q E H L H Z F R C T E H H Q L F P T A A
E T V D L E T E S C Z M Z L A Ñ D A A M E T V D L E T E S C Z
I S Ñ V R F I H R T A N L U H L R Ñ K U I J O K O A K H R T A

Kultura eta aisialdian gura duzun guztia

Erdikokale, 14 - ARRASATE
Tel.: 943 797 829

ekar
elkar ezagutzen dugulako

www.elkar.com

ARRASATE • BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA



derdi politikoak, hezkuntza, euskara, enpresa, osasuna... ordezkaturak daude Arrasate Iraunkorra foroan.

JOKIN ETXEBARRIA

Arrasateko enpresak, unibertsitatea eta teknologia guneak konaturatuko dira etorkizun iraunkorra ez dela oparia, baizik eta etengabeko lanaren emaitza".

HELBURU ZEHATZAK

Udal jarduera eta erakunde publikoen atalean, besteak beste, helburu hauek dituzte: herritarrak kontzientziatzea, Eusko Jaurlaritzarekin, Foru Aldundiarekin eta beste erakunde batzuekin elkarlana bultzatzea; fiskalitate iraunkorra lortzea, hau da, gehien kutsatzen duten autoak, etxebizitza hutsak... zigortzea; 2010. urterako alokairu sozialeko 1.000 etxebizitza merkaturatzea; herritarrari erakundeekin dituen tramiteak udaletxetik egiteko aukera ematea; edo arrasatearrei laguntzea bizilekua herrian finkatzen.

Gizarte arloan, hauek dira proposatutako ekintza batzuk: herritarren parte-hartzea bultzatzea era guztietako planak egiterakoan; hondakin gutxiago sortzea; garraio publikoa bultzatzea; aisialdirako baliabide gehiago eta hobekak ipintzea; etorkinen integrazioa lortzea; hirugarren adinaren premiei erantzutea...

Lan eta aisialdi kulturalan aldaketa bat ere proposatzen da: hain zuzen, bi horiek modu hobean bateratzen lagundu gura dute.

Enpresa asko ere Arrasate Iraunkorrarekin inplikaturak daude. Arlo horretan, honelako helburuak dituzte: berrizta daitezkeen energia-iturriak erabiltzea;

energia-enpresa bat sortzea; Arrasateko industriari eustea eta gaur egungo egoeraren zailtasunei aurre egiten laguntzea; aisialdi eta turismo eskaintza sendoa prestatzea...

Garraio publikoaren sustapena da Ingurumen arloko izarra.

Hezkuntzan, batez ere Mondragon Unibertsitatearen eta ikastetxe guztien elkarlana bultzatzen da, iraunkortasunean hezten joan daitezen.

Garraio, energia eta eraikuntza arloan, energia mota kutsagarrienak baztertzea eta energia berriztagarriak erabiltzea da helburuetako bat; ere, ur kontsumoa zaintzea; garraio iraunkorra...

Euskararen gaineko helbururik ez da aipatzen; hala ere, Arrasateko Udalak euskararen gaineko plan berezia egin du, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Etorkizunean ikusiko da EBN ere Arrasate Iraunkorraren baitan sartzen den.

ETORKIZUNERAKO FOROA

Laster emango dituzten beste urrats batzuk hauek dira: urri bukaerarako, Etorkizunerako Foroa osatuko dute, ekintzak bideratuko dituen taldea; urri bukaeran ere, txosten bi horiek Arrasateko Osoko Bilkurak onartuko ditu; azaro bukaerara bitartean, enpresek eta erakundeek onartuko dute; eta azaro bukaeran, Etorkizunerako Foroa juridikoki eratuko da, estatutu eta guzti.

Etorri SUPER AMARAra zure bizikletaren bila !
20 BIZIKLETEN zozketan parte hartu ezazu !
20 euroko erosketarengaitik, zozketarako txartel bat opari
2006ko Azaroaren 4ean izango den zozketan parte hartzeko

Bizikleta GENOX
GX-2 Motakoa

Aluminiozko koadro errefortzatua
gidagailua barne

Suspentzio urkila A - HEAD

Transmisioa SHIMANO
21 abiadura mota

Aldaketak - balaztak
SHIMANO EF - 29

Garaiera bikoitzeko gidoina

Aluminio balaztak V - BRAKE

Ciclos i - 2 acobis-en garantiarekin

**SUPER
AMARA
BERGARA**

San Lorenzo Poligonoa
Amillaga kalea, 18

**ZOZKETA
20
BIZIKLETA**

EKONOMIA > LANGABEZIA TASA DEBAGOIENEAN

Langabezia tasa jaitsi egin da irailean

Arrazoia da oporraldian langile asko kalera bidaltzen dutela, gero irailean berriro kontratatzeko

UBANE MADERA > BERGARA

Enpleguko Institutu Nazionalak irailari dagozkion langabeziaren gaineko datuak argitaratu ditu, eta Debagoienerako datu positiboak utzi ditu. Izan ere, abuztutik hona, 0,52 puntutan jaitsi da gure ibarrean langabezia tasa.

Kopurutan begiratu, abuztuan 1.757 lagun zeuden langa-

bezian, eta orain, berriz, 1.597 lagun daude.

ALDI BATERAKO KONTRATUAK

Enpleguko Institutu Nazionalako arduradun Elena Mondragonek esan digu "iraila animatuta" hasi dela, kontratu asko egiten dabiltzala. Baina gaineratu digu kontratu horietako asko direla opo-

rraldiarengatik etendakoak: "Enpresa askok, dirua aurrezteko, jendea (aldi baterako kontratuak dituztenak) kalera botatzen dituzte uztailean, eta gero atzera ere hartzen dituzte irailean, askotan lehengo lanpostu beretan".

Dena den, berretsi digu, oro har, iraila ondo hasi dela eta lana badela, "aldi baterakoa, hori bai".

OÑATIKO JAIK

San Migelen balorazio positiboa egin dute

Ertzainen presentzia soberan ikusi dute Ezker Abertzaleak eta Udalak

OIHANA ELORTZA > OÑATI

San Migel eta Errosario jaien balorazio positiboa egin dute Oñatin. Udaleko Kultura Sailak lau ekitaldi hauek nabarmendu ditu: umeendako eta gaztetxoendako parkea; San Migel egunean, Luar na lubre taldearen eta txosnetako kontzertuak; capoeira erakustaldia eta kale ikuskizunak.

Ezker Abertzaleak, Txosna gunek hartu duen indarra eta jendearen parte-hartze handia baloratu ditu eta herriko gune ezberdinetan egin dituzten ekitaldiak osagarriak izan direla azpimarratu du.

ALDE ILUNAK

Bestetik, jaietan bi alde ilun ere egon direla esan dute balorazioa egin dutenek. Batetik, plazan jarritako salmenta postu bati su eman zioten egubakoitzean barruan hiru lagun zeudela. Ez zitzairen ezer gertatu. Bestetik, Ezker Abertzaleak galdetu du manifestazioa zegoenean zergatik agertu ziren ertzainak, EAJ-rekin presoen aldeko agiria adostu zutenean jaietarako eta jaietan egin zituzten bi manifestazioak baimenduta egonik. Lurdes Idoiaga alkateak argitu du ertzainak ez zirela etorri Udalak deituta, PPko zinegotziak jarri duen salaketagatik baizik. Horri lotuta, alkateak eskatu dio PPko zinegotziari "isilik egoteko, ez duelako Oñati ezagutzen eta osoko bilkuretan giroa okertzen duelako".

> TRATU TXARRAK

Ustezko tratu txarrak eman dizkio Oñatin gizon batek emazteari

Ertzaintzak baieztatu duenez, eguazten gauean ustezko tratu txar kasu bat gertatu zen Oñatiko taberna baten. Gizon bat tabernara sartu zen eta emazteari bultzatzen eta belarrondokoa eman zion. Ustezko erasotzailea identifikatu dute baina inork ez du aurkako salaketarik jarri ertzaintzan. Tabernan zeuden lekukoen esanetan, emakumeak esan zuen ez zela jotzen zuen lehen aldia eta banatzeko tramitetan dabiltzala.

(KUTXA BIZITZA-ASEGURUA)

ZU BIZI ONDOREN ERE BIZIA DAGOELAKO.

Gure laguntza osoa duzu
maiteen dituzunak
babesteko.

Zuretzat eta zure familiaretzat etxe baten jabe izatea, horra ahalegin handiz bete duzun ametsa. Zure familiak etxe horretaz gozatzeko eskubidea du noski, eta ezer ez luke eragotzi behar hori. Izan ere, **Kutxa Bizitza-Asegurua** duzu hori bermatzeko modurik errazena.

Guretzat ere zure familia baita garrantzitsuena.



"Biharko Vida y Pensiones, S.A."-rekin kontratatutako Kutxa Bizitza-Asegurua. **Kutxa** da bere erregistroan 02 zk.az ageri den aseguru agentziaren sozietatea.

www.kutxa.net

zer nahi duzu bihar?

DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA > PRESIDENTE BERRIA

Arritxu Oliden aukeratu dute Mankomunitateko presidente izateko

Arrasateko Udaleko lau ordezkari berriek ere euren karguak hartu dituzte

Debagoiena Iturbask turismo sarean sartzeko proposamena sinatzea onartu dute

OIHANA ELORTZA > LEINTZ GATZAGA
Arritxu Oliden (EAJ), Aretxabaletako alkatea, izango da aurrerantzean Mankomunitateko presidentea. Bera aukeratu zuten Makomunitateko gobernu batzarreko kideek eguaztenean Leintz Gatzagan egin zuten bileran.

ADOSTUTAKO PRESIDENTEA
Mankomunitateko gobernu batzarrean 16 kide daude eta horietatik 14 joan ziren eguazteneko batzarrean, Oñatiko Joxe Fernandez eta Aretxabaletako Maitane Urrutia falta ziren. Kide bakoitzak boto bat eman zuten eta hauek izan ziren emaitzak: Arritxu Olidenek bederatzita boto, Juan Carlos Bengoak bi boto, Ander Rodriguezek boto bat eta beste bi boto zuriak izan ziren.

Arritxu Olidenek berak esan bezala, "Mankomunitateko batzarra egin aurretik bilera bat egin genuen alkateok. Pentsatu genuen EAJ alderdikoa izatea hurrengo presidentea eta nitaz ere berba egin genuen". Presidente berria izateko kargua, beraz, berak hartuko zuela jakin zuten Arritxu Olidenek. "Batzuen artean berba egin genuen eta adostutako eraba-



LEINTZ GATZAGAN Iraileko bilera bertan behera gelditu zen eta bilera hura egin dute astean batzorde kideek.

GOIATZ ARANA

kia izan dela esan liteke", azaldu du Arritxu Olidenek.

LAKUNTZAREN BIDETIK
"Momentuko egoera zein den ikusita, hartu beharreko ardura moduan hartu dut presidente kargua. Nik, berez, nahiago nuke Inazio Lakuntzak jarraituko balu postu horretan, normaltasunaren seinale izango baitzen", dio presidente berriak.

Lakuntzaren bidetik jarraituko duela aurreratu du Olidenek. "Denbora gutxirako da kargu-

hau, ezin daitezke aldaketa asko egin eta gainera, konforme nago orain arte Lakuntzak egin duen bidearekin. Beraz, bere lana jarraitu baino ez dut egingo", zehaztu du Olidenek.

Baina asmo berriak ere baditu: "Mankomunitatea indartu gura dut. Badakit udal bakoitzak bere erabaki propioak hartu behar dituela eskuduntza batzuen gainean, baina beste erabaki batzuk daude guztion artean har ditzakegunak eta hori indartu gura dut. Baita zerbi-

tzua mankomunatzea ere". Hemendik eta hurrengo udal hauteskundeetara bitartean, ordea, ez du programa zehatz bat jarraituko presidente berriak: "orain arteko gaiekin jarraituko dut, zaborren partzuergoaren gaiekin eta datorren urteko aurrekontuekin, adibidez".

Oraindik ez du berba egin Inazio Lakuntzarekin, Mankomunitateko aurreko presidentearekin, baina badu asmoa berarekin elkartzeko eta haren iritzia edo aholkuak entzuteko.

GOBERNU KIDE BERRIAK

Mankomunitateko presidente berria aukeratu aurretik, ordea, gobernu kide berriek euren karguak hartu zituzten. Lau dira kide berriak eta laurak Arrasateko Udala ordezkatzen dute: Ander Rodriguez (EB), Matilde Martin (PSE), Itziar Lamarain (PP) eta Ines Aldai (talde mistoa). Arrasateko Udalak irailean egin zuten osoko bilkuran onartu zuten Arrasatek ordura arte Mankomunitatean zituen ordezkariak -tartean, Inazio Lakuntza, presidentea- kargu horietatik kentzea, herriko gaiak ez zituztelako ondo defendatzen organo horretan, beste udal ordezkari batzuen iritziz. Osoko bilkura berean onartu zuten ere aipatutako lau horiek izango direla Arrasateko ordezkari berriak Mankomunitatean.

DEBAGOIENA ITURBASK SAREAN

Gobernu kide berriek eta presidente berriak euren karguak hartzeaz gain, beste hainbat gai jorratu zituen Mankomunitateak eguazteneko batzarrean. "Erabaki zuten, adibidez, Jose Angel Zabalo Antzuolako alkatea izatea lurralde antolamenduko batzordeko presidentea. Gainera, Debagoiena Iturbask turismo sarean sartzeko proposamena sinatzea ere onartu zuten", kontatu digu Belen Txintxurreta Mankomunitateko idazkariak. Beste puntu bat zen enpresa batek egindako proposamena txakurtegi zerbitzua jartzeko, baina puntu hori ez zuten onartu zerbitzu hori udal bakoitzaren gain dagoela argudiatuz.

Mankomunitateak hilean behin egiten du batzarra. Aste honetako irailean egin beharrekoa zenez, hurrengo urriaren 25ean egingo dute, Oñatin.



KIA MOTORS

KIA SORENTO BERRIA 170 zp



Ezagutu ezazu!



KIA CARNIVAL berria
Ezagutu ezazu!



KIA SPORTAGE %12erainoko DESKONTUA

Tecnocar

Honda eta Kia banatzaile ofiziala



TECNOCAR GIPUZKOA
Erakusketa eta tailerra
Araba etorbidea z/g - Arrasate
943 79 22 67 Faxa: 943 71 27 38

Adi!

0 km eta 2. eskuko autoen sekulako aukerak
HONDA CIVIC 5 ate ES CTDI (04)
HONDA ACCORD 2.4 i-VTEC (06)
HONDA FRV 2.2 i CTDI EXECUTIVE(05)
RENAULT LAGUNA 2.2 DCI (03)
HONDA CRV 2.0 ES 4WD (00)
*Prever plana barne.

HONDA

The Power of Dreams

Eta orain, nabigatzailea eta 5 urteko bermea

HONDA CRV Diesela i CTDI
0 km (26.900 €)
Unitate mugatuak



HONDA CIVIC BERRIA
17.700 eurotik aurrera*



HONDA ACCORD BERRIA
22.400 eurotik aurrera*

AZPIEGITURAK > ABIADURA HANDIKO TRENA

Gainean dugula-eta, manifestazioa deitu dute AHTren kontra, Legutianon

Domekan, hilaren 8an, egin dute hitzordua, Legutianoko plazan, 12:00etan

Salatu dute Arrazua-Ubarrundia eta Legutiano arteko lanak hil honen amaieran hasiko direla

UBANE MADERA > BERGARA

Herriari entzun, AHT gelditu! da domekan erabiliko duten leloa. AHT Gelditu Elkarlanak deitu du ekitaldia eta debagoiendarrak animatu gura dituzte parte hartzeko, "Euskal Herriaren etorkizunak merezi duelako", adierazi digu elkarlaneko bozeramaile Mila Elortzak. Esan digu Soralezetik aterako dela autobusa eta herriz herri, betiko lekuetan geldituko dela. Esan digu, baita ere, egun bereko arratsaldean batzarra egingo dutela Legutianon, 15:30ean, "erabakitzeko aurrerantzean zela egin oposizio lana. Ideia mordoa ditugu; horiek azalduko ditugu eta ikusiko dugu zela jokatu".

Izan ere, AHT Gelditu Elkarlanak argi dauka trenari oposizioa egin behar zaiola; joan den astelehenean, esaterako, protesta eki-

taldia egin zuten. "Geroago eta argiago dugu, guztiongan eragina izango duelako; ikusten gabiltza trenarendako behar duten dirutza beste departamenduetatik ateratzen dabiltzala: hezkuntzatik, kulturatik... Dabilta egiten dirumurrizketak, Jaurlaritzak ez delako dirurik tren ordaintzeko", esan digu Elortzak. Salatu du "inposizioa eta prepotentzia nabarmena" izan dela; kaltetutako lurjabeek eta trenak zeharkatutako dituen udalerrietako Udalek ez dutela ia informaziorik jaso eta oro har, legeak agintzen dituen pausotako asko ez dituztela bete, "eta ez da ezer gertatzen".

Bestalde, eguaztenean, Nuria Lopez de Gereñu Garraio sailburuak adierazi zuen Euskal Y-a ezinbesteko proiektua dela tren garraio bideragarria izateko.



URRATZEN Asteleheneko agerraldian salatu zuten lurren jabeen "informazio eskubidea urratzen" dabilzala.

GOIENKARIA

Gazte ikastaroak



BITXIGINTZA

Amaia Agirrerren eskutik

- Asteartetan
- 6:00etatik 7:30ak arte
- Azaroaren 7tik abenduaren 19ra



ALBOKA

Angel Agirianoren eskutik

- Larunbat goizetan
- Arrasate Musikalen
- Urriak 21etik Aste Santua arte



SUKALDARITZA

Igor Otaduiren eskutik

- Hastapen maila
- Astearte eta ostegunetan
- 6:00etatik 8:00ak arte
- Azaroaren 7tik 30era
- Lanbide Hastapeneko egoitzan



GAUR EGUNGO DANTZA

Maite Albesen eskutik

- Astelehen eta asteazkenetan
- 6:00etatik 7:30ak arte
- Azaroaren 6tik abenduaren 20ra

Ikastaroen matrikula: 20 € / 12 € ikasle eta langabeek
izen emateak: Gazte Bulegoan (943-770065)
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gazteria saila ■

EUSKARA

Laugarren mailako ikastaroa AEKn

Arrasateko Erdur euskaltegian izango dira eskolak astean bi aldiz, arratsaldez

I.A. > ARRASATE

Arrasateko Erdur AEK euskaltegiak HABEren laugarren mailako ikastaroa emango du ikasturte honetan. Inguru aukera eskainiko duen euskaltegi bakarra da. Iaz, bost euskaltegitan eman zituzten eskolak, eta aurten hamarrera zabaldu dute.

EGA edo titulu baliokiak duten ikasleendako ikastaroa da, eta helburua da euskara maila zaindua lortzea, laugarren perfila prestatzea edo lanerako komunikazio gaitasuna hobetzea. "Gure eskualdean, euskaraz lanean ari direnentzat baliagarri izan daiteke euren ibilbide profesionala hobetzeko eta sakontzeko. Horrez gain, lan merkatuan euskara maila gero eta gehiago baloratzen ari da gaur egun, eta hainbat lanpostu lortzeko bidea erraztuko du", diote Erdukoek.

Eskoletan bertan egotea eskatuko zaie ikasleei; astean bi egunetan, arratsaldez, bi ordu eta erdiko saioak egingo dituzte.

PROIEKTUA

Eskola horietan gaitasun komunikatiboa landuko da ahoz zein idatziz, eta testuen lanketa sakonduko da.

Baina eskolez gain, etxeko lanak ere izango dituzte. Ikasleak aditua den gaiaren gaineko proiektua gertatu beharko du. HABEren laugarren mailako azterketara aurkezteko aukera izango dute gero, eta bertan, proiektua ahoz zein idatziz aurkeztu beharko dute.

Matrikula urriaren 11 baino lehen egin behar da Erdura deituta (943 77 03 69) edo idatzita (arrasate@ae.net).

ENPRESA > EUSKARA PLANA ELAY LANTEGIAN

Elay enpresan Euskara Plana abiarazi zela 15 urte bete dira

Gaur egun EAEko 15 langiletik gorako enpresen %2ak dauka Euskara Plana Elhuyarren esanetan

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Elhuyar Aholkularitzak enpresetako lehenengo Euskara Plana abian jarri zeneko 15. urteurrena ospatzeko ekitaldia antolatua zuen. Hori dela eta, Miramon parke teknologikoan mahai inguru egin zuten, besteak beste.

Euskara Plan hori Antzuola-ko Elay enpresan egin zen 1991n, eta hiru debagoiendarek jardun zuten lanean: Agurne Barrusok, Miel Guridik eta Agurtzane Loidik, besteak beste.

Gaur egun, 150 enpresa inguruk dute Euskara Plana. Hala, helburua da euskararen erabilera txertatzen duten enpresa-kopurua handitzea eta kalitatezko Euskara Planak eskaintzen jarraitzea.

KALITATEARI LOTUTA

Urte hauetan, hainbat ondorio atera dituzte: "Enpresan inguru soziolinguistikoari edo gizarte eskakizunari bakarrik lotuta egotetik, nagusiki kalitateari lotzen zaion elementua izatera pasa da. Honek guztiak inpaktua dauka enpresak gizarteari begira daukan irudian", dio Elhuyarrek.

EAEEn, 15 langiletik gorako enpresen artean %2k Euskara Plana duela ere jakinarazi dute. Gaineratu dute gaur egun, lan munduko eragile esanguratsuenak inplikatzeko direla proiektu honetan: sindikatuek, enpresa buruen elkarteak, Udalak, Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Kontseilua, euskalgintzako erakundeak...



MAHAI-INGURUA Urteurrena ospatzeko ekitaldia egin zuten Miramonen. ELHUYAR

LAN ESKAINTZA

Ingurumen eskolako irakaslea:
Proba eguna: urriaren 11n

Informatika monitorea:
Proba eguna: urriaren 18an.

Euskaltegiko irakaslea:
Izena emateko epea: urriaren 7tik 13ra arte

Oinarriak: BAZen (goiz eta arratsalde) eta web orrian jaso daitezke: www.arrasate-mondragon.org



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Pertsonal Saila ■

Hemen GARBIKETAK

Garbiketetan profesionalak gara

www.hemen-garbiketak.com

Intxaurtxueta 16 behea ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

EUSKARA JENDEA.
Gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza

Jaun Carlos Etxegoien, Xamar
282 orrialde - 29,50 euro

Nola bizi izan du gure jendeak euskara? Zein izan da hizkuntzaren bilakaera? Nola ikusi izan dugu geure burua? Nolakoak izan dira etorri edota iragan diren herri/kultura desberdinekiko harremanak? Nola ikusi izan gaituzte?... Euskara jendea lana galdera hauek eta beste hainbat gehiago erantzuten saiatzen da, 600 irudi, argazki eta marrazkiz ezinago eder apaindua.

kontsumoa



Euskal Herriko jangeletan barazki gehiago ematen dute. GOIENKARIA

Escoletako jangeletako menuak ez dira orekatuak, adituen esanetan

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeak egindako azterketa baten arabera, escoletako jangeletako menuak ez dira orekatuak: "Lehenengo platererako, pasta, arroza, patata edo lekaleak. Barazkiak bigarren plateraren osagarri modura ipintzen dituzte, eta hori ez da egokiena, ume askok plateraren lagatzen dituelako; lehen platererako ipini behar lituzkete", diote adituek. Bigarren plateraren, haragia astean hiru aldiz izaten dela diote eta arraina edo arrautzak gutxitzen. Postreari dagokionez, diote fruta ipintzen dutela, baina sarritan almibarretan; eta esnearen eta jogurten falta sumatu dute. Bestalde, ondorioztatu dute janaria gertatzeko orduan ez dutela irudimena lantzen. Ondorioak orokorrak badira ere, zehaztu dute Euskal Herrian beste leku batzuetan baino barazki gehiago ematen dutela.



Ibilgailuen abiadura kontrolaren gaineko kanpaina berezia

Zirkulazioko Zuzendaritza Nagusiak abiadura kontrolaren gaineko kanpaina berezia egingo du urriaren 2tik 15era bitartean. 2004ko istripuen %22 abiadurak eragindakoak izan ziren. Aurten, uztailean eta abuztuan zirkulazioaren batez besteko abiadura %3-4 jaitsi da, eta istripuak gutxitu.



Uraren Euskal Agentzia ipiniko dute abian 2008an

Uraren kudeaketaz arduratuko den Uraren Euskal Agentzia 2008ko urtarrilean ipiniko dute abian. Uraren erabilera hobea izango du helburu eta ondasun horren aurkako jarrerak zigortu egingo ditu. Uraren garrantzia eta eskasia izan dira erakunde hori sortzeko arrazoi nagusiak.

Kalerako eta etxerako telefono bakarra zenbaki berarekin

France Telecom-ek Unik ize-neko telefonoa kaleratuko du. Etxean edo bulegoan finkoa izango da eta kalean sakelakoaren funtzioa beteko du zenbaki berarekin. Etxean edo bulegoan Internet bidez edo wi-fi sarea dagoen lekutik deitu ahal izango da; eta kalean, Orange telefono sarearen bidez.

Zigarroen salmenta jaitsi egin da abuztura bitartean

Ekonomiako estatu-idazkariak jakinarazi duenez, abuztura bitartean zigarroen salmenta %3,4 jaitsi zen. Gaineratu zuen jaitsiera orokorra %9,7koa izan dela. Horrek adierazten du tabakoaren kontsumoak behera egin duela urtarilaren lehen tabakoaren aurkako legea indarrean ipini zutenetik.

gure artekoak

GAZTAINUZKETA > Izen bereko inguruan mendi etxeak ipini zituen Leintz Gatzagako Udalak turismoaren aldeko apustua eginez. Egurrezko txaboletan asteburua edo opor garaia pasatzeko aukera dago.

Montse Valerio

"Asteburuetan lasaitasun bila etortzen da jendea gurera"

I. AGIRREAZALDEGI > LEINTZ GATZAGA
Orain dela 10 urte hasi ziren Montse eta senarra Gatzainuzketan lanean. Pinudi eta pagadi inguruetan dauden oporretarako etxetxoak eta jatetxea kudeatzen dituzte. Orain, Leintz Gatzagan Soran etxea berritzen dihardute, hotel eta jatetxe moduan ipintzeko.

Nolatan ipini zenituzten Gatzagan horrelako etxeak?

Proiektua Udalarena izan zen, turismoari bultzada emateko sortua. Lehiaketa publiko bidez, guk hartu genuen etxeen ardura.

Zer dauka etxe bakoitzak?

Egurrezko etxolak dira, eta isolamendu termikoa eta bernizatutako zurezko akaberak dituzte. Barruan, sukaldea, logela, egongela eta komuna ditu. Sukalderako tresnak eta oherako arropa ere bertan daude.

Nolakoak dira zuen bezeroak?

Inguruko jendea etortzen da batez ere, ibarretik edo Gasteiz ingurutik. Asteburu pasa atsedean hartzera etortzen dira. Udako oporretan, kanpotik ere etortzen da jendea: Kataluniatik, Madril-dik, Andaluziatik... astebeterako gehienak. Badira gurean egonaldi luzeak egiten dituzten langileak.



Montse Valerio, Gatzainuzketako zazpi etxolekako baten.

I.A.

FITXA TEKNIKOA

> TXABOLAK

Bungalow erako zazpi txabola daude: bi, lau edo sei lagunendako. Guztira, 36 pertsonarendako lekua dago.

> TARIFAK

Egun eta pertsona bakoitzeko 25 euro ordaindu behar da egonaldia.

> HOTELA GATZAGAN

Urte eta erdi barru lagako dute txabolen kudeaketa. Gatzagan Soran etxea berritzen dihardute hotela ipintzeko.

Zeren bila etortzen dira?

Asteburuetan lasaitasun bila. Udan, aldiz, kokapenarengatik hautatzen dute Gatzainuzketa. Lekuak ezagutzera etortzen dira eta erdi bidean egonik hondartzara zein mendira mugitzeko toki egokian dago.

Egoitzaz gain beste zerbitzurik eskaintzen duzue?

Ez gaude ohituta turistak hartzera eta ez daukagu ezer berezirik prestatuta. Baliteke aurrerago, gure ondoren hau hartzen dutenek zerbait antolatzea: ibilaldiak oinez zein zaldiz...

etxeke leihotik



Julen Iriondo > GOITBko albistegietako arduraduna

Juan Martin ondoan baduzu, egin Ixabelena

Kutxidazu bidea, Ixabel. Ez dut filma ikusi, baina ikusiko dut. Euskarazko zinemagintzari bultzada ematearren bakarrik joan beharko genuke ikustera. *Aupa Etxebeste*-k utzitako aho-gustu gozoarekin, gainera, ziur arratsalde atsegin bat pasatzeko aukera ere badugula. Iazkoa bezala, aurtengoa ere bergarar batek zuzendutako filma da; Asier Altunak hasitako bideari jarraitu dio Mireia Gabi-londok. Zoriontzekoa eta eskertzekoa.

Zorionak eta eskerrak, baita ere, Ixabeli eta Juan Martini; hobe esan, estreinatu berri den filma aparte utzita, hanhemen Ixabel eta Juan Martin lanetan diharduten guztiei.

Gero eta gehiago ari dira hedatzen Barriketan bezalako egitasmoak: euskaldun zahar eta berrien topaleku izan nahi dutenak, astean ordubetez soilik bada ere elkarrekin berba egin dezaten. Baina ez da nahikoa, eta ez diot astean ordubete izatearren. Aretxabaletako aurkezpenean euskaldun berri batek zioen ekimen interresgarria dela: koadrilako euskal hiztunen artean dagoen ere espainolerako joera omen dute. Baina Juan Martin, nor gertuko laguna baino Ixabel aproposagoa?

"Merezi du ikustea 'Kutxidazu bidea' euskarazko zinemagintza laguntzearen"

> Barriketan bezalako ekimenak beharrezkoak dira; euskalgegi euskaraz ikasi bai, baina egunerokoan hitz egiteko aukera asko ez dutenei, astean ordubetez, behintzat, jardutea ziurtatzen dielako.

> Eraginkorragoa litzateke, ordea, inguruan Juan Martin bat dugun bakoitzean, Ixabel lanak egingo bagenitu. Gainera, inon ez konfiantza giroan baino hobe, koadrilan esaterako.

begi-bistan



Zuhaitzak moztuta Bideberrin (Bergara) 2006/09/27


Argazkia: Irati Agirreazaldegi.
Testua: Irati Agirreazaldegi.

Gaixorik zeudela eta Bideberrin, erreka aldamenean, bi indigaztainondo moztu zituzten joan zen astean. Herrian beste hainbat zuhaitz ere moztu dituzte arrazoi berarengatik.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxo bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



Jon Gonzalez

AKTOREA



Pruden Gartzia

IDAZLEA



Mikel Gados

GOLF JOKALARIA

La Sexta telebista kateko SMS, *Sin miedo a soñar* saioan dihardu aktore bergararrak. Andresen papera jokatzeko bertan. Telesaio hori du aktore moduan profesionalki egiten duen lehen lana, baina bere nahia da lanbide horretatik ateratzea bizimodu aurrerantzean.

Euskadi Literaturari sarietarako finalistak aukeratu dituzte epaimahaikoek. Euskarazko literatura sailean hautatuen artean dago Pruden Gartzia oñatiarraren *Lazarra-ga, Ernazimentua euskaraz* saiakera. Sariak azaroaren 28an erabakiko dira.

Logroñon jokaturako profesional mailako Espainiako golf txapelketa 11. tokian amaitu du aretxabaletarrak. Asteburuon Empordan Peugeot tour barruko txapelketan dihardu; eta jadanik sailkatuta dago 60 jokalaritako batukoa izateko final handirako.

Mexikoko hego ekialdean dagoen Tehuacan herrialdeko etorri da Raul Hernandez Debagoiera. Garia eta amarantoa landatzen eta merkaturatzen dituzten enpresa kooperatibak sortu ditu eta egun hauetan gure ibarrean izan da Debagoiena eta Mexikoko Tehuacan herrialdearen arteko loturak sendotzeko asmotan. HUHEZIn hitz egin dugu berarekin.

Raul Hernandez > Mexikoko kooperatiba elkarteko zuzendaria

"Kooperazioa da pobreak diren herriek garapenerako duten bide bakarra"

OIHANA ELORTZA > ESKORIATZA

Emaztea eta biak duela 26 urte hasi ziren herriaren parte-hartzearekin bultzatutako enpresak sortzen. Egundik 180 langile dituzte. Amarantoa eta garia, besteak beste, landatzen eta merkaturatzen dituzten enpresak dira. Birsortze ekologikoaren alde ere egiten dute lana. Kooperatiba moduan funtzionatzen dute.

Amarantoa eta garia landatzen eta merkaturatzen dituzte, besteak beste.

Bai. Orain 10.000 urte toki horretan landatu zituzten lehen-dabiziko aldiz produktu horiek, eta berreskuratu egin ditugu.

Amarantoari ematen diozue garrantzia, batez ere.

Amarantoa errituatan erabiltzen zuten. Pasta antzeko bat egiten zuten eta, tenpluetara eramanez, jendeari ematen zioten jateko. Konkista etorri zenean, debekatu egin zuten amarantoa landatzea, jakin gabe, noski, elikadura-balio handikoa dela. Horrela, elikagaien arteko oreka apurtzen hasi zen eta poliki-poliki herrian janari-falta edo desnutrizioa hasi zen nabaritzen. Amarantoaren elikadura-balioa hain handia zela ikusi genuenez, berreskuratzeko lanean hasi ginen, bai amarantoa landatuz eta baita familien elikagaien artean sartzen ere.

Kooperatibak sortuz egin duzue hori, ezta?

Gu, berez, irabazi-asmorik gabeko elkarte gara. Elkarte horrek egiten du kooperatibaren filosofia eta formazioa zabaldu herri bakoitzean eta, aldi berean, herri guztiek osatutako kooperatiba sortu. Horrek indartzen du nekazal industria eta merkaturatzen dituzten nekazal elikagaiak marka bakar batekin: Quali. Bestetik, arrozen birsortze ekologikoaren alde ere egiten du lan. Herrialde horretan, urtean bost hilabetetan bakarrik egiten du euria, eta jakin behar dugu ura nola gorde eta ondo erabili. 1.500 obra txiki egin ditugu, eta orain 70 herrietan bizi diren 176.000 biztanleri ez zaie urik falta.

Familiek egiten dute lana?

Quali amarantoaren proiektu kooperatiboan, adibidez, 1.100 familia indigenak dihardute.

Zergatik aukeratu zenuten kooperatiben eredu?



Saiolan, Eroski, Lanki edo Mundukide taldeak bisitatu ditu Raul Hernandezek, besteak beste.

O.E.

AMARANTOIA

"Ez du glutenik eta Euskal Herria ekarri gura dugu zeliakoek prezio onean erosteko"

Ni filosofoa naiz eta kooperatiba teoria bakarrik ezagutzen nuen. Baina Mexikoko Mixteca lurralde pobreaken errealitatea ikusi ondoren, argi nuen kooperazioa zela garapenerako bide bakarra. Autokudeatzea helburu zuten funtzio anitzeko enpresa sozial bat sortu genuen. Arrakas-

EUSKAL HERRIA

"Europar sartu da eta hango gizarteek ere aztertuko dituzte Euskal Herriaren eskaerak"

ta handia izan zuen 1980tik 1994ra arte. Urte horretan krisia etorri zen Latinoamerikara eta beste bide batzuk jorratzen hasi ginen. Liburuetan irakurritako nuen Arrasateko kooperatiben esperientzien berri eta eredu hori jarraitzeko, hona etorri nintzen, enpresak gertutik ezagutzera.

KOOPERATIBAK

"Hemengo kooperatiben ezaugarriak aplikatu genituen Mexikon eta hazkundera ikusi da"

Zerk harritu zintuen? Zer aplikatu duzue han?

Konturatu nintzen jarduera asko dituen kooperatiba egon ordez, espezializatetara banatuta daudela enpresak, bakoitza bere autonomiarekin baina, aldi berean, kooperatiba handi bat sortzen dutela guztiek. Ikusi genuen bes-

te funtzio garrantzitsu bat dela hezkuntza zentroekin eta aurrezki kutxeekin duten harremana eta sinergia.

Ezaugarri horiek hango kooperatibetan aplikatu genituen eta ikaragarria izan da harrezkero izan duten hazkundera.

Non merkaturatzen duzue amarantoa?

Lehen merkatua barne merkatua izan da, lurraldea bera. Bigarren etapan, Mexikoko gainerako herrialdeetara iritsi gura izan dugu eta horretarako internet erabili dugu. Internet bidez jasotzen ditugu eskaerak, eta garraiolari sare baten laguntzarekin entregatzen ditugu eskaerak edozein tokitan. Hirugarren etapa da amarantoa Euskal Herriara ekartzea. Horretan ari gara orain.

Nola ekarriko duzue amarantoa hemengo dendetara?

Amarantoak ez du glutenik. Badakigu Euskal Herrian arreta berezia jartzen diotela zeliakoek elikagaiei, glutenik gabekoei, alegia. Guk ere zeliakoendako janari zaporetsua eta elikagarria garatu dugu eta erosteko prezio onean ekarri gura dugu hona, ikusi baitugu zeliakoendako elikagaiak oso garestiak direla.

Eroski sarearen bidez ekartzea ari gara aztertzen, baita Valentziako Consum supermerkatuen bitartez ere. Kooperatibak dira eta pentsatzen dugu elkar-tasunerako kontzientzia berezia izango dutela, kooperatibaren oinarriko printzipioek esaten duten moduan.

Jarraitzen duzue handik Euskal Herriko egoera?

Gure lurraldean indigena asko daude eta, espainola sartu zutenean, kultura haren zati handi bat deuseztatu egin zuten. Bestalde, herria kalera atera zen Mexikoko gobernuari esateko ez zuela errepresiorik onartzen, eta zapatistek ere armak utzi zituzten herriarekin batera justiziaren bila abiatzeko. Euskal Herriaren borroka ere zentzu horretan ikusten dut.

Orain, Europarekin, beste gizarte batzuek ere ikusiko eta aztertuko dituzte Euskal Herriak egiten dituen eskaerak, euskal presoak Euskal Herrian egon behar dutela, adibidez. Hori, gainera, legeak berak dioela ikusiko dute, ez lagun batzuek bakarrik.

plazara

Oso kritikoa da Itziar Lamarain PPko ordezkaria, Arrasateko alkate Inazio Lakuntzaren kudeaketa moduarekin. Hari leporatzen dio herritarren premien arabera gobernatu beharrean, interes partikular eta ezkutuko alde eginez jardutea. Eta azpimarratzen du agintaldi

hasieran gehiengo bazuen ere, une honetan gutxiengo duela gobernatzeko. Horregatik esaten dio: "Utz ezazu aulkia, Lakuntza jauna!".

hasieran gehiengo bazuen ere, une honetan gutxiengo duela gobernatzeko. Horregatik esaten dio: "Utz ezazu aulkia, Lakuntza jauna!".

Itziar Lamarain *

Nork zuzentzen du Arrasateko Udala?

Azken Udal hauteskundeek, 2003ko maiatzekoek, inori ez zien eman erabateko gehiengo Arrasateko Udalean eta, ondorioz, alkatea aukeratu izan zen EAJ-EAren izan zelako hautagai bozkatuena 2003ko ekainaren 14ko batzarrean. Inazio Lakuntza alkate izendatu izan zen EAJren (6) eta EAren (3) botoekin. Orditik hona goitik behera aldatu da egoera.

Behin eta berriro errepikatu arren, ez gara nekatu esaten —batik bat azken bi urte eta erdian— Arrasateko Udala ilunpean, datuak ezkutututa eta engainuz gobernatuta dela. Horixe sumatu dugu hasiera hasieratik eta uste hori berretsi dutela azken gertarek.

Azken urtean gertatutakoak baieztatzen du arrazoia genuela Lakuntza alkateari leporatzen genionean Udala bere interesen arabera maneiatzen ziharduela, arrasatearren benetako premiak aintzat hartu barik; bakarrik bere guraria aintzat hartuta.

Baina berea bakarrik, ordea? Nondik agindu du Lakuntzak Udala? Herriko Plazako eraikinetik, ala Iturriotz kaleko Batzokitik? Ala, agian, Gipuzku Buru Batzarreko egoitzatik?

Gobernu batzordean 13 zinegotzi zituela hasi zuen Lakuntzak agintaldia. Lehenengo, hiru boto egin zituen, bere aginduetara ez zituelako, hau da, diktadorearen egiteko moduari muzin egin ziotelako. Geroago, beste zinegotzi batek dimisioa aurkeztu eta gobernu batzordea utzi zuen, alkateak informazio guztia ez ziolako ematen. Geroago, beste bat kanporatu zuen. Honek, kokoteraino buka-



MIKEL ARROIABE

tu zuen Lakuntzaren gezur eta engainuekin eta oinaztuen kutxa zartarazi zuen, agerian utziz gobernuan eta alderdiaren aginduetara egon zenean jasan behar izan zituenak. Nire ustez, zintzoa izatearren galdu zuen postua, Lakuntza jaunaren manei u zikinaren aurrean ez makurtzearen.

Zelan dabil agintzen edo gobernatzen une honetan Lakuntza jauna? Bada, bere alderdiko babes ez osoarekin eta gonapean dituen EAkoekin. Eta diot babes ez osoa, ze hori ikus ahal izan baikenuen azken Osoko Bilkuran, non bere zinegotzietako bi, Bedialauneta eta Saez de Azkunaga, ez baitziren batzarrerara agertu. Zergatik, ordea? Ados ez zeuden zerbaiten

"Debagoieneko Ospitale berria ezin zitekeen Zabaletan egin. Orain badakigu zergatik ezin zitekeen han egin"

alde ez bozkatzearen? Hala bada, ondorioztatu dezakegu berriro ere gerta daitekeela eta, ondorioz, EAJren Udal taldea ez dakigu bost zinegotziz, edo hiruz, edo biz, edo zenbatez osatuta dagoen, zenbait gairi dagokionean, behinik behin.

Eta Lakuntzaren gonapean dauden EAkoen gainean dihardudanean, darabilten kontraesanek

dihardut, esaterako, alkateari ultimatumak ematen diotenean uztai-lean, esanez Gelmaren gaia konpontzen ez badu gobernutik joango direla. Denok dakigun moduan, gai hori ez zuen ez alkateak eta ezta EAJk konpondu, beste batzuk baizik, baita EAkoek ere. Eta, hala eta guztiz ere, arkumetxoak bezala, hor segitzen dute artaldean, alkatearen agintepean. Gainera, ausartuko nintzateke esatera EAko hiru zinegotziek ere ez dituztela iritzi eta ikuspuntu berdinak gai honen inguruan. Baina, agian, soldatari eustea da kontua.

Eta hemen iritsi gara ipuin honen amaierara. Orain arte, ze beste ustekaberen bat ere gerta daiteke...

Udaleko batzorde informatzaileak gobernu taldean dauden taldeen arteko hika-mikatarako bilkura bihurtu dira. Eta gatazka horiengatik enteratu gara hainbat kontuz, bestela ezkutututa zizutenak. Eta, halere, informazioa gorde izana salatzen genuenean, maltzurtzat hartzen gintuzten. Zenbat zabor!

Horrelakoak ugariak dira eta hauek adibide bat baino ez. Ospitale berria ezin zitekeen Zabaletan egin, eta alkateak esan zigun oraindik ere Errege Magoetan sinisten jarraitzen dugula... Baina orain badakigu zergatik ezin zitekeen egin. Bestalde, batzordeetan aho batez onartzen diren gai asko ez ditu alkateak onartzen. Ahalmen hori badauka, baina demokratikoa al da hori? Utz eza zu aulkia, Lakuntza jauna!

* PPko zinegotzia eta bozeramailea, Arrasateko Udalean

zer deritzo zu?

www.goiena.net

Nuklear etxe guztiak itxi behar dira?

BAI	%57
EZ	%43

> DENAK ITXI

Bai, denak, bat ere utzi barik zabalik. Bota ere egin beharko lituzkete, eta horien ordezkariak ipini. Patxi

> HORIXE BAIETZ!

Azkenaldian eztabaidatzen nuklear etxeen komenigarritasunaz. Garbia dela eta hau eta bestea. Bai, zera! Lur

> ALTERNATIBA?

Nondik sortuko dugu energia, haize-errotetatik? Mendilerro guztiak haize-errotekin beteko ditugu? Txiki

> DEMAGOGIXIE

Gure dou bizi munduko komodidade guztixekin eta, noski, argi indarra erabiltzen dou kaka itxeko be, baiñe ez dou gure zentral nuklearrik... Zelan? Iñaki M.

> NUKLEARRIK EZ!

Nuklear etxeak, errauskailuak... inork ez ditu nahi etxe ondoan. Zergatik ipini? Benni

DATORREN ASTEKOA: Zubiaurre kasuan, Realak dauka arrazoia?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

Poza eta tristura, maila berean, azalekoenean, nola ageri diren erakusten du saioak.

Kameraren aurrean (guk parez pare edukitzeko moduan eta gu epaimahaiaren puntuan/lerroan jarriz) ageri dira OT Akademian sartu nahi dutenak eta kantuan jartzen dira. Horraino, normal, ondoen egiten duenak aurrera egiten du sailkapenean. Besteak, gehienak, atzean gelditzen dira, paparrean irabaziaren gometsa zenbakitua jaso barik.

Baina, epaia entzun eta irabazle ala galtzaile ageri direnean (barrezka ala negarre-

tan), beraien bizitzako ametsa zela eta hori zutela helburu bakar modura adierazten dute, denek ezpada bai askok.

Eta hori da oso deigarria egiten zaidana: epe laburreko arrakastaren filosofia nola zabaldu den. Agian, gaztetasunaren ordaina da, momentuaren diktadura, baina OT lehiaketan partehartzailerik gisa ageri direnek ez dute pentsatzen programa horretaz gain beste ezer dagoenik, bizitzak buelta asko ematen dituela eta kapitulu askoko katea. Momentuan momentukoa, irabazi ala galdu, hala bizi dute.

Orainaren menpe.

EAREN GERRA

Imanol Murua Uria
www.berria.info/blogak/imanol

Alderdiaren kongresua hauteskunde aurretik egiten badute, garbi dago koalizioari buruzko eztabaida berriro zabaldu dela —atzerago egiteko beranduegi izan daitekeen arren—, eta gai honek sektore ofizialean sortu duen urraduraren ondorioak garden-garden ikusiko direla, Begoña Errazti- ren eta Unai Ziarretaren arteko etena esate baterako, EAren biltzarrak ikuskizun ezin gardenagoak izan ohi baitira. (...)

koplak

Iñigo Arzelus

Agorrosin; egindakoa ulertu ezin

Agorrosingo gastua ez da justifikatua, hainbeste diru hori egiten sekulako bekatua.

400 metro karratu taberna harek baditu, ta horren gimnasio txikia ia ezin da aurkitu.

Hainbeste urte obretan, lotsagarria benetan. Denbora hori ez da nabari oingo instalakuntzetan.

Gimnasioan sarturik inorendako lekurik. inobatzaile omen da baina ez da ikusi besterik.

Piszina zabal-zabala lau kilometro bezala. Ez al dakite igeri beti luzetan egiten dala.

Palmera bat arraroa eta txorrada mordoa. Barkatu baina jendea horra kirola egitera doa.

*Gipuzkoar talde batek enpresa
gizartearen ikuspegitik sortzeko
asmoa izan zuen.*

*Eta aitzindaria izan zen
enpresari bide berri bat bilatzen.
Gaur, gipuzkoar enpresak
dira munduan gure
urkezlerik onenak.*

*Gipuzkoarrok asmoak
eraikitzen ditugu.*





*Eraman dotoretasuna
zure etxera*




gelatza s.l.

Zubillaga auzoa 1 OÑATI

Tel.: 943 71 63 22

Faxa: 943 78 15 51



Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35
Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**
Babes ofizialeko etxebizitzak urtea bukatu baino lehen esleituko dituzte > **18**



> **BERGARA**
Ondare historiko eta artistikoa duten eraikinak argiztatzekotan > **24**



> **ARETXABALETA**
Bihar, erretiratuek dute hitzordua, Erretiratuen Egunean > **31**



> **ANTZUOLA**
Sagastiko zelaian hasi dira gizarte eta kultura etxeko lanak egiten > **36**

BERGARA > ZERBITZUAK

'Halal' okela saltzen duen ibarreko harategi bakarra Bergaran dago

ERRITUA

Erritu musulmanean akabatutako animalien okela saltzen dute, zigilu islamiarrarekin

MECARA BEGIRA

Zumaiako hiltegiak akabatzen dituzte txahalak eta oilaskoak Beranturin

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Erritu musulmanean akabatutako animaliak jaten dituzte musulmanek; *halal* okela. Animalia horiek ez dituzte erritu katolikoa bezala akabatzen eta saldu ere komertzio batzuetan bakarrik saltzen dute. Debagoienean, Bergarako Joseba Harategia, lehen Mujika zena, da *halal* okela saltzen duen bakarra, ohikoarekin batera.

ALAREN IZENEAN

"Lau ezaugarri nagusi ditu animaliak musulman errituan akabatzeak: landareez hezitako animalia izan behar du, ez du koiperik jan behar; Mecara begira akabatu behar dira; jugularra moztuta akabatzen dituzte, hankak gora begira dituztela, eta musulman praktikante batek akabatu behar ditu. Alaren izenean akabatzen ditu eta horregatik, *bismila* oihukatzen du animaliarri jugularra moztu aurretik", dio Joseba Cervo harakinak. "Animaliak hemen hazitakoak izaten dira. Musulmanoi koipe gutxiago duen okela gustatzen zaigu eta horregatik pieza batzuk ez dira Labelean sartzen, ez dutelako behar besteko koiperik", jarraitu du Josebak.

Zumaiako Urkaiku hiltegiak akabatzen ditu Josebak txahalak. "Hango langile bat musulmana da eta hark akabatzen ditu", dio. Berak harategira ekartzen ditu eta gainerako okelarekin batera saltzen du okela hori. "Nik txerria ere saltzen dut eta musulmanok ez dugu txerririk jaten. Horregatik, laban bereziak erabiltzen ditut



JOSEBA CERVO *Halal* okela mozteko mahai eta laban bereziak ditu Josebak bere harategian, txerri okela ukitzen ez dutenak.

O.E.

eta mahai bat dut harategian bakarrik *halal* okela mozteko, gainerako laban edo instrumentuek txerria ukitzen dutelako", zehaztu du. Eibarren, Zumarragan edo Ermuan eren badaude *halal* okela saltzen duten dendak baina ibarrean bakarra dago eta Debagoiena osoko musulmanak joaten dira Josebarengana okela erostera.

ZIGILU ISLAMIARRA

Euskadiko zentro islamiarreko presidentea da Mamoun eta astean behin edo birritan joaten da hiltegietara animaliak behar bezala akabatzen dituzten ikustera. Prozesua ikuskatzen du eta berak jartzen die zigilua *halal* produktuei.

"Zigiluak bermatzen du erritu musulmanean akabatutako animalien okela dela", dio Josebak.

Mamounekin batera ibiltzen da lanean Arrasateko Aitor Cecilia. Piezak batera eta bestera eramaten eta merkaturatzen ibiltzen da bera. "Oilaskoak, Arabako Beranturi herrian dagoen hiltegiak akabatzen ditugu eta handik Euskal Herrira ez ezik, Toledora, Salamancara, Zaragozara edo Burgozara eramaten ditugu, besteak beste", dio Aitorrek.

Duela bi astetik Ramadana egiten ari dira musulmanak, baita Joseba ere, baina zatika, "urtean zehar egiten dut, dena segidan ezin du egiten lanagatik eta".



HIL Jugularra mozten diete animaliei.

Halal okela da musulmanek jaten dutena eta horren ezaugarrietako bat da animalia akabatzen dutela jugularra moztuta. Untxia, txahala, oilaskoa eta indioilarra akabatzen dituzte horrela.



ZIGILUA *Halal* marka dute jatekoek.

Erritu musulmanean akabatutako produktuek argazkian agertzen den moduko zigilu edo marka bat izaten dute horrela akabatu dutela ziurtatzeko. Zentro islamiarraren zigilua da.

kale inkesta

Aramaiorako dirua agindu du Aldundiak; zer deritzozu?




Feliciano Urizarren
Erretiratua
Aramaio



Faustino Oruna
Erretiratua
Aramaio



Maite Mateo
Etxeakoandrea
Aramaio



Asier Beitia
Langilea
Aramaio



Angeles Elgea
Erretiratua
Aramaio

Ederto iruditzen zait. Herria abandonatuta izan dute eta hau konpondu egin beharra dago; adibidez, bideak, eta beste gauza asko. Orain arte Diputazioak ez digu kasu askorik egin.

Dirua zenbat eta gehiago ekarri, hobe. Denetik behar dugu, diru asko falta da, konponketak egiteko eta denetarako. Hori bai, dirua hartzen duenak ez dezala nork bere poltsikoan gorde.

Nire ustez ondo etorriko da dirua, baina ez dakit zer egingo duten diruarekin. Ni optimista naiz eta ondo ikusten dut herria. Dena den, orain dela gutxi etorri naiz hona bizi izatera.

Diru beharra beti dago, bereziki gauzak hobetzeko daudenean. Nire ustez herriko kaleak nahiko ondo daude. Hala, batez ere, errepideak hobetzeko erabiliko nuke diru hori.

Oso ondo dago hori. Nik nahiko nuke babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzen hastea, gu horren zain gaude, baina diru horrekin ezingo dute hori egin. Errepideak konponetzea ere ondo dago.

txaloak eta txistuak



OIHANA ELORTZA

Tarte zabalegia izatearren, arriskutsua



Bergarako Labegaraitan bada zubi bat eskudelarekin. Baina eskudel horrek tarte zabalegia duela nabarmendu digu guraso batek; eta horrek arriskutsu bihurtzen duela etxeko txikiendako; izan ere, deskuiduan zulotik jaus daitezke, sartu sartzen dira-eta.

usteak uste

Iker Barandiaran

Asmo onak ez daitezela bidean galdu

Bake prozesua delakoaren baitan gaude azken hilabeteotan, baina ezer gutxi mugitzen denaren susmoa daukate batek baino gehiagok. Presoen egoera ez da ezer hobetu eta zer esanik ez Iñaki de Juana Chaosen egoeraren gainean. Bestalde, aspaldian kale borroako ekintzak ere berpiztu eta areagotu egin dira.

Pentsatu beharko dugu poliki-poliki pausoak emango dituztela/ditugula eta bizi ditugun arazoek konponbidea izango dutela ere. Baita bizi izandakoaz ikasteko gai izango garela.

Horren harira nire arreta piztu zuen aurrekoan Interneten irakurri nuen albiste batek. Aspaldi ETako arduradun izandako eta gerora Berrozien saltsa ilun batzuetan sartuta egon zen Xabier Zumalde oñatiar polemikoak asmakizun bat egin duela aditzera eman zuten. Zumaldek minak desaktibatzekeko ibilgailu bat asmatu du, eta ibilgailu hori ohiko makina militarrek baino askoz merkeagoa dela azpimarratzen zuten albistean.

Idea ez da txarra, baina gerora ikusiko da horri jarraipena ematen dioten edo ez, gasolina bariko autoak eta sendagai merkeak ere aspaldi asmatu zituzten-eta. Ea prozesuak ere aurrera egin duen.

5 galdera...

Jose Inazio Bengoa

Ehiztaria
Eskoriatza

1. Inguru honetan zein da ohitura: ehiza larria, xehea edo biak?

Biak. Ehiza larrian, batez ere, basurdeen uxaldiak egiten dira. Aramaion koadrilak daude eta Eskoriatzan ere bada koadrilaren bat. Ehiza xeheari dagokionez, berriz, galeperrak, usapalak eta usoak daude, erdi debekualdian. Baina galeperrak hemen ia ez du umetzen, Arabara joan beharra dago. Urriaren 12an zabaltzen den debekualdi orokorrean, berriz, daude oilagorra, usoa eta birigarroa. Hegazti migratzaileak dira, baina batzuk hemen gertatzen dira; oilagorra, esaterako.

2. Zergatik da horren indartsua ehizarako zaletasuna?

Kirol mota bat da. Lagunekin ateratzen gara mendira... Badira batzuk ez direla ehiztariak, baina lagunekin mendira ateratzen dira eta zaletu egiten dira; perretxikotara doazenak bezala. Gainera, urte osoko kontua da. Esaterako, urtean zehar plater tiroketan ibiltzen gara, sasoiaren egoteko. Armaren erabilera, distantziak... praktikatzen ditugu.

3. Egia da ehiztariak gezurtxoak esaten dituzuela?

Tabernetan asko ehizatzen da: harrapatutako ehizaki kopuruak, anekdotak... Gezur txikiak dira.

4. Norberaren txakurrak eta eskopeta ez zaizkio beste inori uzten, ezta?

Ez, norberaren emaztea bezala dira, ezin direnak utzi. Txakurrak ez dira aldatzen eta eskopeta ezta ere. Eskopeta beste norbaiti utzi eta poliziak harrapatzen bazaitu, adibidez, arma-baimena ken diezazuke.

5. Zuen zaletasun hau merke-merkea ez dela kontatu digute.

Garestia da. Ehiza esparrua dutenei garestiago ateratzen zaie. Pasean ibiltzea merkeagoa da. Ehiza esparru batek, gutxienez, 600 euro kosta dezake, pertsonako, kartutxoak eta joan-etorriak aparte. Eskopeta arruntenak, berriz, 500 bat euro kosta dezake.



asteko datua

204

Aldundiak Errepide Plana aurkeztu du Debagoieneko eta, oro har, Gipuzkoako udalerrietan. Euskal Herriko egitasmo orokorrean zehaztu bako errepideen gaineko proposamenak dira. Gure errepideetan 204 milioi euroko inbertsioa aurreikusi dute.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



PARKEA Zerrajera gunean biziko diren herritarrei zerbitzua emateko, 3.700 m²-ko parkea eraikiko du Udalak. XABIER URTZELAI

OBRAK > ZERRAJERAKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK

Etxebizitzak esleitzeko lehiaketa urtea bukatu aurretik deituko dute

Gipuzkoako Foru Aldundiak onspena eman dio Zerrajera gunean 672 etxebizitza egiteari, Egitamu Orokorren bigarren aldaketa onartu du-eta

UBANE MADERA > ARRASATE

Zerrajera gunean 476 etxebizitza eraikitzeke asmoa zuen Udalak. Baina ikusi zuen azalera handiagoa erabiliz gero, 196 etxebizitza gehiago eraiki ahal izango zutela. Hala, hori egin ahal izateko, Egitamu Orokorra bigarren aldiz aldatzea erabaki zuen. Baina horrek Diputazioaren onspena behar zuen. Eta hain justu ere, Aldundiko bozeramaile Koldo Azkoitiak oraingo astean jakinarazi du Diputazioak baiezkota eman diola Arrasateko Udalaren asmoari.

JAURLARITZAREN PROMOZIOAK

Zerrajeran eraikiko dituzten etxebizitza guztiak izango dira babes ofizialekoak. Honela banatuko dira: batetik, 200 etxebizitza eraikitzen dabilta dagoeneko. Bise-sa (Jaurlaritzaren promozioa da) dabil horretan. Aurreikusitakoaren arabera, datorren urterako amaitu beharko dituzte.

Horrez gainera, Jaurlaritzak aukera du beste 108 etxebizitza eraikitzeke, baina Inazio Lakuntza alkateak jakinarazi digunez, udaletxeari, oraingoan, ez diote euren asmoen berri eman.

216 ETXEBIZITZA LEHIAKETARA

Bestetik, beste 148 etxebizitza Foment Inmobiliari enpresak eraikiko ditu (La Caixaren jabea). Alkateak esan digunez, eraikinen proiektuak egiten dabilta eta laster aurkeztuko dituzte udal-txean. Hori egin bezain laster Udalak lizentzia eman eta lanean has daitezkeela gaineratu digu.

Bukatzeko, 216 etxebizitza esleitzea falta zaizkio Udalari. Horiek ere Caixak eraikiko dituzten kategoriakoak izango dira: bereziki gazteei eta pertsona nagusiei bideratzekoak. Alkateak aurreratu digu urtea bukatu baino lehen deituko dutela lehiaketa: "Pentsatzen dut, besteen artean, Kutxa aurkeztuko dela, lehiaketa deitzea erabaki baino lehen, eurekin berba egin genuen-eta".

GIZARTEA > ABAROA BERRIA

Zaharren egoitza berria, aurrera

Biark Studio SL enpresari esleitu dio Udalak proiektua; 2007ko urtarrilaren amaiera alderako gertu izango dute

keztuko dute. "Teilatuaren estalkia aprobetxatuko dugu eguzki plakak instalatzeko. Eta barruko instalazioa ere bereziki zainduko dugu; adibidez, airea berritzeko hodi bereziak ipiniko ditugu solairu artean".

EGUNEKO ZENTROA ERE HAN

Abaroa berria Etxaluze base-rria zegoen lekuan eraikiko dute, San Andresen. Beheko solairuan espaziorik handiena tabernak hartuko du, eguneko zentroa ere izango da, ile-apaindegia eta masaje eta joko gela bana. Lehenengoan, berriz, bulegoak eta orotariko gela bat izango dira eta bigarrean, San Andresko alkatetzeta.

U.M. > ARRASATE

Enpresako arkitekto Aritz Etxebarriak esan digunez, ahalegin berezia egin dute eraikin iraunkor baten gaineko proposamena aurkeztu Udalari. Eta han onartu egin diete. Beraz, urtarril amaieran, iraunkortasun-ean oinarritutako proiektua aur-



IKER BARANDIARAN

Segurtasun neurriak aztertzen

Garibaiko lur azpiko aparkalekuaren irteeran segurtasun neurriren bat ipintzea aztertzen dabil Udala. Hirigintza Sailean jakinarazi digutenez, irteeraren kanpoko aldean ez daude bereiztuta oinezkoendako eta ibilgailuendako guneak. Hori horrela, oinezkoak irteeraren aurretik pasatzen dira eta horrek oinezkoendako arriskua dakar, batez ere, aparkalekuaren irteera tunela delako eta gidariak ia ikuspenik ez duelako. Ondorioz, Udala aztertzen dabil gontzen (piboteen) edo antzerako elementuren baten bitartez oinezkoendako babesa ipintzea.



Lorenzo M. Joosten m.s.
Medikuntza naturalean espezialista (Erreg. zenb. 9700118)

- Buruko mina, muskularra eta hezurretakoa
- Insomnia, estresa eta menopausia
- Masajeak (Tuina - Sihatsu - Moxa)
- Alergiak eta defentsen handitzea
- Haurren hiperaktibitatea
- Sinusitisa
- etab.

Aldez aurretik deitu txanda hartzeko.

Arrasate Pasealekua, 29 Ezker behea 653 133 281
Arrasate 943 792 913



BASATI
TABERNA

TRAGUAK

943 711768

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



KISKALITA Etxea kiskali arren, ez zen izan kalte pertsonalik. SEBASTIAN GOROSABEL

SUTEA > URIBARRIKO ETXE BAT ERRE ZEN

Erretako etxean bizi zirenekin zer egin aztertzen

Gizarte Zerbitzuek esandakoaren arabera, 18 errumaniar bizi ziren han; hiru adinez txikikoak

U.M. > ARRASATE

Joan den astelehenean Urribarri auzoan etxe bat kiskali zen. Zaharra zen eta egoera eskasean zegoen. Hala ere, han 18 laguneko errumaniar talde bat bizi zen, etxea ilegalki okupatuta. Gainera, 18 horietatik hiru adinez txikikoak ziren.

Hori horrela, asteleheneko sutearen ondorioz, etxe barik geratu dira etorkin horiek.

Egoera horren aurrean, Udala Gizarte Zerbitzuetan larrialdiko balorazioa egin dute oraingo asteen, etorkinekin zer gertatuko den erabakitzeko.

SEI DONOSTIARA JOANGO DIRA

Hain zuzen ere, jakinarazi digute etorkin horien arteko seik

(adinez txikiko hirurak barne) onartu egin dutela Udalak egin dien gizarteratzeko eskaintza, integratzeko, alegia. Hala, talde horren beharrak kontuan hartuta, Gizarte Zerbitzuek zenbait gestio egin dituzte; eta oraindik guztiz lotu barik duten arren, seguru asko sei errumaniar horiek bidaliko dituzte Donostiara, Gurutze Gorriak kudeatzen duen egoitza batera.

Beste hamabi lagunei dago kienez, berriz, haiek eskatu dute Errumaniara itzultzeko bidaia ordaintzea Udalak. Baina Gizarte Zerbitzuetakoek ez dute onartu eskaera, "bestelako arloan, ez delako eragin korra eta ez duelako inolako arazorik konpontzen".

OBRAK > GARAGARTZAN GERALEKU BERRIA

Garagartzako geltokia behar bezala egokituko dute, markesina eta guzti

Udalak ahalegina egin behar du Diputazioak segurtasun neurriak ipin ditzan geltoki inguruan, auzotarrek errepidea gurutzatu behar dute-eta

UBANE MADERA > ARRASATE

Elizondo jatetxearen parean geratzen da autobusa Garagartzatik Arrasatera joateko. Baina horretarako errepidea gurutzatu behar izaten dute Garagartzako auzotarrek, horrek dakarren arriskua-rekin. Batez ere, kontuan hartuta Arrasatetik Aramaiora doazen gidariak bihurtune bat dutela auzotarrek errepidea gurutzatzen duten puntu hori baino lehen.

Horrela, zenbait auzotarrek arrisku horrengatik kezka erakutsi diote Udalari. Eta Udalak gauza bera egin du Diputazioarekin, errepide hura harena da-eta.

Orain, jakinarazi digutenez, Diputazioak arrazoa eman dio Udalari; baita dirulaguntza ere, geltokia egokitzeko: 50.000 euro.

SEGURTASUN NEURRIAK GURA

Horri esker autobusa geratzen den lekuan obrak egingo dituzte, markesinari lekua egiteko. Horrez gainera, Udalak gura du segurtasun neurriren bat ipintzea, auzotarrendako. Abiadura murrizteko bandak gura dituzte zenbait auzotarrek. Dena den, Aldundia- ren eskuetan dago erabakia.

AUTOBUS DEZENTE, GARAGARTZATIK ARRASATERA

Gasteizkoa, taxi-busa eta urbanoa: 16 autobus

Gasteiztik Arrasaterako autobusa, Gesalibartik datorren taxi-busa eta urbanoa geratzen dira Garagartzan. Hala, autobusa har daiteke 07:45ean hasi eta 20:10ak arte, egunero. Guztira, 16 autobus pasatzen dira, asko jota ordubeteko aldearekin. Zapatuetan, berriz, taxi-busa ibiltzen da. Hala ere, auzotar gehienek auto partikularrak erabiltzen dituzte. Bestalde, segurtasun arazoaz gainera, Garagartzatik geralekura joateko eskailerak igo behar dituzte, eta horrek zailtasunak eragiten dizkie, bereziki, pertsona nagusiei.



GERALEKU ITXURA Etxebarri baserriaren sarreran hartzen dute autobusa auzotarrek, baina hark ez du geraleku itxurarik. U.M.

Txinatar jatetxea
**DRAGON
ORIENTAL**



Maritxu Kajoi
egunerako
menu bereziak

Deitu eta har ezazu
tokia lehenbailehen!!!

943 79 85 33

Ondo pasatu!

Araba etorbidea 3 ARRASATE



Lilura
OIHALAK

Irudi berria duen denda honek eskerrak eman nahi dizkizue gugan izandako konfidantzagatik eta Maritxu Kajoi egun paregabea pasatzea opa dizue.

Zerkaosteta 5, behea.
ARRASATE. Tel.: 943 79 89 72

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Urribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82



Bañez doktorea 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 63 85

Ondo pasatu Maritxu eguna!



ARGITALPENA > 'GESALIBAR' LIBURUA AURKEZTU DUTE

Gesalibarren gaineko liburua egin du Arrasate Argitan elkarteak

Arrasatearrei zuzendutako liburua egin dute, argazkietan oinarritutakoa, eta euskaraz

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Arrasate Argitan elkarteak hainbat liburu kaleratu ditu orain arte. Ibarreko herriak erakusten zituzten *Arrasate Irudiak* eta *Oñati Irudiak* lanek oso harrera ona izan zuten. Haiek luxuzko liburuak izan ziren, eta neurri baten kanpotarrei zuzendutakoa. Edozelan ere, bi herri horietako lagunek gustura hartu zituzten lanok.

Oraingoa, berriz, beste ikuspegi batekin egin dute. Arrasate Argitan elkarteak Joxe Felix Diaz de Tuestak honako hau azaldu digu: "Arrasatearrei zuzendutako liburu bat egin gura genuen, eta Gesalibar erakustea erabaki genuen".

Gesalibar aukeratzeko orduan zerikusia izan du auzo alkateak. Auzoaren gaineko argitalpen bat egin gura zuen eta elkartera jo zuen argazki eske.

TXIPI ORMAETXEAREN IDATZIA
Elkarteak liburua egitea erabaki zuen iaz, eta dagoeneko kalean dago emaitza. Aurreko liburuak baino merkeagoa da produktua eta oraingoa ere argazkietan oinarrituta dago. Auzo euskaldu-

na denez, liburua euskaraz egi- tea erabaki zuten.

Argazkiez gain, Txipi Ormaetxearen eta Joxe Felix Diaz de Tuestaren idatzi bana sartu dituzte. Ormaetxeak bera jaio zen auzoaren gaineko gogoeta zabaldu egin du. Diaz de Tuestak, berriz, auzoaren gaineko datu batzuk batu ditu.

Argazkiak honako lagunek egin dituzte: Antonio Murillo, Txema Iartza, Juanma Berrueta eta Joxe Felix Diaz de Tuestak, hain zuzen ere. Argazki oinak Diego Martiartuk egin ditu eta diseinua, Jon Etxeberrriak.

Liburuaren 1.000 ale argitaratu dituzte, eta dagoeneko eskuragarri dago liburu dendetan 15 eurotan.



GESALIBAR Liburu horrek, tradizioei eusten dien Gesalibar auzoaren hainbat alderdi erakutsi gura ditu. JOXE FELIX DIAZ DE TUESTA



HARROBIA Arrasateko Musika Eskolak musikarien harrobi handia du. I.B.

IKASTAROA > IKASTARO ETA ESKOLEN MATRIKULAZIOAK

Musika eskolak aurreikuspen guztiak gaindituta

Musika eskolako izenematea itxi dute, baina beste batzuk zabalik daude oraindik

O.V./I.B. > ARRASATE

Arrasateko Musika Eskolak aurreikuspen guztiak gainditu ditu ikasturte honetan. Izan ere, 102 ikasle berri matrikulatu dira azken hilabeteetan.

Eskolako arduradunak oso pozik daude jasotako harrerarekin. Hain zuzen ere, ohikoen da matrikulazio berriak 80 baino gehiago ez izatea.

564 IKASLE GUZTIRA

Hortaz, guztira 564 ikasle arituko dira 2006-2007 ikasturtean Arrasateko Musika Eskolan. Eskolako zuzendari Marta Izagirren esanetan, ez zuten halakorik espero: "Errekor guztiak hautsi ditugu. Zur eta lur gelditu gara".

ARAMAIOA ERE JOANGO DIRA

Ikasturte honetako beste berrikuntza nabarmenetako bat da Arrasateko Musika Eskolak Aramaion ere emango dituela eskolak. Arrasateko eskolako irakasle batek eskolak emango

ditu Ibarren astean behin. Hala jakinarazi digute.

EGOITZA BERRIRAKO LANAK

Bestalde, aurreikuspenen arabera, aurten hasiko dira egoitza berrirako lanak egiten. Arrasateko Musika Eskolak urte luzeak daramatza Apendiz Eskola zaharrean musikazaleei aterpea ematen. Baina, aspalditik, eraikina egoera eskasean dago.

Udalak proiektu bat du abian musika eskola Saiolan eraikinera eramateko, hain zuzen ere. Eskolako arduradunek uste dute egoitza berriaren lanak aurten has daitezkeela.

TAILAREN HOBETZE IKASTAROA

Bestalde, bestelako ikastaro eta eskolak ere hastera doaz. Adibidez, ARTEk (Arrasateko Tailaginen Elkarteak) tailaren hobetze ikastaroa antolatu du. Urriaren 17an hasiko dute, eta guztira 30 ordu izango ditu. Elkarteak Erguin kaleko 19an daukan egoitzan emango dituzte eskolak.

Izena eman gura dutenek telefono bidez egin dezakete honako zenbakietara deituta: 645 70 59 13 edo 943 79 40 79 (Felix).

PINTURA IKASTAROA

Horrez gainera, zapatuetan 7 eta 16 urte bitartekoendako pintura ikastaroa egingo dute Monterronen, 11:00etatik 13:00etara. Irakaslea Amaia Bengoa izango da. Bengoa Arte Ederrak ikasketetan lizentziaduna da. Matrikula 80 eurokoa da, eta izena emateko Monterronera jo behar da 17:00etatik 20:00etara.



ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:

Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazotak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 / 675 70 57 35 ARRASATE




Amagara

Erdiko kale 54 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09


- **Kontsulta medikoa**
- **Homeopatia**
- **Peeling-a, AHA...**

■ **Dietetika eta nutrizioa**

■ **Gorputz-mesoterapia**



VISTABEL (Botox)



**Azido Hialuranikoa
Aurpegi-mesoterapia**



Ezpainetarako betegarriak

**Zatoz eta
kontsulta egizu**

R.P.S. 297/05

SOS

“Zure burua inoiz baino gehiago maita ezazu”




**NEURRI HANDIETAN
ESPEZIALISTAK**

*48 eta 64 bitarteko
neurriak aukeran*

Bizkaia Etorbidea 1

ARRASATE

Tel.: 943 77 14 24



XAKEA > ARRASATE HIRIA XAKE TXAPELKETA

Faboritoen arteko partida, domekan

Maritxu Kajoi dela-eta, Alejandro Francok eta Fran Miguelek domekan erabakiko dute txapelketa

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Txapelketako laugarren jardunaldia jokatuko dute domekan. Ez da azkena, baina erabakigarria izango da, txapelketako bi oilarrek izango dira-eta aurrez aurre: Alejandro Franco madrildarra (4 puntu) eta Fran Miguel aretxabaletarra (3,5 puntu) zein baino zein gehiago. Alejandro

Francok irabazten badu poltsikotan izango du txapelketa, eta saria. Fran Miguelek, baina, ez dio garaipenerako bidea erraztuko. Duda barik, norgehiagoka hori izango da domekan jokatuko duten jardunaldiko partida bereziena. Ezin alde batera utzi, baina, Aitor Alcaidek eta Josu Torayk jokatuko duten zeingehia-



DOMEKAN Laugarren jardunaldia domekara atzeratzea erabaki dute. Altamiran jokatuko dute (17:00).

GOIENKARIA

goka. Hiruna punturekin berdinduta, garaipena erdiesten duenak bigarren postura jauzi egin ahal izango du, baldin eta Fran Miguelek hori onartzen badu.

INDARRAK PAREAN

Eta gainontzeko tauletan ere ez dago txantxetarako tarterik. Hirugarren, laugarren eta bosgarren tauletako jokalariek guztiak

berdinduta daude (2,5 puntu): Isidro Ruiz-Fran Ladron de Guevara, Roberto Villar-Jesus Hernandez eta Txema Hernando-Ander Zulaika. Dena, domekan (17:00).

SASKIBALOIA > MUGARRI ALKESA

Luzapena jokatu eta gero, 99-106 nagusitu zen Mugarri Alkesa Lizarran, eguaztenean

Mugarri Alkesakoek asteburuko norgehiagoka aste barrura aurreratu eta denboraldiko lehen garaipena erdietsi dute

X.U. > ARRASATE

Gorka Zurututzaren mutilek esperantza gutxien zutenean lortu zituzten saskiratze garrantzitsuenak, luzapenean. Ordurako taldea pibot barik zegoen, epaileek Barberena, Mallabi eta Biain zigor-

tu zituztelako. Hala, barruko jokoa egiteko gutxiagotasunean, kanpoko jaurtiketetan bikain asmatuta eutsi zion Mugarri Alkesak markagailuari, baita aldea eskuratzen ere.

HASIERA MAKALA

Izan ere, Arrasateko taldeak ez zuen eguaztenera aurreratutako norgehiagoka ondo hasi. Normalean baino puntu gehiago jasota, Mugarri Alkesakoek bigarren zatian erakutsi zuten aurpegi hobea. Aurrean izan ziren markagailuan, eta zeingehiagoka amaitzeko hiru minuturen faltan 8 puntuko aldea zeukaten. Azken

hiru minutu horiek, baina, ez ziren partiduko onenak izan: Lizarrak norgehiagoka berdindu eta azken jaurtiketa ere euren aldekoa izan zen; ez zuten saskiratu. Gauzak horrela, luzapenak utzi zuen talde bakoitza bere lekuan.

KANPOTIK ONDO

Kanpoko jaurtiketetan erakutsitako abileziari esker nagusitu ziren Arrasatekoak. Hiru saskiratzeetan, adibidez, Zuru-ren mutilek 15 aldiz asmatu zuten. Aipatzekoa, baita ere, bihar ezkonduko den Alartziak lortutako 34 puntuak. Hori da taldeari gero arte esateko modu onena. Zorionak.

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Lehenengo azterketa gaindituta, bigarrena zain

Ford Mugarri Arrasatek Egia Servi izango du asteburuan kontrario

X.U. > ARRASATE

Gaindituta, eta nota onarekin, gainera. Ikusteko zegoen Bernardo Balerdiren eta Fertxu Rodriguezen taldeak zelan erantzun zuten kategoria berrian, eta Portugaleteri 6 goleko aldearekin irabazi izanak erakusten du Euskadiko Txapelketan taldea ez dela herren ibiliko. Hori bai, ez gara etxafuegoak

behar baino lehenago botatzen hasiko, etorriko dira-eta kontrario gogorrakoak, eta baita min egiten duten porrotak ere.

BIHAR, DONOSTIAN

Lehenengo azterketa gaindituta taldeak bihar, zapatua, izango du bigarrena, Egiaren kontra; eta hori izan daiteke lehen aipatu dugun kontrario gogorretako bat, (Egia kiroldegia, 19:30). Arrasatek liga ondo hasi badu ere, donostiarrak ere ez dira gutxiago izan, joan den astean Barakaldoren kantxan nagusitzeko gauza izan zirenetan (21-23). Biharamunak ere izango du zeresana.



BIARK STUDIO SL

Arkitektura proiektuak

Usaetxe plaza 1 behea Esk (Kopyprest parean)
ARRASATE

Tel.: 943 798033 Mug.: Asier (652755446) Aritz (679736329)

E-posta.: biark@arquired.es



Berriztapenak



Obra berriak



Hirigintza



Erreformak



bote prontuen

Aritz Etxebarria > Biark Studio Arkitektoak

"Proiektu bakotxakin hutsitu egitten gare"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Aritzek eta Asierrek sortu daue Biark Studio, eta Usaetxe plazan daukie bulegue. Mondraguekue da Aritz, eta Elorrixokue Asier. Arkitekto bi horreik oin arte Asierren jaioterrixen egin daue lan inportantiena, parke bat barritu daue-eta, txukun eta moderno. Oin, barriz, Aritzei toke-tan jako herritarren aurrien neurrix e mutie, eurek egingo daue-eta San Andresen egongo dan zaharren etxien gaiñeko diseñue.

Nundik nora sortu dozue Biark?

Egixe esatiarren, kasualidadez izen da. Asierrek eta bixok bizpahiru urte egin dou beste arkitekto batzuekin lanien, eta aste bukaerak eta oporraldixek aprobetxetan geuen geure lanak egitteko. Azkenien, ikusi geuen lan bolumen haundixe geukela, baitte klientiek be, eta Biark sortzera animau gitzen.

Eta, zelako lanak egin dozue oin artien?

Danetik egin dou: baserrixek barriztu, etxe unifamiliarrak egin, etxe barruko erreformak... Akaso, oin artien egin dogun lan inportantiena Elorrixoko plaza baten



izen da; jentiei gustau egin jako proiektue, eta hori poztekue da; oin hasiko daue lanak.

Eta badauketue beste lan batzuk esku artien.

Bai, zortzi-hamar proiektu eukiko dou oin momentuen esku artien, eta proiektu bakotxakin hutsitu egitten gare. Gaiñera, San Andresen egingo dauen zaharren etxeko egoitzako lehiaketara aurkeztu gitzen, eta geure proposamena onartu daue. Ilusiño haundixe egin dusku horrek.

Izen be, politte izengo da norberan herrixen holako lan bat egittie.

Bai, politte da, bai. Herrixen badauz geuk barriztutako hainbat etxe, eta norberan herrixen lan egittie gauza berezixe da.

Proiektu haundixe hori, baiñe bezero txikiñaeuakin be egitten dozue lan.

Bai, bai. Etxien erreformaren bat egittie gure dauenak, teillatue barriztu... Geure buleguen egongo gare, bezeruen proposamenak entzuteko gertu.

bere ustez



Nerea Makazaga

Hirietako Kixote petrifikatuak

I baiak, errekek, inoiz amaitzen ez diren meandroak, berun faltsu baten tatuatuak, azalaren paisaiak texturatzen. Obra perfektua. Begirada lanbrotzua, ahots hautsia (gaueko ordu txikiertako erreserbatua); beste kolore bateko errealtatean zizelkatua dirudi. Mantxako Kixote izan zitekeen, txuri beltzeko garaietatik bueltan, gaurkoan estatua bihurtua.

Horrela, Kixotek sorterriko paisaiak utziko zituen, hirietatik paseatzeko, lur azpietako mamu izateko, beti

"Mantxako Kixote izan zitekeen, txuri beltzeko garaietatik bueltan, gaurkoan estatua bihurtua"

eta betiko, gris metalizatuz jantzita.

Egunez inork gutxik erreparatzen dio izenik ez duen estatuari, txanpon bat edo beste eskaintzen dutenek ez dute pazientziak jantzi den artista bat saritu gura baino. Baina probokazioa besterik ez da, lehiaketa eternoa, denborari kontra egitera ausartu den heroia boroa amaigabea.

Gauetz, estatua izateari uzten dionetan, eskumuturreko ordulariak une batzuek ohiko erritmoa berreskuratzen du eta orduan ekiten dio ispiluaren bestaldeko konplizeak bilatzeari. Hiriko kaleetan aurkitzen ditu zerbeza-biher baten konpainian; unea eta konplizeak bere obraren parte bihurtzen dituen arte.

argazki zaharra

30 urte On Jose Luis Iñarra hil zela

Astelehenean egin zioten San Juan Bataiatzailea parrokiari On Jose Luis Iñarrari omenaldia. Oraingo parroko Genaro Lekuonak meza berezia eman zuen, kantatutakoa. Izan ere, askok dute Jose Luis Iñarra gogoan, 35 urtean abade lanak egitearekin batera lan erraldoia egin zuelako herriko osasungintzaren, hezkuntzaren, etxegintzaren eta kulturaren alde. Askok motor gainean gogoratzen dute oraindik.

Argazkia: Eusebio Iñarra.

Testua: Goienkaria.

Urtea: 1972.



Uarkape jatetxea

Plater konbinatuak, bokatak, eguneko menuak, karta. Maritxu egunerako dena prest! Ondo pasatu!!

Otalora lizentziatua 10 Tel.: 943 77 20 04 ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebun hizkiak

HIRIGINTZA > ARGÍ PUNTUAK SARTZEN ARI DIRA SAN MARTIN PLAZAN

Ondare historiko eta artistikoa duten eraikin nagusiak argiztatuko dituzte

Herriko komertzio-gunea berpizteko argiztatuko dituzte eraikinak; seminarioa, Olaso dorrea eta San Pedro eliza, besteak beste

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Ondare historiko eta artistikoa duten eraikinak argiztatu egingo dituzte; Errege Seminarioa, esaterako. Eraikina bera argiztatuko duten fokua jartzen ari dira egun hauetan plazan. Bide batez, saneamenduko arazo bat konpontzen ere badihardute, ur zikinak eta garbiak ondo bereizteko modua jartzen, alegia.

OLASO ETA SAN PEDRO ERE BAI

Errege Seminarioa argiztatuko 25 argi puntu jarriko dituzte: batzuk behean, lurrean, eta beste batzuk eraikinaren fatxadan.



FOKUAK 25 argi puntu jarriko dituzte Errege Seminarioa plaza aldetik argiztatzeko.

O.E.

Ez da argiztatuko duten eraikin bakarra izango, ordea: "Udalari eta epaitegiari argi egiten dioten fokua jarrita daude dagoeneko,

oraindik pizten ez diren arren, eta seminarioaren ostean, Olaso dorrea eta San Pedro eliza argiztatuko argi puntuak sartuko

ditugu. Automatikoki piztuko dira argiak, programatuta egongo dira", dio Joseba Aizpuruak, Hirigintza teknikariak. Lan guz-

tiak segidan egingo dituzte, bata bestearen atzetik, eta urtea amaitu orduko bukatuko dituzte. "Gabonetarako eraikin historiko eta artistikoa argiztatuta egongo direla uste dut", aurreratu du Hirigintza teknikariak.

KOMERTZIOAK BERPIZTEKO

Eraikin horiek argiztatzea herriko komertzioaren gunea berpizteko asmoen barruan sartzen dela kontatu digu Joseba Aizpuruak: "Kaleko farolek ematen duten argia ere aldatu dugu. Lehen argi horia ematen zuten eta orain, aldiz, argi zuria ematen dute. Horretarako, lehengo elementu batzuk aprobeztatu egin ditugu, baina beste farola batzuk edo argi puntu batzuk berriak jarri ditugu".

Ondare historiko eta artistikoa duten herriko eraikin nagusi horiek argiztatzeko aurrekontu osoa 450.000 euro da. Diru horren zati bat Jaurlearitza jaso du Udalak, komertzio-guneak indartzeko eta berpizteko planetik, hain zuzen ere.

> HEZKUNTZA

Urriari zabalduko dute haurreskola, eta izena eman daiteke oraindik

Hilabete honetan, urriari, zabalduko dute haurreskola Martinez Iralan. 0 eta 2 urte bitarteko umeak hartuko dituzte haurreskolan, eta matrikula zabalik dago oraindik. Kultura etxean eman behar da izena, Errotalde jauregian.

Martinez Irala ikastetxean Aranzadik erabiltzen duen eraikinaren erdia egokitu dute haurreskola egiteko, beheko solairua. Uda aurretik hasi zituzten lanak. Haurreskolak bost gela-horietako bat psikomotrizitate gela- eta 50 umerendako toki izango du. Sarrera gimnasio aldetik izango du.

> ODOL-ATERATZEA

Odola ateratzeko eguna da datorren eguztena

Odol emaleen elkarteak gogorarazi nahi die emale guztiei odola ateratzeko eguna datorren eguztenean, urriaren 11n, dela. Beti bezala, seminarioko lokaletan egingo dute odol-ateratzea, 18:30ean. Oraindik emale ez direnak eta odola eman nahi dutenak ere hitzordu horretara joan daitezke nahi izanez gero.

2006an zehar 24 odol-ateratze egingo dituzte Bergaran. Hilabete gehienetan bi ateratze egiten dituzte eta urriaren ere bi hitzordu dituzte odol emaleek: 11n eta 25ean, hileko azken eguztenean.

20 kiloko lantesa ekarri dute Ondarroatik Bergarara

Domekatik astelehenerako gauean harrapatu zuten argazkiko 20 kiloko lantesa, amuarekin, Ondarroan, eta Miren Elorriagak Itxas Eder arrandegira ekarri du. Kilo eta erdi inguru izaten dute lantsek normalean, eta arrandegira sartu diren guztiak aho zabalik gelditu dira. Zatika saldu dute Mirenek eta alabak.



IRATI AGIRREAZALDEGI

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ONDAREA > JESUSEN ZERBITZARIEN ELIZA TXUKUNTZEN

Barruko egurra garbitu dute eta kanpoko hesia margotzen hasiko dira

Lanean dihardutenak ez dira profesionalak, hantxe dagoen formaziorako okupazio-zentroko ikasleak baizik, etorkinak gehienak



LANGILEAK Formazio zentroko ikasleak dabiltza elizan lanean. O.E.

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Jesusen Zerbitzarien eliza txukuntzen ari dira. Ekainean paretak margotu zituzten eta orain, egurra garbitu eta bernizatu egin dute. Caritas-ek kudeatzen duen formaziorako okupazio-zentroan dabiltzan ikasleek dihardute lanean. Orain, elizaren kanpoaldea txukuntzen hasiko dira.


AURPEGI GARBIKETA

Urteko lehen seihilekoan 23 ikasle egin dute geriatría laguntzailerik ikastaroa Caritas-en egoitzan. Ikasturte bukaeran Uriarte gotzaina etorri zen diplomak ematera eta ordurako eliza txukun egotea nahi zuten: "42 urte inguru ditu Jesusen Zerbitzarien elizak eta inoiz ez da berrikuntzarik egin. Ekainean paretak margotu zituzten eta azken bi asteotan

egurra garbitzen aritu dira hainbat langile; bankuak eta aldre atzeko horma bernizatu dituzte, adibidez", dio Xabier Zabaletak, formaziorako okupazio-zentroko arduradunak. "Langileak ez dira profesionalak, bertako ikas-

leak dira eta gehienak etorkinak, Maroko, Brasil, Bolivia eta Portugalgoak, besteak beste", jarraitu du.

Eliza barruari aurpegia garbitu diote eta orain, kanpoko hesia margotzen hasiko dira.



GOIENKARIA

Itsasoan igeri Angiozarko santua

Zumaiatik iparraldera joanda zegoen Angiozarko San Migel, kostatik 14 kilometrotara. Elgoibarko Angel eta Juan Jose Garate anaiek aurkitu zuten, Angiozarren zeruratu eta 13 ordutara. Anaia biak domekan izan ziren Angiozarren 200 euroko saria jasotzen eta Beheko Taberna jatetxean afaltzen.

> SARIA

24 gomendio jaso dituzte Gomendatzen Dizut sarian, eta Gorka Martinez gaztea da irabazlea

Gorka Martinez Isado 23 urteko gazteak irabazi du gazte bulegoak laugarren aldiz antolatu duen Gomendatzen Dizut saria. Inoiz baino parte-hartzaile gehiago izan dira aurtengo lehiaketan, 24 guztira; 10 gomendio e-postaz jaso dituzte eta gainerakoak bulegoan bertan. Adinari dagokionez, lehiaketan parte hartu dutenak 17 eta 38 urte bitarteko gazteak izan dira eta mutilen partehartzea nabarmen igo da, aurtun neskek baino gehiago izan dira-eta. Gomendioak berriz, Europatik bidali dituzte 12, Espainiatik lau eta munduko gainerako herrialdeetatik zortzi. Irabazleak, Gorka Martinezek, Portugalgo Figueira da Foz gomendatu du, turistikoa delako eta hondartza eta kala politak dituelako.

AZKARATE AROZTEGIA
Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

Arotz lanetan behar duzun guztia

www.goiena.net/blogak/azkarate

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

MIZPILDI OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

KONDE PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

CAMACHO
Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

GURIA Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

Miguel Angel Elkoroberezibar > Ikerlaria

"Domingo de Irala Ameriketara joan aurreko urteen berri ematen saiatu naiz liburuan"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Domingo de Irala bergarar ospetsua hil zela 450 urte bete dira urriaren 3an. Era berean, haren jaiotzaren 500. urteurrena ospatzeko ekitaldiak antolatu dituzte Paraguain eta Argentinan. Miguel Angel Elkoroberezibar irakasle eta ikerlariak Iralaren gainean idatzitako liburua ospakizunen barruan kokatzen da. Udaberriari aurkeztuko dute lana.

Zelan sortu da liburua idazteko aukera?

Paraguaiako Historia Akademiaren enkarguz prestatu dudan lana da. *Domingo de Irala y su entorno en la villa de Bergara* du izenburua eta bertan Irala Ameriketara joan aurreko urteen berri ematen saiatu naiz, XVI. mende hasierako Bergara aztertu eta Domingo de Iralaren senitartekoei buruzko informazioa azaltzeaz batera.

Ekitaldi ugari antolatu omen dituzte Paraguain.

Bai, Cuenca del Platato historialari eta genealogiazaleen elkarteak sortu dute, hainbat libururen berrargitalpenak egingo dituzte, Iralari buruzko saioak... Argentinan, berriz, Mileo anaiek CD eta liburu bat aurkeztuko dute, *Irala, sueño de amor y de conquista*. Asuncionen hitzaldiren bat edo beste emateko ere eskatu didate eta horretarako Benito Canteroren lankidetzak izango dut, berak utzitako hainbat argazki erakutsiko baitituz han.

Amerikako lehen konkistatzaileetako bat izan zen Domingo de Irala, eta Paraguai fundatu ei zuen.

Pedro de Mendozaren armadan joan zen eta bere idazkari izatek, Rio de la Platako gobernadore izatera heldu zen. Buenos

Airesen sorreran ere parte hartu zuen eta Paraguaireren sortzaile izan zela esan dezakegu.


Capitán Vergara ezizenez ezaguna zen, ala?

Ohikoa zen garai hartan jatorria erabiltzea jendea izendatzeko. Trentoko Kontziliara arte (1545) ez zuten deituren auzia arautu, eta askatasunez jokatzeko zuten aitaren edota amaren abizena hartzerakoan eta baita jaioterri edo baserriarena erabiltzerakoan ere.

Ez dago batere argi noiz jaio zen: 1506 eta 1509 artean Bergaran jaio zela esan dezakegu; hil Asuncionen hil zen, *koliko misere* gaitzak jota. Data dantza handia egon da orain arte. Iaz argitaratutako euskal historiako pertsonaien bizitzak jasotzen dituen liburu ezagun baten arabera, Irala 1486an jaio eta 1558an hil zen. Kontuz ibili behar da zenbait iturritatik edaterakoan.

Konkistatzaileak zalantzan jarri izan dituzte askotan. Zer diote historialariek Iralak egindakoaren gainean?

Bigarren mailako konkistatzaileen artean sartu izan dute beti, eta guztiz ezezaguna izan da gure artean. Ehunka emazte izan zituela entzun izan dugu, hortik *txingadorea*-ren goitizena, eta apenas ezer gehiagorik ez dakigu. Paraguaiako gaur egungo biztanleriaren %60 bere ondorengoa dela ere baieztatu du batek baino gehiagok. Zazpi emazte zituela aitortu zuen berak bere testamentuan; beraz, badago egia zerbait, baina Irala hori baino gehiago izan zen. Mestizaiaren aita bezala ezagutzen dute Ameriketara eta asko estimatzen dute. Zaldiak lehen aldiz Ameriketara eramane zizutzelako da ezagu-



Iralaren gainean liburua idatzi du Elkoroberezibarrek.

GOIENKARIA

na ere, baina bereziki hiri asko fundatu zituelako, lantegiak sortu, txanpona, guztiz militarra ez zen gizarte sistema berria eratu, e.a. Beste konkistatzaile askok ez bezala, bertako indioen aldeko ordenantza ugari ezarri zituen. Gaur egun guarania hamarretik

"Bigarren mailako konkistatzaileak jo dute Irala, eta ezezaguna izan da gure artean"

"Mestizaiaren aita bezala ezagutzen dute Ameriketara, eta asko estimatzen dute"

bederatzik berba egitea ere horren ondorio da. Aldeko eta kontrako alderdi ugari ditu Iralak, eta ezagutarazi egin behar dira, gure herri eta historiaren parte delako.

Bergaran izan du presentziarik?

Izan du eta badu. Madalena plaza eta Fraiskozuri plaza Domingo Martinez de Irala plazak izan ziren; azken horretan jarri zuten haren omenezko monolitoa, Asuncionen dagoenaren kopia. Kale bat ere badauka, lehen Ariznoa kalea zena. Zinema areto batek bere izena zeraman eta baita ikastetxe batek. Baina norbaitek bere irudia udaltxeko osoko bilkuren aretoko bergarar ospetsuen artean topatu nahi badu, jai dauka.

> MUSIKA ESKOLA Capelladesera joan aurretik, Orkestraren emanaldia

Musika Eskolako Orkestrak kontzertua eskainiko du eguaztenean, urriaren 11n, Mariaren Lagundiko elizan, 18:00etan. Capelladesera, Barzelonara joan aurretiko emanaldia izango da. Zubia Capelladesen igaroko dute, hango Musika Eskolarekin egindako elkartrukea dela-eta.

> MUSIKA DJ ikastaroa antolatu du Jardun elkarteak

Jardun elkarteak DJ ikastaroa antolatu du. Hilaren 14an hasita, urriko hiru zapatutan izango da ikastaroa, Bergarako gaztetxean, 16:30etik 19:30era. Asier Balzategi izango da irakaslea. Izenematea urriak 11 baino lehen, Jardunen. Argibideak 943 76 36 61 telefonoan.

> PINTURA Gaztetxoendako pintura eta marrazketa eskolak

Beart elkarteak 5 eta 15 urte bitartekoendako pintura eta marrazketa ikastaroa antolatu du. Zapatu goizetan izango dira eskolak, 10:00etatik 13:00etara. Ikastaroa bihar, zapatua, hasiko dute. Izenematea eta argibideak 653 71 53 82 (Mayra) edo 665 70 31 75 (Oihana). Iluntzean deitu.

> IKASTAROK Eskularen eta zeramikaren gaineko ikastaroak

Bergarako Emakumeen Kultur Elkarteak (BEKE) eskularen ikastaroa antolatu du emakumeendako. Argibideak 625 70 78 92 (Koro) telefonoan jaso daitezke. Bestalde, zeramika hastapen ikastaroa Zabalotegiko dorrean izango da. Izenematea eta argibideak 626 92 04 13 zenbakian.

GOIERRI

AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

GAK

Garbiketa, Administrazioa eta Konponketak

Era guztietako garbiketak
•
Zuen komunitateko administrazioa
•
Konponketa orokorrak
•
Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe.

Tel.: 653 70 45 47 OÑATI

UGARTE

AROTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean
•
Horma armairuak
•
Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04



AEROBIKA
STEPA
SPINNING-eko ZENTRO OFIZIALA
SASOIAN EGOTEKO GIMNASIA
INFANTIL MAILAKO KARATE ESKOLA
HELDUENDAKO KARATEA
TAI-CHIA
PILATESA
ERDITZE OSTEKO GIMNASIA
EASY LINE ZIRKUITUA
GALILEO
FITNESSA
DEFENTSA PERTSONALA
EUSKAL DANTZAK



SPINNING-eko ZENTRO OFIZIALA



**INFANTIL MAILAKO
KARATE ESKOLA**



Boni Laskurain 3
BERGARA
943 76 30 05

GIARTZU

Astelehenetik ostiralera 07:00etatik 21:30era

KARDIOBASKULARRA

PILOTA > JAIALDIA DOMEKAN

Bergarako pilotalekua gertu pilotari profesionalak hartzeko

Eraberritze lanak egin eta gero, Bergarako pilotalekuak domekan hartuko ditu lehenengoz pilotari profesionalak: Eugi eta Arretxe aurrez aurre

XABIER URTZELAI > BERGARA

Inaugurazio ekitaldia egin bazuten ere, Bergarako pilotalekuak domekan aurkeztuko du itxura politena profesionalen aurrean, eta baita ETBko kameren aurrean ere. Lau terdiko Txapelketa-ko kanporaketa norgehiagoka jokatuko dute: Patxi Eugi eta Iker Arretxe aurreko koadroetan. Pilota jaialdia 17:00etan hasiko da, baina jaialdiko antolatzaile Aspe pilota enpresak oraindik ez du erabaki zeintzuk osatuko duten jaialdia.

PILOTALEKU ARGITSUAGOA

Hori da eraberritzeko lanak eta gero pilotalekura sartzean lehenengo igartzeko dena, argi gehiagogo dagoela. Sabaia goitik behera



FRONTIS TXIKIA Pilotariak aldageletan egingo dituzte berotze ariketak.

x.u.

aldatuta (57.000 euro), lehen baino argitasun gehiago sartzen da kantxara, eta horrek on egingo dio ikuskizunari. Esan barik doa, gainera, zaleak erosoago egongo direla jarleku berrietan, eta pilotariak ere igarriko dute aldea, besteak beste, aldageletan lasai bero-

tu ahal izango dute-eta. Aldageletako hormetako bat aprobetxatu dute frontis txiki bat egiteko, eskuak berotzeko.

Oraingo neguan Bergarako pilotalekuan antolatuko ditu Aspek pilota jaialdi gehienak. Sinatzeko dago hitzarmena.

ARETO FUTBOLA > LABEGARAIETAKO TXAPELKETA

Astelehena da txapelketan izena emateko azken eguna

Urriaren 21ean hasiko dute txapelketa, baina lehenago batzarra egingo dute

tzen den moduan, taldeek azken egunak aprobetxatuko dituzte izena emateko. Horrenbestez jakin, astelehena dela izena emateko azken eguna.

200 EURO TALDE BAKOITZEKO

Hori da txapelketan esku hartzeko talde bakoitzak ordaindu behar duena; Euskadiko Kutxako kontu honetan sartu behar dute diru kopuru hori: 3035-0009-12-0090033922.

Esandako moduan, txapelketa urriaren 21ean hasiko dute. Antolatzaileek, baina, batzarra egin gura dute talde guztietako ordezkariekin. Kultura etxean izango da batzar hori, urriaren 16an. Txapelketaren gaineko informazio gehiagorena hemen: www.bergarakotxapelketa.3a2.com

X.U. > BERGARA

Lagunak Kirol Elkarteak hartu du aurtengo Labegaraietako areto futbol txapelketa antolatzeko ardura, eta ez dute erronka makala. Joan den urtean txapelketan gura baino arazo gehiago izan ziren, bai ligan eta baita kopan ere, eta orduko antolatzaileek oraingoei egin diete lekua. Gauzak horrela, Lagunakekoak gogotsu hasi dira horrenbesteko arrakasta duen txapelketa herrikoia antolatzeko. Horrelakoetan gerta-

> FUTBOLA

Bergarak Orioko hartuko du domekan, eta BTLS taldeak Antzuolaren kontra izango du derbia

Lehenengo erregional mailan, Bergarak azkenaurreko postuan dagoen Orioko hartuko du domekan Agorrosinen, 16:30ean. Azkeneko emaitzak direla-eta, Neka Galanen mutilek hamargarren lekura egin dute jauzi, eta taldeak gorago egon behar du.

Bigarren erregional mailan, berriz, BTLS-ek eta Antzuolak derbia jokatu dute bihar Ipintzan, 15:30ean. Lehenengo postuan dago Antzuola, eta hirugarrena da BTLS; biek hala biek, baina, zazpina puntu dituzte. Jarraitzeko moduko derbia izango da.

> ESKUBALDIA

Bergarak Urnietaren kantxan estreinatuko du denboraldia, domeka eguerdian jokatu dute

Asteburuan hasiko dute lehenengo territorial mailakoek denboraldia. Etxetik kanpora jokatu dute lehenengo partidua, Urnietaren kantxan (domeka, 12:15). Aurre-denboraldi txukuna egin eta gero, ikusteko dago Josetxo Muniategiren mutilek zelan egi-ten dioten aurre lehenengo jardunaldiari.

Infantil mailako gaztetxoek ere norgehiagoka izango dute asteburuan, lagunartekoa, baina. Hala, Bergarako gaztetxoek Alohakoena kontra jokatu dute asteburuan.

Udaleko idatziak euskaraz jasotzea eskatu dugu



UDALAREKIN EUSKARAZ.

Begarako Udalak euskaraz funtzionatzen du neurri handi batean. Bulegoetako langile guztiak euskaldunak dira eta barruko funtzionamendua euskaraz da nagusiki. Baina oso inportantea da herritarrek ere Udalarekin euskaraz jardutea. Horregatik, Udalak idatziak euskaraz jaso nahi dituzten herritarrei horretarako aukera eskaintzen die eta 4300 lagun dira hori eskatu dutenak.

EBPN

euskara biziberritzeko plan nagusia, Bergara

Informazio gehiago:

www.bergara.net

Euskara Zerbitzua: 943 77 91 66

BERGARAKO
UDALA

Herran

BERGARA

Sukaldeko altzariak: Matxiategi 4 • 943 76 37 53



12 urteko garantia

vegasa

*Urte osoan moreno
mantendu zaitez*



Giartzu estetika

Beltzaran eguzkirik gabe

Giartzu estetika



Laser depilazioa

*Tratamendu
erlaxagarri
zendotzailea*



Giartzu estetika



*Boni Laskurain 3
BERGARA
943 76 35 71*

GIARTZU

**Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 20:00etara
Neguan larunbatetan 10:00etatik 13:00etara**

Ezkontzarako makillajea



Maritxu nora zoaz
ONDO PASATU
Iturririk Baita
GAURKO EGUNA!
Nahiz eta

iturrian zer dago?
ardotxo txuria
biok edango degu
nahi degun guztia

Maritxu Kajoi
 2006

Aukerarik zabalena
 festarako soineko,
 barruko moda
 eta osagarrietan.

Casa Ceciaga

Maalako Errabala, 3
 ARRASATE
 Tel/Faxa: 943 79 12 62



Neurriak
 38tik 60ra

Mirari
 JANTZIDENDA
 Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

UDAZKENA
 NEGUA

ERRETIRATUEN EGUNA > MEZA ETA BAZKARIA ERRETIRATUEN OMENEZ

Mila erretiratutik gora dago herrian, eta 300 izango dira biharko bazkarian

Nafarroako enpresa batek gertatuko die bazkaria eta ondoren oparitxoak jasoko dute

Joaquin Barbero eta Elizgaraiko Margarita Lasagabaster dira herriko nagusienak

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Bihar, urriak 7, hitzordu garrantzitsua daukate herriko erretiratuek: euren omenez Udalak gertatu dien eguna. Salda, meza eta bazkari goxoa izango dituzte, dantzaldiarekin bukatzeko jaieguna.

NAFARROATIK DATORREN MENUA

Urte asko dira Udala herriko erretiratuek omentzen hasi zela, 30en bat bai, behintzat. Eta urriaren lehen nagusiaren nazioarteko eguna ospatzen dela jakinda, urriko lehen zapatuan antolatzen dute jaia Aretxabaletan. Eguna hasteko salda eskainiko dute Basotxo erretiratuen elkarteak, eta ondoren, 12:30ean, meza esango dute parrokian. Erretiratuei eskainitako eukaristia egingo du Jesus Ortiz de Urbina parrokoa.

Eguerdia aurrera doala sabelean zuloa egiten hasiko zaie askori; hortaz, poliki-poliki kirol etxera hurreratuko dira. Eta alboan Udaleko ordezkariak izango dituzte kirol etxean: Arri txu Oliden alkatea eta Iñaki Saez de Azkunaga, Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia; baita parrokoa ere. Menu goxoa izango dute bazkariak gertatzen dituen enpresa nafar baten eskutik: era askotako frijituak, ajoarriero



ERRETIRATUEN EGUNA Herriko 300 erretiratu inguru hurreratuko dira Udalak kirol etxean emango dien bazkaria.

GOIENKARIA

kazuelatxoak, langostinoak plan txan, bildots errea entsaladarekin, tarta eta izozkia. Kafea eta likoreak ere eskainiko dizkiete gura duten guztiei. Hori gutxi ez, eta bazkalostean opariak banatuko dizkiete Udaleko ordezkariak elkartutako guztiei. Orain artean, guztiei banatutako oparitxoak gain, zozketa egiten zuten opari handiagoak banatzeko -telebista, bidaia, etxetresnak eta antzekoak-, baina aurten halakorik ez egitea erabaki dute.

Hori bai, Juan Luis Lekunberri eta kideek sortutako doinuek dantzarako giroa sortuko dute, urteroko legez.

HERRIKO NAGUSIENAK

Erretiratu kopuruak gora egin du Euskal Herrian azken urteotan, eta gurean milatik gora dira dagoneko. 589 emakume eta 474 gizon daude aurten; hortaz, 1.063 guztira. Horietatik 300 inguru joango dira kirol etxera bazkaltzera, urteroko kopurua.

Herriko nagusienak nekez hurreratuko dira bazkaria, baina Udaleko ordezkariak gogoan izango dituzte, eta oparia iritsiko zaie egunotan. Gizonen artean nagusia Salamancan jaio-tako Joaquin Barbero da. Zaharren egoitzan bizi da azken urteotan, eta abenduaren 18an 100 urte beteko ditu. Emakumeen artean, ostera, Elizgaraiko Margarita Lasagabaster da nagusia; 95 urte ditu otsailen beteta.

ZAHARREN EGOITZAN

Bestalde, Urats Gain zaharren egoitzan 24 nagusi bizi dira. Haiek ere badute gonbidapena bazkaltzera joateko, baina bakarraren bat joango da, gainerakoak ez daudelako hara eta hona ibiltzeko moduan. Edozelan ere, ospatuko dute euren omenez antolatutako eguna, eta bazkari berezia gertatuko diete egoitzako arduradunek. Udalak, berriz, pastelak bidaliko dizkie egunari jai itxura emateko.

Erretiratuen eguna

11:00etan,

Salda beroa Basotxo erretiratuen elkarteko tabernan.

12:30ean,

Meza erretiratuen omenez Andre Mariaren Zeruratze parrokian.

13:30ean,

Bazkaria kirol etxean.

Bazkalostean,

Opariak banatuko dituzte Udaleko ordezkariak eta dantzaldia Ludiberri taldearekin.

Joaquin Barbero > Aretxabaleako nagusia

"Jainkoak gura badu beteko ditut 100 urte abenduan"

M.A. > ARETXABALETAKO

Salamancako Babilafuente herrian jaioa, urte asko daromatza Aretxabaletan, eta zaharren egoitza du azken urteotan bizitoki. 100 urte beteko ditu abenduaren 18an, baina burua argi dauka oraindik eta hankek ere laguntzen diote bere joan-etorrietan.

Bihar, Erretiratuen Eguna, joango zara bazkaria?

Kirol etxera ez. Lehen joaten nintzen, baina orain hankek ez didate askorik laguntzen, eta egoitzan ospatuko dugu; hemen ere izango da zerbait.

Itxura ederra duzu, eta bastoiaren laguntzarekin ondo moldatzen zarela ikusi dut.

Bai, banabil. Noizean behin joaten naiz neure etxera.

Abenduan 100 urte beteko dituzu...

Jainkoak gura badu.

Eta osasunez zela zabilta?

Oso ondo ez. Arnasa falta zaidala sarritan igartzen dut, eta burukominak izaten ditut.

Azken urteotan zeu izan zara nagusia, eta oparitxoren bat ekarriko dizute...

Euren eskuetan dago hori, eta egiten duten guztia ondo eginda egongo da. Nagusia? Bai, baina ni hiltzen naizenean beste bat izango da.

Zenbat iloba eta biloba dituzu?

Uf! Askok. Irailean bertan ezkondu da biloba bat.



M.A.

BIDEGORRIA > DATORREN URTEAN BUKATUTA

Arrasate eta CVL arteko bidegorri tartea egin barik utzi dutela salatu du Aralarrek

Horrek "garestitu eta atzeratu" egingo ditu 206 metro dituen tarteko lanak

Herriak bidegorri eraztuna behar duela uste du, ekialdetik eta mendebaldetik

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Herriko bidegorriaren egoeraren gaineko balorazioa egin gura izan du Aralarrek. Arrasate eta Aretxabaleta arteko errepide azpiko pasabidea bukatuta dago, baina salatu du CVL lantegira bitartean dauden 206 metro egin barik utzi dituela Aldundiak.

LANAK GARESTITU ETA ATZERATU

Aralarren esanetan aisialdiari begira -arinetan egin, bizikletan ibili- bidegorri egokia behar du herriak eta egunero lanera, musika eskolara edo herri artean ibiltzeko bidea izatea lortu beharko litzateke.

Hala, 2006ko aurrekontuetan bidegorria egiteko nahikoa diru-



EGIN BARIK Bidegorria egin barik utzi duten tartea pasabide estu eta arriskutsua dela esan zuen Aralarrek.

M.A.

rik ez eta zuzenketa egitea proposatu zuen -122.240 euroko igotza-, baita onartu ere. Hori horrela, asteotan hasiko dira CVL lantegia eta Eskoriatzara bidean dagoen tunelaren arteko bi kilometroko zatia egokitzen. Hala

ere "kritika zorrotza" egin zion Aldundiari, esanaz aipatutako 206 metroak ez zituela egin barik utzi behar. Ondorioz, tartea askoz garestiagoa izango da -220 mila euro-, errekarako bidea egin beharko dute berriro eta negua

datorrenez atzeratu egingo dira lanak. Uda baino lehen gurako lukete bukatuta Arrasate eta Eskoriatza arteko lerroa, eta eskatu zuten bidegorri eraztuna behar duela herriak, ekialdetik bat eta mendebaldetik bestea.

HIRUATX > EKUATORE GINEAKO PROIEKTUA

Abuztuan bidalitako 700 txiten arrautzetatik zortzi mila oilasko ekoiztuko dituzte hilean


Broiler motako hegaztiak dira eta jaiotako txitak oilasko egindakoan merkatuan salduko dituzte, maiatz inguruan

M.A. > ARETXABALETA

Abuztuaren 21ean bidali zituzten Hiruatxeko kideek arraza bereziko 700 txita Ekuatore Gineako Mitemelete herrira. Sei aste pasatu eta gero hegazti ederrak egin dira, eta otsailetik aurrera inkubagailuetan sartuko dituzte errundako arrautzak. Asmoa da 8.000 txita ekoiztea hilean. Broiler motako hegaztiak dira, eta oilasko egindakoan merkatuan salduko dituzte. Lehenengo salmentak maiatz inguruan izango dira.

INJINERU AGRONOMOA

Hegaztiak haziz doaz, eta gainerrako lanak aurrera. Inkubagailuak eta arotz lanak bukatuta dituzte, eta pentsuarentzat erai-kina aurrera doa. Zortzi oilate-



MITEMELETE Azaroan Mundukideko kudeatzaile bat joango da.

MUNDUKIDE

gi egiten dabilta otsailerako, eta hiltegia egingo dute apirilera.

Mitemeleteko lan taldea gero eta handiagoa da, eta hemendik joandako lankideak dituzte lagun. Argindarra ekoizteko tur-

bina hidraulikoa aztertzen egon da lagun bat oraintsu, eta bost hilabeterako joan den injineru agronomoa dago. Azaroan Mundukideko kudeatzaile bat hurre-ratuko da proiektua indartzera.

> IKASTAROAK

Kultura Sailak antolatutako bainika eta eskulan ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago

Bainika ikastarorako bi talde sortuko dituzte: martitzenetan, 10:00etatik 12:00etara eta eguenetan, 17:00etatik 19:00etara.

Eskulanek ordutegi zabalagoa dute: astelehenetan, 15:30etik 17:30era eta 18:00etatik 20:00etara; eguztenetan, 09:00etatik 11:00etara, eta 18:00etatik 20:00etara erreleboan lan egiten dutenentzat; eta eguenetan, 14:30etik 16:30era merkatariarentzat. Zubi ostean hasiko dira guztiak, baina izena aurrez eman behar da Iralabarri plazako kultur etxean, 11:00etatik 13:00etara, 32,10 euro ordainduta.

> ANTZERKIA

'Amama Pantxikaren altxor ezkutua' umeentzat antzezlan gaur, 17:00etan, Herriko Plazan

Ikasturtea hasteko antzerki emanaldia antolatu du Algara ludotekak herriko ume guztientzat: *Amama Pantxikaren altxor ezkutua*. Bihar izango da ekitaldia, 17:00etan, Herriko Plazan.

Bestalde, Loramendi EEK hainbat ikastaro antolatu ditu eta izena emateko lokaletik pasatu behar da. Eskulanak urriaren 10ean hasiko dituzte, bainika 11n, eta Beinke-Loramendi dantza ikastaroa 19an. Joteko prest! Pala txapelketa hilaren 17an hasiko dute, hortaz, izena lehenbailehen eman 20 euro ordainduta bikoteko.

> GAIXOAK

Etxean jaunartu gura duten gaixoei izena eman behar dute parrokiari edo osasun pastoraltzan

Osasun pastoraltzako kideek jakinarazi gura dute meza entzute-ra joateko ezintasunak dituzten gaixoei jauna eramaten dietela etxera. Hileko lehen egubakoitzetan izaten da hori. Jasotzen ez duen gaixoren batek etxean hartzea gurako balu izena eman dezala parrokiako bulegora deituta edo osasun pastoraltzako kideren batekin berba eginda.

GAZTEAK

Asteburuan zabalduko dute gaztelekua

Arrasateko

Txatxilipurdik izango du gaztelekuaren ardura aurten

M.A. > ARETXABALETA

Atxagazte gaztelekuko ateak gaur arratsaldean zabalduko dituzte. Arduradun berria dauka gainera, Arrasateko Txatxilipurdi elkarteak. 12 eta 16 urteko gazteek txandaka jardungo duten hiru hezitzaile izango dituzte lagun.

MAHAI-FUTBOL TXAPELKETA

Ekitaldi apala antolatu dute ikasturtea hasteko, baina gazteak beldur barik hurreratzeko gurako lukete.

Egubakoitzean 17:00etatik 20:30era egongo da zabalik, eta merienda eginaz hasiko dute; ondoren mahai-futbol txapelketa jokatu dute. Zapatuan 17:00etatik 21:00etara hurreratu ahal izango dira gazteak, eta domekan 16:30etik 20:30era. Bi egun horietarako malabarismo ikastaroa antolatu dute.



AURKEZPENA Ekitaldian, M. Melgar, K. Agirregabiria, A. Oliden alkatea, L. Iñurrategi eta M.D. Akizu.

M.A.

EUSKARA > BARRIKETAN EGITASMOA

Euskaraz berba egiteko guneak topatu dituzte hamazazpi lagunek

Zazpi talde sortu dituzte, emaile bat bizpahiru hartzailerekin, eta konpromiso bakarra dute: asteen ordubetez elkartzea euskaraz jarduteko

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Ekainean eman zuen Udalak Barriketan egitasmoa abian jartzeko asmoaren berri, eta urriaren sartzearrekin batera 24 lagun hasi dira lanean.

EUSKALDUN ZAHAR ETA BERRIAK

Asteen bertan hasi dira euskaraz jardun gura duten taldeak elkar-tzen, eta Udalak egitasmoaren berri eman du. Euskara Biziberritzeko Planaren barruan kokatu dute Barriketan egitasmoa,

eta Udal euskaltegiaren eta Loramendi EERen laguntza jaso du. HABEK, bestalde koordinatzen lagunduko die. Euskaraz berba egiteko guneak sortzea du helburu: "Euskaltegiko ikasleei edo euskaraz jakin baina egiteko ohi-turarik ez dutenei euskaraz jarduteko guneak eskaini gura dizkiegu", argitu zuen Karmele Agirregabiriak, euskaltegiko zuzendariak.

Zazpi euskaldun zahar edo emailek -erretiratu, gazte zein

etxekoandrek - eta euskaraz egin gura duen edo hartzaile diren 17 lagunek eman dute izena. Hala, zazpi talde sortu dituzte, eta hemendik eta Gabonak bitartean jardungo dute lanean. Konpromiso bakarra hartu dute: gutxienez asteen ordubetez euskaraz egitea. Mariasun Melgar euskaldun berriak zera azaldu zuen: "Urte askoan ibili naiz euskaraz ikasten, eta lehen alabarekin egiten nuen. Orain 12 urte ditu eta ez naiz gauza. Gainera, kalean guztiek espainolez egiten didate. Horregatik aukera paregabea da niretzat".

Izena eman ahala taldeak sortuko dituzte, hortaz, interesatuek Udalera, Loramendira edo Udal euskaltegira jo dezatela.

EUSKARA > LORAMENDI EE

Tril emakume taldea indartzea, helburu

Galdeketa bidali die bazkide guztiei zelako ekintzak egin gura lituzketen jakiteko, eta Tril indartzea dute helburu

rekin aurrera egingo dute: emakumeen gaineke gaiak ardatz dituzten berbaldi eta ikastarorak antolatu, baina beste era bateko ekintzak ere egin gura dituzte. Ateak zabalik ditu taldeak, eta pozik hartuko dituzte aurpegi berriak.

PALA TXAPELKETA

Bestalde, Beinke elkarteak sortu zutela 20 urte beteko dira abenduaren 15ean, eta Loramendi urteurrena gertatzen dabil. Herritarrek giroten hasteko Joteko prest! I. pala txapelketa antolatu du. Urriaren 17an hasiko dute, eta martitzen eta egu-netan jokatuko dituzte partidak, Iturrigorri frontoian. Finala, ostera, abenduaren 15ean izango da. Lehenengo bikoteek dagoeneko eman dute izena; horretarako, Loramenditik pasatu behar da. 20 euro ordaindu beharko ditu bikoteak, eta azken eguna urriaren 11 izango da.

M.A. > ARETXABALETA

Loramendi Euskara Elkarte barruan dago Tril emakume taldea. Hainbat ikastaro, berbaldi eta ekitaldi antolatu izan ditu, eta orain, taldea bera indartu gura dute.

GALDEKETA BAZKIDEEI

Galdeketa bidali zien joan zen asteen bazkideei Loramendik. Aretxabaleako emakumeek zein interes duten jakin gura zuen; hala, Trilek antola ditza-keen ekitaldien zerrenda osatzeko. Orain arte egindako lana-



M.A.

Zabaldute KZgunea

Itxita egon da irailean KZgunea, abuztuan lapurretan egin zitelako, eta bitartean txukuntze lanak egin dituztelako. Baina dagoeneko zabaldute atea -hil honetan arratsalde 16:00etatik 20:00etara- eta hainbat ikastaro gertatu dituzte: sinadura elektronikoa, irudi digitalen tratamendua, liburuak aurkitzekoa, etxetik zela erosi eta beste batzuk.



**Jauregi
Okindegia**

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

Iber

Loteria
Paper denda
Liburuak

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

**Mobiliario
ARENAZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

ETXEBIZITZA > UDALAK ZOZKATU EGINGO DU

Elbarriendako egokitutako etxebizitza bat errentan emango dute

Jaurlaritzak Intxartxuetan egin zituen etxebizitzetatik bat, elbarriendako egokituta dagoena, ez zuen inork hartu, eta Udalak zozkatu egingo du

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Jaurlaritzak eta Udalak hitzarmena egin zuten. Horren arabera, Jaurlaritzak Udalarari hiru etxebizitza eman behar zizkion. Bestalde, Jaurlaritzak Intxartxuetan alokairuzko hainbat etxebizitza egin eta zozkatu egin zituen. Horietako bat elbarrieko egokituta zegoen, baina azkenean ez zuen inork hartu.

Udala Jaurlaritzarekin harremanetan jarri zen, eta aipatu

zion etxebizitza hori eskuratze-ko interesa zuela. Hortaz, Jaurlaritzak bi etxebizitza arrunt eta elbarriendako egokitutako hori emango dizkio.

UDALAK ZOZKETA EGINGO DU

Etxebizitza hori Intxartxuetan kaleko 26. zenbakian dago, lehenengo solairuan, eta 69,95 metro koadroko azalera dauka.

Udalak gurago du alokairuzko etxebizitza hori berak zozke-

tan jarri, jakin badakielako herrian horren premia duten hainbat elbarri daudela.

GIZARTE ZERBITZUEK INFORMATU

Etxebizitza eskuratu ahal izateko, derrigorrezkoa izango da urtean 15.100 euro baino gutxiago irabaztea. Interesa dutenek Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo beharko dute informazio gehiago jasotzera. Gipuzkoako Buleti-
nean argitaratu berri dute.

ONDAREA > AINGERU GUARDA ERMITA

Aingeru Guarda ermitako lanak ordaindu dituzte

Herritarren eta erakundeen laguntzarekin ordaindu dituzte lanak

I.B. > ESKORIATZA

Aingeru Guarda ermita konpontzeko ardura hartu zuen herriko erretiratuen batzordeak jakinarazi digu jasotako laguntzekin izandako kostu gehienak ordaindu ahal izan dituztela. Horrez gain, batzordeak eskerrak eman gura dizkie diruz edo lanez lagundu duten guztiei.

PARRA GELDITU DIRA

Jakinarazi digutenez, honako gastuak izan dituzte lanak egiterakoan: Ramel eraikuntzak,

22.763 euro; pintura, 261 euro; irudia garbitu, 300 euro; fotokopiak, 90 euro; eta beste gastuak, 220 euro. Guztira, 23.634 euro.

Diru sarrerei dagokionez, honako laguntzak jaso dituzte: Aldundia, 10.000 euro; Udala, 5.269 euro; Euskadiko Kutxa, 1.000 euro; ermitako kontu-korrantea, 2.326 euro; herritarren dohaintzak, 3.660 euro; eta parroquia, 1.379 euro. Guztira, 23.634 euro.

UDALARI GOGOETA

Bide batez, batzordeko lagunek Udalarari gogorarazi gura diote udal erakundeak hartu zituen erabakiak oraindik ez dituela bete. Hain zuzen ere, ermitaren inguruak atondu eta eserlekuak eta iturriak jartzeko erabakia hartu zuen udal erakundeak, baina ez du egin.



KOMUNIKAZIOA ERRAZTU Hizkuntza kontzeptuak bereganatu eta seme-alaben ikas prozesuan parte hartu gura dute. GOIENKARIA

HEZKUNTZA > GURASOEK EUSKARA IKASTEN

Bidelagunen bidez, gurasoek euskara ikasteko aukera

Udaleko Euskara Zerbitzuak, herriko ikastetxeek eta euskaltegiek antolatu dute, bigarren aldiz

I.B. > ESKORIATZA

Euskara ikasten seme-alaben bidelagun da leloa. Iaz lehenengo aldiz egin zuten Udaleko Euskara Zerbitzuak, ikastetxeek eta euskaltegiak.

Ekimenaren helburua da gurasoek euskara ikasteko aukera izatea. Horretarako, ikastaro bereziak antolatu dituzte. Ikastaro horien hartzaileak Eskoriatzako ikastetxe guztietako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 4. maila arteko gurasoak izango dira. Bi talderi egokituta-ko ikastaroak antolatu dituzte:

bata, euskararik ez dakitenendako. Urritik Aste Santura bitartean egingo dute ikastaroa. Ordu eta erdiko saioak izango dira, astean bitan.

ESKATUTAKO IRAUPENA, LUZEAGOA

Iaz 20 orduko ikastaroa egin zuten, baina gurasoek ordu gehiago eskatu zituzten. Horregatik, aurten luzeagoa egingo dute. Umeen jolasak, abestiak eta ipuinak, agurrak, zenbakiak, urtarokoak, astegunak, telebistako umeen saioen oinarritzako hiztegia eta pertsonaiak ikasiko dituzte.

IZENA EMAN, ESKOLETAN

Euskara dakitenek, berriz, azarotik abendura bitartean egingo dute. Horien ikastaroa oinarrituko da ohiko akatsak zuzentzen, ahozko jarduna hobetzen eta eskolako hiztegia gainbegiratzeko. Bi ikastaro horietan seme-alabek eskolan erabiltzen duten materiala baliatuko dute.

Ikastaro laburra egiteko, 18 euro ordaindu beharko dituzte; eta luzea egiteko, berriz, 60 euro. Interesatuta dauden gurasoek seme-alaben tutoreari eraman beharko diote eskaera urriaren 18a baino lehen.



DE LA TORRE
igeltserotza

*Erreformatik orokorrean
Gremioen koordinazioa*

Intxartxuetan 7 2-D
20540 Eskoriatza
Tel.: 943 71 52 64 / 639 76 29 27



AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

Villar
Ile apaindegia

Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

AI SIALDIA > KULTURA ESKAINTZA

Urrian lau ekitaldi egingo dituzte Inkernu tabernan

Argazki erakusketa, ipuin kontaketa, filma eta bakarleri baten kontzertua, urrian

I.B. > ESKORIATZA

Azkenaldian Aitzorrotz kultura elkarteak eta Inkernu tabernan kultura ekitaldi ugari antolatzen dihardute elkarlanean. Hain zuzen ere, bi taldetako ordezkariak jakinarazi digute datozen hilabeteotan hilabete bakoitzeko lau bat ekintza egingo dituzela.

Urrian dagoeneko sartu dira dinamika horretan eta aste-oro ekitaldiren bat egingo dute.

GAUR, JOSE MARI CARRERE

Gaur, egubakoitza, Jose Mari Carrerek ipuinak kontatuko ditu 23:00etan. Lehenengo aldia da Inkernura ipuin kontalari bat eramaten dutena, baina ziur Carrerek oso harrera ona izango duela. Antolatzaileak zalan-

tzan daude ipuinak kontatzera-koan zer aukeratuko duen: *Kon- doi baten istorioa* edo *Zelan bizi ezer egin barik*, hain zuzen ere.

Hilaren 16an Elbruce mendiaren gaineko argazki erakusketa jarriko dute Inkernun. Eskoriatzako Karmelo Oñatek egin ditu argazkiak, eta hilaren bukaera arte egongo dira tabernan ikusgai.

Hilaren 20an, egubakoitza, Bergarako Aitor Pedrejon musikariak Garateren laguntzarekin kontzertua egingo du Inkernun, 23:00etan. Pop eta rock doinuak entzuteko aukera izango da emanaldian.

'DIARIO DE UN SKIN' FILMA

Hilaren 25ean, eguaztena, berriz, film bat emango dute tabernan, 22:00etan. Urrirako *Diario de un skin* lana aukeratu dute. Ziurrenik filma ikusi ostean, tertulia egingo dute han batutakoek.

Dagoeneko hasi dira azarorako ekitaldiak prestatzen. Las- ter emango dute horren berri.

ERREPIDEAK > UDALAREN IRADOKIZUNAK ALDUNDIARI

Bolibartik saihesbidera irteera egiteko eskaera

Udalak Aldundiari eskatu dio 2005eko Lurralde Zatikako Planean onartutakoari eusteko

Arlabango bidea egokitzea eskatu dute eta baita Bolibartik saihesbidera irteera egitea ere

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Udalak hainbat iradokizun bidali dizkio Aldundiari Gipuzkoako Errepideen Lurralde Planaren Aurrerapenean kontuan har ditzan. Iradokizun horiek Udaleko osoko bilkuraren onespina jaso zuten joan den asteko udalbatzarrean.

Lehenik eta behin, Udalak eskatu dio Aldundiari Gipuzkoako Errepideen Lurralde Planaren Aurrerapena onartzerako orduan Arrasate eta Bergarako Lurraldeko Zatikako Planean hartutako erabakiak bere horretan uzteko; hain zuzen ere, Eskoriatzaren tramuari zegozkion

erabakiak ez aldatzeko. Hori izan zen lehenengo eskaera.

ARLABANGO BIDEA

Lurralde Zatikako Plan hori 2005eko apirilean onartu zuten, eta orduan Aldundiak, besteak beste, Eskoriatzan hainbat lan egitea adostu zituen, Udalak orain gogorarazi dizkionak. Hala, Udalak gura du Eskoriatza eta Arlaban arteko GI-627 errepidean, hau da, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga arteko errepide zatian hobetze lanak egitea. Udalaren esanetan, egunero errepide horretatik 6.500 ibilgailuetatik gora igarotzen dira, eta errepide-

ak ez dauka halako ibilgailu kopuru handia jasateko gaitasunik.

BOLIBARTIK SAIHESBIDERA

Bestalde, Udalak garrantzi handia ematen dio udalerriko errepideetan egin beharreko beste hobekuntza lan bati, Bolibarri dagokionari hain zuzen ere.

Bolibarko GI-3344 errepidea Eskoriatzako hirigunera irteten da. Hortaz, auzotik datorren zirkulazio guztiak herri barrutik igaro behar izaten du. Udalak argudiatu du Bolibarren baso-ustiapen handia dagoela, eta horren ondorioz kamioi asko ibiltzen direla gora eta behera. Horrez gain, jakitera eman dute elizate horren bidean 50 bat txalet egiten dabiltzala, eta horrek ere kamioi askoren zirkulazioa eragiten duela.

Horregatik guztiagatik Aldundiari eskatu diote Bolibartik saihesbidera irteteko errepide- a egin dezala.

Osasun Pastoraltzarekin egonaldia egin zuten Bizkaian

Eskoriatzako Osasun Pastoraltzak hainbat ekitaldi antolatzen ditu urtean zehar. Joan den asteburuan, adibidez, gaixotasun psikikoak dituzten hainbat lagun eramán zituzten Bizkaia aldera. Ontzi bat alokatu zuten eta boluntarioak, gaixoak eta senitatekoak batuta, 30 bat lagunek Bilbo, Getxo, Santurtzi eta Portugalete bisitatu zituzten.

Domekan, hilaren 8an, beste irteera bat egingo dute. Hainbat lagun Arantzazura joango dira egun-pasa egitera.



PILAR BEITIA

> EHIZA

Ehizarako postuak zozkatzen dihardute Aldaie elkarteak

Urtero moduan, ehiztariek osatzen duten Aldaie elkar- tea ehizarako postuak zozkatzen dihardu.

Guztira 118 postu jarriko dituzte eskuragarri Maringo inguruan. Hala izendatzen duten arren, Eskoriatzako udalerrira osoa hartzen dute horren barruan. Hain zuzen ere, Marinez gain, Lete eta Apotzaga ere. Zozketak atzo, eguena, hasi zituzten, baina azaroaren 20ra arte egingo dituzte zozketak.

Interesa dutenek Aldaie elkar- teak Intxaurtxueta kaleko 9. zenbakian daukan egoitzara jo beharko dute 18:45etik 19:45era bitartean. Informazio gehiago jasotzeko, deitu honako telefono zenbakira: 943 71 30 48.



MIRENTXU

TABERNA

Tel.: 943 71 41 67

HIRIGINTZA > SAGASTIKO LANAK ABIAN

Sagastiko zelaian hasi dira gizarte eta kultura etxea eraikitzeko lanak

Parkearen Aldeko Plataformakoek diote ez dutela inolako zerikusirik azkenaldian parkearen gainean agertu diren pintadekin

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Joan den astean hasi ziren Sagastiko berdegunean makinak lanean. Gaineko lurra altxatu ostean, ekingo diete hondeaketa lanei. Ondoren, eraikin nagusiaren zimenduak ipiniko dituzte. Lanak Egaralur enpresak egingo ditu. Guztira, 1.635.929 euroko aurrekontua dute eta amaitzeko epea urtebetekoa da.

MOZIOA GAI ZERRENDATIK KANPO

Sagastin Parkearen Aldeko Plataformak eskatu zuen osoko bilkuran parkearen gaia eztabaidea



ZELAIA Belarra altxatuta dago eta aurki hasiko dira zimenduak ipintzen.

I.A.

tzeko, herri galdeketa egiteko eta galdeketa egin aurretik ez hasiteko lanak. Gaur goizean ziren egitekoak osoko bilkura baina ez dute gai zerrendan sartu, "aurrez gai horren gaineko bozketa egin da eta galdera eta eskaeren ata-

lean ez bada ez dugu horretaz hitz egingo", esan digu alkate ordeak.

Bestalde, azken egunotan herrian azaldu diren pintaden inguruan, Sagastin Parkearen Aldeko Plataformak jakinarazi du ez duela inolako zerikusirik.

GAZTEAK > HAINBAT ALDAKETA GAZTETXEAN

Patata tortilla lehiaketa eta afari parte-hartzailea antolatu ditu gazte asanbladak

Barran talde berriak jardungo du lanean eta astegunetan ez da ordutegi zehatzik izango gaztetxean

I.A. > HERRIA

Gazte asanbladak batzar orokorra egin zuen joan den egubakoitzean. Taldearen eta gaztetxearen egoera aztertzea, gaztetxeko

barrarako taldea aldatzea eta hainbat ekintza antolatzea zen bileraren helburua.

Egoeraz apenas jardun zuten baina aldaketak egiteko aprobe txatu zuten batzarra. "Orain arte barrako ardura zuten hainbat gazte kanpora joan dira ikastera, beraz, euren orde besta batzuek jardungo dute, lehengo batzuekin batera", esan digu gazte asanbladako kide batek.

Ordutegian ere bada aldaketarik. Astegunetarako ez da ordute-

gi finkorik izango. Asteburuan 17:00etan zabalduko dute. Egubakoitz eta zapatuetan jendea egon bitartean ez da itxiko eta domeketan, berriz, 21:00etan itxiko dute.

EKINTZAK URRIAN ETA AZAROAN

Datozen hilabeteetarako bi ekintza ere antolatu dituzte. Urriaren 20an patata tortilla lehiaketa izango da. Abenduaren 1ean, berriz, herri afaria egongo da. Joan nahi dutenek ekintzaren bat egin behar dute: antzerkia, abestu, e.a.

MOTORRA > ANTZUOLAKO MOTOR TALDEA

Lehen irteera egin zuten motorzaleek joan den domekan

Zaletasuna dutenak elkartzea eta motorzaleek urtero ibilaldi bat antolatzea dute helburu

I.A. > ANTZUOLA

Antzuolan motorra daukan jendea elkartu eta zaletasun horren aitzakiarekin Antzuolako Motor Taldea sortu dute.

Joan den astean egin zuten estreinako irteera eta taldekoen asmoa da urtero egun pasa bat antolatzea denek batera.

Motorzaleek Antzuolan abiatu zuten ibilbidea eta kosta aldean ibili ondoren, Aiatik Tolosa aldera joan ziren eta Irurako Cheyene tabernan egin zuten geldialdia. Harley Davidson motorrak ikusteko aprobe txatu zuten. Ondoren, Azpeitia eta Azkoitian barrena Elosura iritsi ziren eta bertan Ixaun sagardotegian bazkaldu zuten.

Antolatzaileen esanetan, "lehenengo urtea izateko oso ondo irten zen eta sekulako giroa izan genuen". 25 lagunek hartu zuten parte; 20 urtetik 64 urtera arteko motorzaleak, baita batzuek *paketeekin* ere.

ASKOTARIKO MOTORRAK

125 cc³-tik gorako motorren jabeak daude taldean eta irteeran izan ziren gehienak antzuolarrak ziren. Hala ere, Legazpi, Urretxu eta Bilboko zale batzuek ere izan ziren. Askotariko motorrak ikusi ahal izan ziren: dotoreak, *trail* erakoak, zilindrada handikoak, errepiderako ego kiak... Markak ere asko: BMW, Suzuki, Honda, eta beste.



BAZKARIA Ibilbidearen ostean, Elosun bazkaldu zuten.

ANDONI LARRAÑAGA

> MUSIKA

Klakson taldekoek urriaren 20an hartuko dute parte Espaloian Danbaka musika lehiaketan

Epaimahaiak dagoeneko hautatu ditu Danbaka musika lehiaketaren bigarren edizioeko parte hartzaileak; tartean da Klakson taldea ere. Antzuola eta Zumarragako bost mutilek osatzen dute taldea eta rock musika egiten dute. Antzuolako taldekideak dira Mikel Urtzelai eta Jon Gurutz Biteri. Klaksonekoek urriaren 20an joko dute Elgetako Espaloia Kafe Antzokian, 22:30ean hasita.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

GAILUR
taberna eta
gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaza
Zoruen kutxilatua
eta
bernitzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

Tomas Gezalaza
Apainketarako eta
industriarako pinturak
Paper margotua
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

HIRIGINTZA > TORREALDEA INGURUKO LANAK

Torrealdeara sartzeko beste errail bat egingo dute bidean

Herriko sarreran egingo dute hirugarren erraila, autoen sarrera erraztuko duena

Zorua asfaltatuko dute Torrealdean sarrera-irteera eta garbitasun arazoak saihesteko

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Herrirako sarreran, Espaloiaren azpiko aldean, obretan ari dira joan den astetik. Lanek bidea zabaltzea dute helburu. Izan ere, Eusko jaurlaritzak eskatu du Torrealdea auzora sarrera errazteko, autoak geratzeko, errail berri bat ipintzea. Lurrean *stop* seinalea ipiniko dute eta Bergararik Torrealdeara doazen autoak bertan geratu beharko dira. Bidea zabaltzeko lanek iraun artean zirkulazioa erregulatzeko semaforoak ipini dituzte.

URBANIZAZIO LANAK BIDE ONETIK

Bestalde, Torrealdean obrak bide onetik doaz. Babes ofizialeko etxebizitza bloke baten zimenduak ipini dituzte; bestean, etxearen egitura altxatuz doaz eta hainbat solairu eginak daude.



ERREPIDEA Torrealdeara errepide nagusitik datozen autoak bide erdian geratu beharko dira.

I.A.

Torrealdeako obrek, ordea, auzoko bizilagunen kexa eragin dute. Izan ere, hauts asko harrotzen da batetik, eta bestetik, sarbideak ez daude batera egoera onean. Udaletxetik jakinarazi

digutenez, "gure asmoa da zorua lehenbailehen asfaltatzea, hilabete honetan barrena edo datorren hilaren hasieran. Behin asfaltatuta asko aldatuko litzateke egoera, onerako beti ere. Inguruan

dabiltzanek sarrera-irteerak modu errazagoan egin ahal izango dituzte, eta garbiketan ere sumatuko da ezberdintasunik", esan digu Edorta Silva Elgeta 21eko teknikariak.

KIROLA > ELGETAKO FUTBOL TALDEA

Kiniela egiteko modu berria

Elgetako taldearen, Realaren eta Athleticen emaitzak asmatu behar dira saria eskuratzeko

Hiru partidu jokatu sailekaren tokian dago Elgetako taldea

I.A. > ELGETA

Elgetako futbol taldeak asteburuan abiatu zuen kiniela egiteko modu berria. Hemendik aurrera hiru partidutako emaitzak asmatu beharko dira: Elgetako taldearena, Realarena eta Athleticena.

Saria batzen den diruaren %70a izango da. Astebururen batean asmatzailerik ez balego, dirua pilatzen joango dira hurrengorako. Orain arte moduan herriko tabernetara joan eta bi euro

ordaindu beharko dira kiniela egiteko. Joan zen asteburuko kiniela ez du inork asmatu. Beraz, batutako 98 euroak aste honetakoekin elkartuko dituzte.

BAJAK HURRENGO PARTIDURAKO

Azken partidua 0 eta 0 berdindu zuten elgetarrek Eibartarrak taldearen aurka. Aste honetan Aretxabaletako aurka jokatu dute norgehiagoka, domekan 18:30ean, Ibarra zelaian.



ARETXABALETA Ibarra zelaian jokatu dute domekan 18:30ean.

GOIENKARIA

Partidu horretarako hainbat baja izango dira, taldekide batzuek min hartuta daudelako. Haritz Gallastegik orkatila bihurtu zuen eta hiru bat partidutan ezingo du jokatu; Alex Abajok ere min hartuta jarraitzen du. Bestalde, espero dute Mikel Ormaetxea Aretxabaletako par-

tiduan jokatzeko moduan egoeta. Iker Zabaletak ere ezingo du jokatu azken partiduan bi txartel hori jaso eta kanporatu egin zutelako.

Elgetarrak, hiru partidu jokatu, sailekaren tokian dagoen postuan daude orain, aurreko hirurekin berdinduta

PILOTA

Nagusien lau t'erdiko txapelketa hastear

Aurreko edizioetan txapeldun izan den Arantzabal-Telleria bikoteak jokatu du

I.A. > ELGETA

Sei bikotek eman dute izena pilota goxoarekin jokatu den helduen lau t'erdiko txapelketarako. Antolatzaileek esan digutenez, "beste bi bikote lortuz gero, txapelketa hasteko moduan izango gara eta epea oraindik zabalik dago".

Iaz pilotalekua obretan zelako ez zuten antolatu, baina aurtengoa hirugarren aldia da. Aurreko bietan Alex Arantzabal eta Alberto Telleria izan dira irabazle eta aurtengoa ere jardungo dute.

FINALA GABON ZAHARRETAN

Partiduen egutegia oraindik zehazteke dago, eta jokalarien eta antolatzaileen artean adostu beharko dute. Hala ere, antolatzaileen asmoa da finala Gabon zahar egunean jokatzeko. Egun horretan umeen pilota txapelketa ere egingo dute.

> OSASUNA

Odol ateratzea egingo dute datorren astelehenean

Odol Emaileen Elkarteak jakinarazi nahi die herritarrei astelehenean hitzordua dutela odol emaleek. Odol ateratzeak udaletxean, beheko solairuan, egingo dituzte 18:00etatik 20:00etara bitartean. Elgetan urtean bi ateraldi baino ez direnez izaten, ahalik eta jende gehien gerturatzeko eskatu dute, izan ere, odolaren beharra beti izaten da.

> MUSIKA

Danbaka lehiaketan jardungo du Gorka Arizmendiarririk

Aurreko Danbaka lehiaketan Matxura taldearekin aurkeztu ostean, Matx izenez bakar-lari moduan jardungo du aurtengo lehiaketan Gorka Arizmendiarririk. Pop estiloko "doinu lasaiak" eta "entzuteko abesti errazak" aurkeztuko ditu. Lehiaketa urriaren 20an hasiko da, eta Matxen emanaldia abenduaren 3an izango da.

ETXEBIZITZAK > BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK

Herritar asko kezkatuta dago babes ofizialeko etxebizitzaren atzerapenarekin

Enpresa eraikitzaileak ez ditu obrak hasiko urbanizazioa egokia dela ikusi arte

Jaurlaritzaren eskuetan dago guztia; handik oraindik ez digute ezer erantzun

UBANE MADERA > ARAMAIO

Olabarri enpresa bilbotarrak Udalarri jakinarazi dio ez dela babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzen hasiko oraindik. Arrazoia da orain arte egindako urbanizazio lanen egoera ez dela egokia. Hala uste du enpresa eraikitzaileak. Besteak beste, uste du obrak egiten hasiz gero, orubean eraikita dagoen paretak jausteko arriskua daukela. Udalak esan digunez, gainera, neurri batean, behintzat, Jaurlaritzak arrazoia eman dio Olabarri enpresari. Hori horrela, Olabarrikoek txostena eskatu diote Jaurlaritzari, urbanizazio horren egoeraren gainekoa.

Beraz, orain guztia Jaurlaritzaren eskuetan utzi dute. GOIENKARIAK ere haraxe jo du informazio bila, baina oraindik ez du erantzunik jaso.



PARETA Enpresa eraikitzaileak uste du Pedro Inazio Barrutia kalean eraikitako paretak jausi egin daitezkeela obrak hasiz gero. U.M.

Udalak esan digunez, berriz, euren dagokienez, ez dute inolako arazorik obrak has daitezken. Jakinarazi digute joan den apirilean aurkeztu zutela obraren exe-

kuzio proiektua, eta obrak hasita beharko luketela. Are gehiago, esan digute etxeen proiektuak udaletxean dutela eta herritar dezente joan dela hura ikustera.

Kalean ere kezka sumatzen da askoren artean; iaz azaroan zozkatu zituzten etxeak eta tokatu zitzaizkien ez daude batera pozik proiektuaren atzerapenarekin.

BASERRIA > SAGAR SASOIA

Sagarraren zukua zela egiten den ikasten dabilta Aramaioko 24 lagun

Sagarrondoan gainera esplotazio eta esperientzia desberdinak ikastea da ekimen horren helburua

U.M. > ARAMAIO

Aramaioko sagarzarle eta sagarzarle osatutako 24 laguneko taldea Ezkio-Itsasoko Igartu-Beiti baserri-museoan izan zen joan den domekan. Helburua: sagarraren zukua zela egiten den ikastea.

Ekimen horretan parte hartu duen Kepa Lizarralde zera esan digu: "Sagarrarekin egiten den produkturik ezagunena sagardoa da eta hori da Aramaioko askok ere egiten duguna. Dena dela, aurrera begira konpetidore gogor bat irten da,



SAGARRAK 72 sagar klaseren erakusketa ikusten ere ibili ziren domekan. K.L.

sagarraren zukua probatu duenak berau egiteko asmoa erakutsi du-eta".

Hori horrela, eta Aramaioko Udalarren laguntzarekin, Ezkio-Itsasora jo dute. Kontua da hango 20 baserriar inguruk sagar-

doa eta sagarraren zukua egiteko makineria erosi dutela elkarrekin. Eta esperientzia horren nondik norakoak jakin nahi dituzte aramaiotarrek. Aztertzen dabilta etorkizunean antzerako zerbait egitea euren artean.

bere ustez



Julen Arriolabengoa

Beharrak gogoia sorrarazi dio askori

Urriak titulua behar du ospitaleko lanpostuan jarraitzeko.

Sandia matematika irakaslea da eta duela hiru urte ekin zion euskara ikasteari, ikusi zuenean lanpostua galdu egingo zuela.

Berendiak udaltzain izan nahi du eta hau du azken aukera (laugarrena) titulua lortzeko. Amorratuta ikusten ditut hirurak, euskararekin erretxinduta.

Baina, Jose Luis, RENFE-ko makinista, badaezpada hasi zen ikasten eta orain,

"Almudenak erizain lanposturako behar zuen titulua lortu du, eta 'engantxatuta' gelditu omen da"

ezertarako behar ez duen titulua lortu eta gero, "burdinbideko bertsolaria" esaten diote.

Almudenak erizain lanposturako behar zuen titulua lortu du, eta *engantxatuta* gelditu omen da euskararekin.

Fernandok, espainiar literaturako irakaslea, titulua behar zuen, eta euskara ikasita konturatu zen zein ederra den euskal idazleak "jatorrizko bertsoian" irakurtzea.

Sektore publikoko langileria euskara ikastera behar-tzea ona da; beharrak gogoia sorrarazi dio askori eta hori irabazi du euskarak.

Besteak beharraren sokaz estutzen jarraitu beharko dugu: bota diezaiegun lehen hitza euskaraz.

> UDALA

Atzera ere epaituko dute Udala, Udalbideri laguntzarren

Aurtengo jardunaldian Udalbideri dirulaguntza ematearren epaitu egin behar dute Aramaioko Udala. Hain zuzen ere, 2.400 euro eman dizkio, horixe da-eta Udalean zehaztuta duten kopurua. Datorren urtarrilean pasa beharko dute epailearen aurretik, Gasteizko epaitegian.

> LEHIAKETAK

Bi argazki lehiaketa abian, Udalak eta Koadrilak antolatuta

Udalak argazki lehiaketa abiarazi du, Aramaioren gaineko argazkiekin. Urriaren 20a baino lehen eraman behar dira lanak udaletxera.

Bestalde, Zuiako Koadrilak beste argazki lehiaketa bat abiarazi du. Kasu horretan Zuiako Koadrilaren gaineko argazkiak behar dira. Urriaren 27a baino lehen bidali behar dira lanak, Murgiara.

((112))
SOS DEIAK

AI SIALDIA > LUDOTEKA ANTOLATZEN

Txiki entzat zabalduko dute ludoteka eta nagusientzat beste ekintza batzuk pentsatu dituzte

Gaztetxoak gero eta gutxiago joaten direla ikusita, ikasturte honetan beste era bateko ekintzak egitea pentsatu dute Gurel elkarteeko gurasoek



UMEAK Ludotekan jolasteko ordubete izango dute egunero txiki enek. GOIENKARIA

MIRARI ALTUBE > GATZAGA

Batzarra egin zuen joan zen egu-bakoitzean Gurel elkarteeko zuzendaritza batzordeak. Ludoteka izan zuten berba gai elkar-tutako kideek, hastear dagoen ikasturtea antolatzeko daukate eta oraindik.

GAZTEENTZAT PROPOSAMENA

Herrian eskaintzen duten ludoteka zerbitzuarekin zer egin erabakitzea zuen helburu batzarrak. Orain arte bi txanda egin izan dituzte Garro jauregian dagoen ludotekan: txikiak batetik eta gaztetxoak bestetik. Baina konturatu dira azken horiek gero eta gutxiago joaten direla eta ez duela merezi bere horretan jarraitzek. Hala, txiki entzat egunero ordubete zabaltea zela egokiena pentsatu zuten, eta hori antolatzeko gurasoekin bilera egitea komeniko litzatekeela.

Gaztetxoekin, oster, beste era bateko ekintzak egitea proposatu zuten: KZgunean lan egin, gustuko dituzten ikastaroak antolatu eta antzekoak.

BEGIRALE BILA

Lehenbailehen zabaldu gurako lukete umeen jolas txokoa Gure-

leko kideek, baina oraindik ez dakite zein izango den begiralea. Arrasateko Txatxilipurdirekin egin zuten iaz berba, baina hark eskainitakoa oso garestia zen Gatzagako elkarte txiki entzat eta ezetza eman zioten. Begiralea izendatu bezain laster zabalduko ditu ateak ludotekak.

LANAK > GASA SARTZEKO LANAK

Asteon ziren hastekoak etxeetara gasa sartzeko lanak

Hil honetan bukatuko dituela lan guztiak ziurtatu dio Udalarari Repsol enpresak

ziren honezkero, baina atzeratzen eta atzeratzen joan dira inolako azalpenik eman gabe", azaldu digu. Antza denez erregai-tangak ekartzeko arazoak izan zituzten lehenengo, eta jartzea ere kosta egin zitzaizen gero. Uztailan ekarri eta irailean jarri zituzten ur-andelaren parean dauden bi tangak.

M.A. > GATZAGA

Repsol enpresako arduradunek alkateari esandakoaren arabera asteon ziren hastekoak etxeetara gasa sartzeko lanak. "Pieza guztiak zitu zela ziurtatu zidaten, eta kontagailuak jartzen hasiko zirela", dio alkateak: "Asteon lehenengo egunetan ez dut ikusi hasi direnik, hortaz, astea bukatzean herrian langilerik ikusi ezean deitu egingo diet".

Sarri deitu behar izan dio Joxerra Perez alkateak Repsol-i azken hilabeteotan. "Lanak guztiz bukatuta egon behar

URRIAN BERTAN GASA

Lehenengo faseko lanak dira bukatzen dabilzanak, eta herriko hiru kaletako etxebizitzetara iritsiko da gasa hil honetan bertan agindutakoa betetzen badu Repsolek. Bigarren eta hirugarren faseetako lanen proiektuak dagoeneko onartuta ditu Udalak, baina Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzak emateko zain dago. Hala gertatuz gero, datorren urtean hasiko litzuzke lanak.

> LANAK

Ez da inor aurkeztu Etxebarri baserrirako bidea egiteko Udalak abuztuan egindako deialdira

Uztailaren 20an onartu zituen Udalak Etxebarri baserrirako bidea eraberritzeko proiektua eta baldintza plegua. Hilabete geroago, Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten lanak egiteko deialdia. Haren arabera, hiru hilabete izango zituen enpresa eraikitzaileak lanok egiteko, eta ia 70.000 euroko aurrekontua. Eskararak aurkezteko epea dagoeneko bukatu da, eta ez da inor agertu; horregatik Udalak hutsal izendatu du. Orain bideak eraberritzen dituen enpresaren batekin jarriko da harremanetan lanok egin ditzan.

Gasteizera doan errepede alboan dagoen Okondoko baserriaren gainetik joaten da Etxebarrira, eta oraingo bidetik ezin dira ibili automobilak. Horregatik, lehenbailehen eraberritu behar da.

GARCIA ENBALATZEAK

- ENBALATZE TOLESTAGARRIAK
- PALETAK
- EGUR KUTXA ETA KAIOLAK
- MOTA GUZTIETAKO TAULAK
- AGLOMERATUAK, TABLEXA, DM, ETAB.
- ENKOFRATZEKO TAULA



Etxebarri Auzoa 9 - 193 P.-K.
Tel.: 943 79 81 36 Fax:a: 943 79 82 38
20550 ARETXABALETA GIPUZKOA

Subinoia 10 - Gojain industrialdea
Tel.: 945 46 62 09 Faxes: 945 46 56 33
01171 LEGUTIANO ARABA

www.embalajesgarcia.com
e-posta: garcia@embalajesgarcia.com



EROSTARBE, ETXANIZ ETA ETXABE jokalariek Ipuruako berdegunean. Kopako norgehiagoka izan dute aste barruan, eta Salamancara joango dira asteburuan; Guijuelo izango dute kontrario.

XABIER URTZELAI

FUTBOLA > EIBAR 2.B MAILAN

"Kategoriak asko parekatu dira; hemen ere, irabazteko korrika egin behar da"

Koldo Erostarbe, Josu Etxaniz eta Mikel Etxabe dira Eibarren dabilzan debagoiendarrak

Hiru jokalaria baina helburua bera: Eibar berriro ere zilarrezko kategoriara igotzea

XABIER URTZELAI > EIBAR

Koldo Erostarbe (25 urte), Josu Etxaniz (20) eta Mikel Etxabe (28): bi elgetar eta aretxabaletar bat Eibarko elastikoa defendatzen. Lehenengo biek kategoria txikienetatik ezagutzen dute talde armagina; Mikelek, berriz, 28 urterekin, dagoeneko bide luzea egin du futboleko Real, Real Union, Gasteizko Aurrera, Barakaldo eta azken hiru denboraldiak Xerez.

GOIZETAN LANERA

Astelehen goizean egin genuen hiru debagoiendarrekin hitzordua, Ipuruan bertan. Futbol entrenamendua hasi aurretik, futbol tertulia. Jokalari bakoitzak aurtengo urteari eskatzen dionaren gainean hasi gara berbetan eta Josuk, gazteenak, hartu du hitza: "Ni goiko taldearekin entrenatzen naiz, eta lehenengo jardunaldian goiko taldearekin jokatzeko deialdian sartu baninduten ere, orain arte

Eibar B taldearekin jokatu dut". Koldok, berriz, joan den urtean Lemoan egin zuen urte erdi, utzita; eta, jokatzera itzuli da Eibarrrera: "Minutuak hartu, horixe nahi dut nik. Joan den urtean zaila zen hamaikakoan sartzea, eta taldearen egoera ere ez zen onena. Horregatik joan nintzen kanpora". Eta, kanpoan ibiltzea zen den ondo baino hobeto dakien Etxabek ere argi du zein den bere helburua: "Jokatzen nabil, eta gustura nago. Izan ere, Xere-

zen egindako azken denboraldian ez nuen askorik jokatu". Etxe ondoan dago Mikel, kanpoan ibili eta gero. Eta, besteek kanpora joateko asmorik bai? "Neurri batean, hori da futbol jokalariren baten ametsa, ez?", dio Josuk. "Gainera, Mikel joan zen moduan joanda, Bigarren A maila moduko kategoria batera...".

ETA BIGARREN B MAILAN, ZER?

Bakoitzak dituen helburuen gainean berba eginda, taldea bera hartu dugu jomuga. Zilarrezko kategoria galduta, Koldo Erostarbe da joan den urteko eta aurtengo Eibarren gainean berba egiteko proposena: "Taldea maila galdu du, eta berriro ere gora igotzea da Eibarrek duen helburua. Gainera, uste dut zuzendaritzak ere horren aldeko apus-

tua egin duela, hainbat jokalaria garrantzitsu taldean geratu dira-eta. Horrekin batera, zaleak ere ilusioz ikusten ditugu, Ipuruara etortzen dira, eta taldeak aprobeztatu egin behar du hori".

MAILA PAREKATUA

Eta, beste kategoria batean jokatuta, badirudi Eibarrek ondo eutsi beharko liokeela goialdeari. Etxabek ondo daki Bigarren A mailan jokatzeko zer den, eta hauxe dio: "Gaur egun kategoria guztiak asko parekatu dira. Hau da, Bigarren B mailan ere, partidu bat irabazteko korrika asko egin behar da, inork ez du-eta ezer opari egiten. Gertatzen dena da Bigarren A mailan talde batzuek kalitate handiko hainbat jokalaria izaten dituztela, bakarkako jokaldi batean norgehiagoka era-

bakita utz dezaketenak. Bestela, ez pentsa horrenbesteko alde dagoenik". Erostarbek jarraitu du berbetan: "Nik argi daukat goragoko kategorian egongo bagina talde hau ondo defendatuko litzatekeela".

Orain arte, Eibarrek hiru norgehiagoka irabazi ditu, bi berdindu eta bakarra galdu du. Baina taldeak hobera egiteko tarte handia du oraindik: "Bai, nahiko txukun hasi gara. Aurrealdean ez dugu golik egiteko arazorik, baina egia da gol gehiegi jasotzen ditugula. Lehenengo postuetan jarraitzeko hori hobetu behar dugu".

ATHLETICA ETA REALA

Futbol jokalaria izateari utzi, eta Realeko eta Athleticen zale moduan erantzuteko eskatu diegu hirurei. Aretxabaletakoa Realzalea da; elgetarrek, berriz, Bilbo aldera egiten dute gehiago. "Bi taldeetan lehenengo partiduetako emaitzak ez dira onak izan, eta jokalariek larrituta ikusten ditut, antsietatearekin... Eta gainera, Anoetan Bonbarekin gertatzen dena gertatzen bada, baloia ukitu orduko jendea ahopeka... Alde horretatik San Mamesen beste giro bat egoten da, eta horrek urte amaieran puntuak ematen ditu".

ESANAK

"Ilusioz hartu nuen lehenengo taldearekin joateko deialdia; momentuz, bigarren taldean nabil jokatzeko"

Josu Etxaniz > Euskarria

"Bigarren A mailara igotzea da Eibarrek duen helburua, eta zuzendaritzak esfortzua egin du horretarako"

Koldo Erostarbe > Erdilaria

"Aurrealdean taldeak gola egiteko gaitasuna erakutsi du, baina egia da defentsan oraindik badugula zer hobetu"

Mikel Etxabe > Atzelaria

FUTBOLA > PREFERENTEA

Anaitasuna hartuko du Mondrak, Hondarribia izango da Ibarra, eta Urola Azkoagainen

Deigarria da joan den urtean horren denboraldi biribila egin zuten Aretxabaletaren eta Aloñaren liga hasiera

Mondrak izango du bisitaririk zailena, Anaitasuna taldea

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Aretxabaletak eta Aloña Mendik normalean domekan jokatzen dituzte etxeko partiduak, eta oraingo asteburuan ere Mondrakoez ez dute zalantzarik izan, Maritxuri eskerrak. Gauzak horrela, Arrasateko txikiteroen amabirjinaren eragina aurrekusi baino txikiagoa izango da. Mondrak izango du, sailkapenari begiratuta, kontrario gogorrena, hirugarren postuan dago-

en Anaitasuna etorriko da-eta Atxabalpera (16:30).

IRABAZTEA BAINO EZ
Aretxabaletari ez dio ardura nor datorren Ibarra futbol zelaira; datorrena datorrela etxean geratu behar dute hiru puntuek, Felix Recioreen mutilek oraindik ez dute-eta partidurik irabazi. Lau jardunalditan puntu bakarra erdietsita, Aretxabaletak bost gol jaso ditu kontrari, eta bakarra

egin du. Jakin sailkapenaren erdian dagoen Hondarribia izango dela bisitari Ibarra (16:30).

Eta, Aloñakoak ere ez daude gaur Arrasatera parrandara gerturatzeko moduan. Oruetaren mutilek talde bakarra dute sailkapenean atzerago, Aretxabaleta. Gauzak horrela, joan den urtean etxean erakutsitako sendotasuna berreskuratzea izango da oraingo domekako helburuetako bat. Hori eragotzi guran etorri-

ko da Azkoagainera 14. postuan dagoen Urola (16:30).

ONDO AMAITU ETA TXARTO HASI
Aipatzeko modukoa da Aretxabaleta eta Aloña futbol taldeekin gertatzen dabilena. Lau jardunaldi baino ez dituzte jokatu, ez da larria, baina bai da, behintzat, deigarria. Liga bikaina egin zuten bi talde horiek aldrebes hasi dute denboraldia. Eta, talde horietan ez da aldaketa nabarmenik izan.

Herritarrei korrika egitera animatzeko Soraluze-Bergara krosa, domekan

Domekan egingo du Antxintxika taldeak Soraluze-Bergara krosaren bigarren edizioa. Martitzenean egindako prentsaurrekoan azaldu moduan, lasterketaren helburua ez da aldatu: "Lasterketa herrikoia egitea da helburua, jendeari korrika egitera animatzea". 11:00etan hasiko da lasterketa, Soraluzen, eta lasterketak 10 kilometro izango ditu. Jakin egunean bertan eman ahal izango dela izena, bai Bergaran eta baita Soraluzen ere.

Nagusien lasterketa baino lehenago gaztetxoendako probak izango dira, Bergaran bertan.



XABIER URTZELAI

Mar Saurak eta Jorge Fernandezek, Moblerone-rentzat eskusiban, zure etxerako altzari sorta zabala aurkezten dizute, finantzaketa erraztasun handiarekin...

Finantzaketa **5** interes osoa **5** urte interes barik

MOBLERONE

Bisita ezazu gure erakusketa berritua

Montorra auzoa z/g • Eurohogar Merkataritza gunea • 48340 AMOREBIETA • Tel.: 94 630 10 40



Chevrolet Captiva

Europarako eskusiboki 5 edo 7 eserleku dituzten bertsioak. 150 ZPko diesela eta 136 eta 230 ZPko gasolinazko motorrak.

Captiva gama **23.330€**-tik hasita.

Giauto 902 345 225

Otaola etorbidea, 27. EIBAR. Tel.: 943 70 08 41
Karobi Industrialdea z/g. OLABERRIA. Tel.: 943 88 51 50
clientes@giauto.es

www.chevrolet.es

Chevrolet gehiago da



Prezio gomendatua Penintsulan eta Balear Uharteetan Captiva 2.4 LS eta Captiva 2.0 VCDi 5 eserlekuko ibilgailuentzat.(BEZa, matrikulazio zerga, garraioa eta gasolinazko Prever Plana barne). Hil amaiera arte baliagarria. Kontsumo mistoa (l/100 km): 7,4-11,5. CO2 emisioak (g/km): 197-264. Hiru urteko bermea edo 100.000 km bermeen legea aplikatzeko kalterik gabe: 23/2003.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Preferente maila
Aretxabaleta-Hondarribia
Domeka. 16:30. Ibarra.
Aloña Mendi-Urola
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Mondra-Anaitasuna
Domeka. 16:30. Atxabalpe.

Lehen erregionala
Bergara-Orioko.
Domeka. 16:30. Agorosin.

Bigarren erregionala
Eibartarrak-Mondra
Zapatua. 18:00. Unbe.
Aretxabaleta-Elgeta
Domeka. 18:30. Ibarra.
BTLS-Antzuola
Zapatua. 15:30. Eibar.

Ohorezko mailako gazteak
Anaitasuna-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Txerlola.
Euskalduna-Mondra
Zapatua. 16:00. Andoain.
Burmendi-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Mutriku.
Elgoibar-Bergara
Domeka. 12:45. Mintxeta.

Lehen mailako gazteak
Antzuola-Arrasate
Zapatua. 16:30. Estala.
Ilintxa-Bergara.
Domeka. 12:00. Bikuña.
Arizmendi Aretx.-Eibartarrak
Domeka. 10:00. Ibarra.

Ohorezko mailako kadeteak
Arrasate-Sanse
Domeka. 10:00. Atxabalpe.
Zarautz-Bergara
Domeka. 12:00. Asti Txiki.
Arizmendi Aretx.-Reala
Domeka. 12:00. Ibarra.

Ohorezko mailako infantilak
Arrasate-Arizmendi Aretx.
Zapatua. 16:30. Atxabalpe.
Aloña Mendi-Lagun Onak

Domeka. 11:30. Ibarra.

Lehen mailako infantilak
Eibartarrak-Bergara
Zapatua. 15:00. Unbe.

Emakumezkoen Liga
BTLS-Arizmendi Aretx.
Domeka. 18:30. Ipintza.
Mondra-Aloña Mendi
Domeka. 12:30. Atxabalpe.

Emakumezkoen F-8
Ekintza-Arizmendi-Aretxab.
Zapatua. 11:00. Berio.

Emakumezkoen F-11
Beasain-Arizmendi Aretx.
Zapatua. 10:00. Beasain.

ARETO FUTBOLA

Euskal Liga
Lagun Onak - Eskoriatza
Domeka. 11:00. Urreta.

Gipuzkoako Liga
Aloña Mendi-Ataun Avia
Gaur. 22:30. Zubikoa.

Hirugarren maila
Tejidos Jim.-UDA Mercedes
Zapatua. 17:15 Donostia.

SASKIBALOIA

Gipuzkoako ligako senior maila
Ointxe Arrasate-Ordizia
Domeka. 12:00. Musakola.
Internacional-Candy BKE
Zapatua. 19:30. Donostia.

Gipuzkoako ligako juniorrak (emakumeak)
Eskoriatza-BKL CAF
Domeka. 11:00. Intxaurtxuet.

Gipuzkoako ligako kadete maila (gizonezkoak)
Cafes Aitona-Ford Mugarri
Zapatua. 18:00. Donostia.

ESKUBALOIA

Euskadiko Txapelketa

Egia-Ford Mugarri Arrasate
Zapatua. 19:30. Donostia.

Lehenengo territorial maila
Arrasate-Tolosa
Domeka. 11:45. Iturripe.
Bergara-Urrietako
Domeka. 12:15. Labegaraieta

Gazte maila (gizonezkoak)
Usurbil-Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Oiardo.
La Salle Legazpi-Bergara
Domeka. 11:15. Legazpi.

Gazte maila (emakumezkoak)
Andonegi-Verkol Aloña
Zapatua. 16:00. Mutriku.

Kadete maila
Aloña Mendi-Euskalduna
Zapatua. 17:30. Zubikoa.
Gatz Museoa Jakion-Goierri
Domeka. 10:00. Iturripe.

Kadete maila (emakumezkoak)
Arrasate-Pulpo
Zapatua. 16:00. Iturripe.
Verkol Aloña-Groseko
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

PILOTA

Lau t'erdiko Txapelketa kanporaketa partidua
Patxi Eugi-Iker Arretxe
Domeka. 17:00. Bergara.

PILOTA

Lau t'erdiko Txapelketa kanporaketa partidua
Patxi Eugi-Iker Arretxe
Domeka. 17:00. Bergara.

XAKEA

Arrasate Hiria Xaket Txapelketa
Lagunen jardunaldia.
Domeka. 17:00. Arrasate.

ATLETISMOA

Soraluze-Bergara Krosa (nagusiak)
Domeka. 11:00. Soraluze.
(09:45etatik aurrera gaztetxoendako lasterketak Bergaran.



OFIZIALTASUNAREN ALDE Leintzeko udalen ordezkariak, zortzi ikastetxetako ordezkariak eta LEKeok, udaletxean ARGAKILARIA

ESKOLA KIROLA > SINADURA EKITALDIA

Leintz Eskola Kirola oinarriak sendotzen

Leintz bilarako bost udalek eta zortzi ikastetxek Leintz Eskola Kirola ofizialtzeko sinadura bilketa egin zuten martitzenean Arrasaten

zuen. Sinadurak batzeko helburua zuen ekitaldiaz gain, pasa den ikasturtearen balorazioa ere egin zuten. Hala, haurren kopuruari dagokionez, 6 eta 14 urte bitartean, ia Leintz bilarako haurren erdiak hartu du parte Leintz Eskola Kirola ekimenaren barruan antolatutako ekintzetan. Urriaren 21ean hasiko dute LEKeok ikasturte berria.

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Bigarren ikasturte jarraian, Leintz Eskola Kirolak mila gazte baino gehiagori eskainiko die kirol zerbitzua. Hala, hainbat

ekimen batuta sortu zen Leintz Eskola Kirola oinarriak sendotzen dabil, eta martitzeneko ekitaldia beste bultzada bat izan zen, ofizialtasunaren alde egin

MENDIA > EVERESTEKO ESPEDIZIOA

Hornbein bidean atzera egin behar, tontorrera iritsi barik

XABIER URTZELAI > ARETXABALETA
Alberto Iñurrategik, Juan Vallejo eta Ferran Latorrek ezin izan dute Everest ipar hormatik igo, Hornbein korridoretik gora. Ez zen nolanhiko erronka: sokarik gabe, sherparik gabe, oxigenorik gabe eta gainera, era alpinotan. Juanjo San Sebastian mendiza-

le bizkaitarrak martitzenean eman zuen espedizioak izan dituen zailtasunen berri: "Latorre kataluniarra izan zen lehena atzera egiteko erabakia hartzen, 8.000 metrorra zaudenean. Vallejo eta Iñurrategik aurrera egitea erabaki zuen, baina eguna argitzen hastearekin batera,

Vallejo botaka hasi, eta ahulda-deak jota, ezin zuela jarraitu erabaki zuen. Gauzak horrela, Aretxabaleta ere erabaki zentzuzkoena hartu zuen, buelta erdi ematea, 8.400 metrorra".
Dena behar den moduan badoa, datorren asterako etxean izango dira euskal mendizaleak.



Bi derbi emakumezkoen kategorian, biak domekan
Mondrak eta Aloña Mendik jokatu dute domeka eguerdian. BTLS-eko neskek, berri, Arizmendiko bisita izango dute Bergaran.

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: **1,2 € + BEZA**

www.smsoinu.com

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

OHARRAK
1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzko, jar zaitzez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Ki jantziera bakarrak ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
3. **ZALANTZAK:** Ez duzu zalantza dutzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonoa.
4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatala nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonoa.

TRIKITIXA
Bexamela ta pastelak | **BEXAMELA**
Bokespok (Koppa Jurrera) | **BOKESPOK**
Hik lan eta nik jai (Tegia) | **HIK**
Itsas ontzi baten (Kaxana) | **ITSAS**
Kuppela (Espelido eta Larregal) | **KUPELA**
Mila galdera (Alaitz / Maider) | **MILAI**
Nirekin (Gozategi) | **GOZATEGI**
Ny Hirahira (Koppa Jurrera) | **HIRA**
Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) | **TXANPON**

Himnoak
Eibar | **EIBAR**
Athletic Club | **BILBAO**
Osasuna | **OSASUNA**
Reala | **REAL**
Real Union | **UNION**

Herririkotak
Bagarei | **BAGARE**
Desde Santurce a Bilbao | **DESDE**

Ikusi Mendizaleak | **MENDI**
Pinto-pinto | **PINTO**
San Simon eta San Judas | **SAN**
Jaietakoak
Artilleria dale fuego | **ARTILLERO**
Marijaita (Koppa Jurrera) | **JAIA**
San Fermin | **FERMIN**
San Martzial etako alardea | **SAN MARTZIAL**

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Beie) | **SOROTAN**
Bai euskarari (Pantxoa) | **BAN**
Bakezaleak (Anje Duhalde) | **BAKE**
Bizkaia Maita (Benito Lerxundi) | **BIZKAIA**
Eperrak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**
Euskal Herriaren Euskaraz (Oskorr) | **EUSKAL**
Euskaldun berriaren balada (Oskorr) | **EUSKALDUN**
Ez da posible (Ruper Ordonika) | **POSIBLE**
Furra Furra (Oskorr) | **FURRA**

1,2,3,4...Real!! | **REAL**
Alboka | **ALBOKA**
Athletic leup!! | **IEUP**
Buztan bertsoa | **BERTSO**
Hartu...Aitare ta semea... | **AITAREN**
Hartu...Ansar | **ANSAR**
Hartu...Argentinarra | **ARGEN**
Hartu...Mexikarra | **MEXIKO**
Hartu...Miami | **MIAMOL**
Independentzia!! | **INDEPEN**
Irrintzia | **IRRINTZI**
Jotake irabazi arte!! | **JOTAKE**
Milazul (Ipintza) | **MILAZU**
Suprinua | **SUPRINU**
Tobera | **TOBERA**
Txalaparta | **TXALA**
Txanbela | **TXANBERA**
Txoxtx | **TXOTX**

IKURRIA **ADARIA** **MUSKARIA** **EGUZKILORE1**
EHI **BABAK** **KALABERA1** **EGUZKILORE2**
BILBO **BERAKATZAK** **POPATIK** **EGUZKILORE3**

WEBGUNEAN **www.smsoinu.com**

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **DANBAKA**
Urriaren 20an hasita, 20 partaide lehian Musika Lehiaketan > 45



> **CELESTINO URIARTE**
Errepublika Soziala Juan Ramon Garaik idatzia > 48

> **MAITENA AZKARATE-ASKASUA**
Irakaskuntza ikasi ostean Salamancara jo zuen Logopedia ikastera. Horrez gain, bertso-larritza, gitarra jotzea eta abestea gustuko du > 50



ARGAZKIA: GOIENKARIA

Flamenko jaialdiak Arrasaten

Kantu flamenkoen IV. ekitaldia antolatu du Al-Andalus elkarteak

Hamabost lagun dira lehian eta bost onenak sailkatuko dira azaroko finalerako

EDU MENDIBIL > ARRASATE
Andaluziako tradiziozko kantuen IV. jaialdia antolatu du Arrasateko Al-Andalus elkarteak. Lehiaketa joan den zapatuan hasi zen eta hurrengo bi kanporaketak urrian izango dira, hilaren 21ean eta 28an hain zuzen ere. Hamabost lagunek eman dute izena eta bost onenak sailkatuko dira azaroren 4ko finalerako. Azken urteotan bezala, finala Arrasateko Amaia antzokian izango da. Aurreko kanporaketak Al-Anda-

lus elkartearen Zigarrolako egoitzan egingo dira, 23:00etan.

ESPAINIA MAILAKO TXAPELKETA
Espainia mailako txapelketa da Arrasatekoa, Euskal Herrian egiten den maila horretako txapelketa bakarra. Partaideei dagokienez, Valladolid, Badajoz, Kordoba, Malaga, Errioxa, Nafarroa edo Bizkaitik etorritakoak dira aurtien.

Jacinto Sedano Al-Andalus elkarteako presidenteordeak esan

Egitaraua

Urriak 21, zapatua

Juan M. Barquero (Badajoz)
Esther Merino (Badajoz)
Paco Carrion (Bilbo)
Jose Parra (Nafarroa)
Rafael Martin (Kordoba)

Urriak 28, zapatua

Jose Lara (Malaga)
Gabino Carmona (Abadiño)
Manuel Ropero (Logroño)
Manuel Sanchez (Kordoba)
Sebastian Fraile (Durango)
Arrasateko Al-Andalus elkartearen izango dira emanaldiak, 23:00etan. Finala azaroaren 4an ospatuko da, Amaia antzokian.

Flamenko jaialdiak Arrasaten

(43. orrialdetik dator)

digunez, giro ederra izan zen zapatuko lehenbiziko saioan: "Jaialdiaren helburu nagusietako bat zera da: Euskadi mailan flamenkoa ezagutzera ematea, zabaltzea. Nafarroako hainbat herritako lokaletan badago flamenkoa entzuterik, baita Donostiako *peña* batean..., eta txapelketa honen bitartez gure jatorriko ohiturei bultzadaxo bat eman nahi diegu. Oso pozik gaude txapelketak orain arte jasotako erantzunarekin, dagoeneko laugarren ekitaldira iritsi gara eta poliki-poliki bagoaz bidea egiten..."

BOST LAGUN FINALERA

Lehen saiotik finalerako sailkatuturik izango den ez da urriaren 28ra arte jakingo. Behin artista guztien lana ikusi eta entzun

ondoren, emango du epaimahaia bost finalisten zerrenda. Bost lagunek osatzen dute epaimahaia, horietako bat Adolfo Diez 53 urteko arrasatearra. Valladolidekoa sortzez, Adolfo Diezek 36 urte darama Arrasaten bizitzen eta flamenko zale amorratua da: "Al-Andaluseko abesbatzan nabil, flamenko puruarekin zerikusirik ez badu ere. Flamenkoa beti gustatu zait, nire zaletasun handienetakoa da. Baditut flamenkoa kantatzen duten hainbat lagun eta haiekin ere ikasi dut zerbait..."

Flamenkoa kantatzeko beharrezko dohainak zeintzuk diren galdetu diogu: "Kantu tradizionalak ondo ezagutzea, kantatzen duzuna ondo interpretatzea eta transmititzen jakitea... Nire kasuan, goitik *apurtzen* duten abeslariak ditut gustukoenak, dena ematen duten horiek".

Antolatzaileek hiru multzo bereiztu dituzte eta partaideek multzo bakoitzeko pieza bana eskaini beharko dute kanporaketetan: A multzoan *tonak*, *seguidillak*, *solearesak*...; B multzoan *malagueñak*, *rondeñak* edo *petenerak*; eta C multzoan *cantiñak*, *tangoak*, *buleriak*, *fandangoak*... Aldi berean, kantariak Amerikara esportatutako *kantearen* pieza bat interpretatzeko aukera izango dute.

Adolfo Diezen ustetan *seguidilla* da zailenetakoa: "*Seguidilla* abesten dakienak, normalean gainerakoak menperatzen ditu baita. *Tonarekin* ere antzerako zerbait gertatzen da, baina ez horrenbeste". Gaur egungo artisten artean Miguel De Tena (Murziako La Union herrian *La lámpara para minera* saria irabazitakoa), Jose Davila (orain dela bi urte Arrasaten saritua) edo Terremoto de Jerez nabarmentzen ditu eta bere faboritoen artean Antonio



FINALA lazko finaleko irudi bat. Aurtengoa azaroaren 4an izango da. GOIENKARIA

Mairena, Jimenez Rejano, Jose Meneses, Enrique Morente, El Cabrero, El Chocolate, Carmen Linares... aipatzen dizkigu. Horiek entzuten ez da aspertzen Adolfo Diez. Epaimahaikideen lana ez dela erraza dio: "Norbaitek egin behar lan hori eta flamenkoa gustatzen zaidanez... Gainera, kantari onak etorri izan dira Arrasateko lehiaketara eta asko gozatu dugu".

SARI BIKAINAK

Iazko ekitaldian Isabel Maria Rico malagarra izan zen irabazlea Arrasaten. Aurten ez du Arrasaten parte hartzerik izango, txapelketako oinarrietan hala jasota dagoelako. Irabazleak 1.250 euro eta trofeoa (Portaloia, gitarra eta artistek erabiltzen duten ohiko aulkia irudikatzen dituen) jasoko ditu. Bigarren tokian sailkatzen denarentzat 800 euroko saria emango du Arrasateko Udalak. Lehen biek datorren urtean zehar Al-Andalusek antolatuko duen jaialdi batean parte hartzeko konpromisoa hartzen dute. Bestalde, Euskal Herrian bizi diren partaideen artean puntuaziorik onena lortzen duenak 300 euro eskuratuko ditu. Flamenkoaren sasoia da Arrasaten.

Al-Andalus, andaluziarren elkarte bano gehiago

Arrasateko Al-Andalus elkarte 1990eko urtarrilean sortu zuten eta bailarako lehen herrialde-elkarte izan zen. Handik gutxira Corazon de Encina Extremadurako elkarte sortu zuten, Arrasaten baita.

Al-Andalus elkarteak 370 bazkide inguru ditu gaur egun. Egoitza Zigarrolan daukate 1996tik; ordura arte Erguin auzoan izan ziren. Elkartearen sorreratik Rafael Gomez izan da elkartearen presidentea, 2002-2005 bitarteko epean izan ezik. Kordobako Montilla herrian jaiotakoa da Gomez: "Andaluzian jaiotako 500 bat

lagun bizi gara Arrasaten eta Debagoienean 1.200 inguru. Arrasaten, Gaztela eta Leongoa da komunitaterik handiena, 3.000tik gora lagunekin, extremadurarrak, galziarrak eta andaluziarren aurretik".

Pozik daude elkartearen martxarekin. Andaluziarren topaleku bano zerbait gehiago dela diosku Rafa Gomezek. Flamenko jaialdiaz gain, urtean zehar beste hainbat ekitaldi antolatzen dituzte: Andaluziako Eguna ospatzen dute otsailaren 28an, Kultur Astea maiatzean eta Rocio Eguna uztailko lehen domekan, esaterako.

Bisita ezazu Gipuzkoako sukalde eta bainuontzien erakusketa handiena



600 m2 baino gehiagoko erakusketa
Ikusteko 31 sukalde baino gehiago
Merkatuko prezio hoberenak
Europar marka hoberenak

Armeko
Sukaldeak Integralak


Bisita ezazu Gipuzkoako sukalde eta bainuontzien erakusketa handiena



ONEKOA **YOSU THERMIK** ONEKOA
LEIHOAK ISOLATZAILEAK

Bisita ezazu leihoen erakusketa berria
Kalitate handiena
Gehienezko berma
Prezio hobeak

ERAKUSKETA BERRIA



Kataide Poligonoa, 4 pabiloia **ARRASATE**

943 770157

MUSIKA > DANBAKA DEBAGOIENeko II. MUSIKA LEHIAKETA

Danbakako egubakoitzetako kontzertuetarako guztia prest

Astelehenean jakitera eman genituen Elgetako Espaloian zuzenean arituko diren 19 talde. Interneten lehia handia dago 20. taldea, azkena, aukeratzeko

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Bigarren edizio honetan ere Danbakak zeresan handia emango du. Hala erakutsi du musika taldeen esku-hartzeak, eta epaimahaiaren aukeraketa jakin ostean, *danbaka.com* webgunean dagoen lehia gogorrak.

Webgune horretan lehiaketara aurkeztu diren talde guztien mp3ak entzungai daude, eta zuzenean arituko den 20. taldea aukeratzeko gailua jarri dute. Hala, bozketa horren esku-hartzeak marka guztiak hautsi ditu, eta lerro hauek idazterako orduan Arrasateko Anal Bag taldea zen faborito nagusia. Hala ere, baliteke ezusteak egotea. Horiek guztiak urriaren 9ko *Asteleheneko Goienkaria*-n argituko dizkigute.

KONTZERTUAK, EGUBAKOITZETAN
Kontzertuak Elgetako Espaloian izango dira hamabostean behin,



AURRENEKOA Lehen emanaldia iragartzen duen kartela.

ARTEMAN

22:30ean. Lau talde arituko dira bakoitzean eta ordu erdiz arituko dira taula gainean. Denetari-ko estiloak uztartuko dituzte.

KAMISETAK SALGAI
Edizio honetako berrikuntzetako bat da neska eta mutilendako

Danbakako kamisetak egin dituztela. Edizioa mugatua da eta 19 eurotan daude salgai. Horiek eskuratzeko, Espaloiara jo dezakezue edo 902 36 38 51 telefono zenbakian eska ditzakezue. Etxera eramatea gura izanez gero, 3 euro gehiago ordaindu beharko dira.

SARRERAK ETA ABONUAK
Hasi dira kontzertuetarako abonuak saltzen. 18 eurotan saltzen dituzte (10 euro, Gaztekuarekin). Sarrerak, berriz, 4 eurotan (2 euro, Gaztekuarekin). Espaloian, Goienako egoitzetan edo 902 36 38 51 telefono zenbakian.

> TELEBISTA
Arrasaten egingo dute 'Egin kantu!' saiorako castinga astelehenean

Egin kantu! herriz herri ibiliko den telebista saio alai eta martxosoa da. Nerea Aliasek aurkeztuta, astero, Euskal Herriko umeek, garai bateko eta egungo kanta ospetsuak abestuko dituzte taula gainean

Urriaren 26an Arrasaten grabatuko dute saioa 17:00etan. Oraindik ez dute lekua zehaztu. Horren aurretik, baina, castinga egingo dute, eta horren gaineko zehaztasunak baditugu. 8 eta 16 urte bitarteko umeek astelehenean, hilaren 9an, izango dute horretarako hitzordua Monterronen, 16:30etik 21:00etara.

> KULTUR ERROTA
Kultur Errotaren ikuskizunak Bergaran eta Aretxabaletan

Topaguneak eta ibarreko euskara elkarteek elkarlanean datozen hilabeteetarako hainbat kultura ekintza antolatu dituzte.

Gaur, egubakoitza, Zenbat Gara taldeak *Amama Pantxikaren altxor ezkutua* antzez-lana egingo du Aretxabaletako Herriko Plazan, 17:00etan. Hilaren 27an, Teresa Lopez de Muniainek *Ugaztun emebaten irrikak* ikuskizuna egingo du Aretxabaletan.

Abenduaren 1ean, berriz, *Emetik* bertso kabareta egingo dute Bergaran; eta 21ean, Ana Meabek ipuinak kontatuko ditu Aretxabaletan.

Edozein premiatarako:

- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

Zure zerbitzura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Maite Albizu
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi



Policlínica Gipuzkoa

ARRASATE

Zerkaosteta 17
943 79 20 18

Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88

CG
CONSULTORIO
GINECOLOGICO





IRAGARKI SAILKATUAK
Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ARETXABALETA
Ortzi erretegia alokatu egiten da.
943 78 22 80
665 72 24 46

LAN ESKAINTZA
Goiena Aseguru Artekaitza
ADMINISTRARIA behar du negozioa handitzen duelako.
Honakoa baloratuko da:
• Sektorean esperientzia
• Euskara
• Informatika ezagupenak
Curriculum-a honako helbidera bidali:
Goiena aseguruak, Antso Abarka 6 behea Arrasate 20 500

BERGARA
LAN ESKAINTZA
Bergarako Udala lehiaketa-oposizio bidez Aroztegi areto zaindu eta gida lanak egiteko lan-poltsa osatzeri doa.
Izangaien baldintzak
• 18 urte beteta izatea.
• Unibertsitateko erdi mailako titulua edo parekoa.
• Euskara 3. hizkuntza eskakizunari dagokion maila.
Instantziak
Instantziak aurkezteko epea 2006ko urriaren 28an, 13:30ean bukatuko da.
Oinarriak Idazkaritzako bulegoetan eta www.bergara.net Web gunean.
Bergara, 2006ko irailaren 28a
ALKATEAK

BERGARA
Bergaran bizi den zerbizaria behar da asteburuetan tabernan lan egiteko.
943 76 53 64

ARETXABALETA
Zerbitzaria behar da asteburuetan lan egiteko.
652 70 82 46

BERGARA
8/ DENETARIK
801. SALDU
Bergara. Basolurra emango nuke errentan. Deitu telefono honetara: 678 72 75 72.
Denda bateko altzariak eta estrak (kutxa erregistratzaile...) saltzen dira. Deitu telefono honetara: 610 78 46 22.
Hektarea bateko pinudia salgai Bergaran. Deitu telefono honetara: 678 72 75 72.
Senar-emazteentzako logela salgai. Ohea, armairua, komoda, gau-mahaiak eta aukia. Modernoa. 500 euro. Deitu telefono honetara: 943 77 01 27.

BERGARA
103. ERRENTAN EMAN
Benidorm. Etxea alokagai. Berria. Prezio onean. Telefonoa: 945 44 53 60.

BERGARA
203. ERRENTAN EMAN
Antzuola. Garajea emango nuke errentan Sagastin. Trasteleku du. 616 03 05 01.

BERGARA
402. ESKAERAK
Arrasate. Neska arduratsua batek umeak eta pertsona nagusiak zaindu edota garbiketara lanak ere egingo lituzke. 662 08 22 03.
Bergara. Emakumea gertu etxetik edo tabernak garbitzeko. Claudia. 671 41 22 16.
Bergara. Neska lanerako gertu. Orduka lan egingo nuke edo barneko langile moduan. 647 17 55 69 edo 663 46 93 60.
Neska prest lanerako. Arrasaten edo Aretxabaletan. 638 15 52 28.
5/ IRAKASKUNTZA
502. EMAN
Arexabaleta. Ingelesko eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

BERGARA
6/ MOTORRA
601. SALDU
Audi A-3 Saltzen da oso egoera onean. 5 ate, 1.9 TDI. Deitu telefono honetara: 619 92 91 18.
Ford Focus diesela. 100 zaldi, 2 urtekoa, 66.000 kilometroekin. Aire-klimatizagailuarekin eta auto barruko ordenadorearekin. Deitu telefono honetara: 607 91 31 80.
Golf GT gorria salgai. 133.000 km. 1991koa. Aire girotua. Egoera onean. 661 96 62 70.
Golf GTI 3 2115 ZP. 155.000 km. Eibach suspentsio-sistema. Beira tindatuak. 669 57 47 96.
Hyundai Lantira 1.6 autoa salgai. 900 euro. Deitu telefono honetara: 686 41 33 58.

BERGARA
7/ ANIMALIAK
701. SALDU
Persiar katakumak salgai. 200 €. Manoli. 610 64 58 41.
703. EMAN
Antzuola. Txakurkumeak opari egiten ditugu. Iluntze aldera deitu. 943 78 70 64.

BERGARA
8/ DENETARIK
806. GALDU
Oñati. Herri egunean poltsiko telefonoa galdu nuen. Aurkitu duenak deitu. 943 78 62 38.
808. BESTELAKOAK
Biltegi eta bulegoko altzariak eta laneko erremintak aukeran. Deitu telefono honetara: 657 79 58 76.

URTEURRENA
Pakita Ilarduia Arza
Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 8an, 11:50ean, Bergarako Santa Marina elizan.
Elizkizunetara joango zaretenei, aldeztu eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA
Txomin Gantxegi Ondarra
Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 8an, 12:00etan, Osintxuko elizan.
Elizkizunetara joango zaretenei, aldeztu eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA
M^a Luisa Iraolagoitia Juaristi
Bergaran hil zen 2006ko irailaren 21ean, 70 urte zituela.
Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei, eskerrik asko sendikoen izenean.
Bergaran, 2006ko urriaren 6an.

ESKELA
Begoña Ezkurra Pedrosa
Donostian hil zen 2006ko irailaren 28an, 45 urte zituela.
Kaiak tabernako lagunak zure bizipoza beti gogoratuko dugu.
Bergaran, 2006ko urriaren 6an.

ESKELA
Begoña Ezkurra Pedrosa
Donostian hil zen 2006ko irailaren 28an, 45 urte zituela.
Bergarako San Martin Agirre Ikastetxea
Bergaran, 2006ko urriaren 6an.

ESKELA
Begoña Ezkurra Pedrosa
Donostian hil zen 2006ko irailaren 28an, 45 urte zituela.
Zure indarra, zure irribarra... beti izango dira gurekin. Ez zaitugu ahaztuko.
BEKEko eskulanetako lagunak. Bergaran, 2006ko urriaren 6an.



Iratzeder Iturri aretxabaletarra eta **Gorka Alarzia** urretxuarra zapatuan ezkondu dira Zumarragako Antioko basilizan, eta Etxe Berri jatetxean izango da bazkaria. Ezkon bidaian Argentinara joango dira. Zorionak, koadrilakoen partetik.



Simon Osinalde eta **Isabel Moraleja** irailaren 26an ezkondu ziren orain dela 25 urte Leintz Gatzagako elizan. Zilarrezko ezteiak lagunekin ospatu zituzten afari baten bueltan. Zorionak eta segi horrela beste horrenbeste urtean. Familia eta lagunak.



Pedro Jausoro eta **Felisa Ena** bergararrak, San Pedroko elizan ezkondu ziren 1956ko urriaren 4an. Urrezko ezteiak urriaren 7an ospatuko dituzte Labegaraietako Zabala jatetxean. Zorionak anai-arreben, iloben eta gainontzeko senideen partetik.

ESKER ONA

Fermin Carrillo Domínguez

Gasteizen hil zen 2006ko urriaren 4an, 65 urte zituela.

Aitite, gure bihotzean izango zara beti.

Iñaki eta Elene bilobak

Eskoriatzan, 2006ko urriaren 6an.



Esteban Igartua eta **Angelita Larrañaga** ezkondu zirela gaur, urriaren 6an, beteko dira 50 urte. Urriaren 8an ospatuko dituzte urrezko ezteiak senideekin bazkari bat eginez. Zorionak eta ondo pasa, familiakoen partetik.



Jose Agirre eta **Isabel Igartua** 1956ko urriaren 4an ezkondu ziren Bergarako Santa Marina elizan. Urrezko ezteiak betetzen dituzten honetan Boroan egingo dute ospakizuna urriaren 8an familiakoekin. Zorionak eta muxu handi bana familiakoen partetik.

BIGARREN URTEURRENA

Angelita Biteri Azurmendi

*Joan goaz eta etorri gatoz
Ama, zu beti gurekin*



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

MEZA

Karlos Urrutia Ezkurra

Arrasaten hil zen 2006ko irailaren 15an, 76 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza domekan, urriaren 8an, 11:00etan, Udalako San Esteban elizan. Bertaratuko zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko.




Arrasaten, 2006ko urriaren 6an.

URTEURRENA

Agustin Urrutia Zubizarreta

Hirugarren urteurreneko meza domekan, urriaren 8an, 11:30ean, Aretxabaletako parrokan.

Emazteak, seme-alabek, familiak eta lagunak ez zaitugu ahazten.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jose Ramon Altuna Sagastigutxia

Txara baserrikoa

Bergaran hil zen 2005eko urriaren 16an, 61 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 8an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Elena Alkorta Larrea

Isaac Larrañagaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 8an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Luis Iturbe Milikua

Arrasaten hil zen 2005eko urriaren 9an

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 8an, 12:00etan, Arrasateko Uribarriko Itxaropeneko Andramariren Elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Luis Esnaola Telleria

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 8an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jesús Jiménez Pérez

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 8an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Mari Tere Muxika Heriz

Arrasaten hil zen 2006ko irailaren 30an, 69 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2006ko urriaren 6an.

Presta zaitez udazkenerako



AGIRRE jantzi denda
BERGARA
Bidekurutzeta 18 • 943 76 72 67
Alba Conde, Elisa Rivero, Jocavi, Marc auel, Selvatgi



GANTXEGI mertzeria
BERGARA
Telesforo Aranzadi 2 • 943 76 00 79
Hankak dotore izateko



KILIMA ume eta haurdunentzako arropak
ARETXABALETA
Ilargi plaza 6 • 943 53 34 96
Noppies haurdunentzako jantziak



LIE lurrindegia
ARETXABALETA
Mitarte 18 • 943 79 38 59
Adolfo Dominguez pijama




XARMANTA opariak
ESKORIATZA
Gaztainadui 21 • 943 71 53 87
Simone Perele barruko arropa




Gabilondo jantzidenda
BERGARA
D. irala 5 • 943 76 27 83
Udazkenean lirain egoteko



PAGALDAI opariak
ARETXABALETA
Durana 33 • 943 79 10 14
Ezpainekoa eraman opari



DORLETA ETA TXARO estetika zentroa
ESKORIATZA
Aranburuzabala 22 • 943 71 51 20
Depitotal fotodepilazioa



ZARRAOA lurrindegia
ARRASATE
Kanpantorpea 4 • 943 79 12 19
Laruzko artikuluak, Bitxitegia, Kosmetika, Opariak

Maitane Azkarate-Askasua > Musikaria eta Logopeda ikaslea

"Salamancako etxean gitarra eta soinua atera eta kantuan ibiltzen gara askotan"

Maitanek oso gustuko du musika. Txikitan soinua ikasten hasi zen eta gerora eskola berean irakasle aritu zen. Gitarra jotzen eta abesten bere kontu ikasi du. Orain, lagun batzuekin musika talde bat sortu du. Bestalde, Irakaskuntza ikasi ostean Salamancara jo zuen Logopedia ikastera. Bertsolaritza, berriz, erdi alboratuta dauka, baina berreskuratzeke asmoa dauka.

IKER BARANDIARAN > BERGARA

Maitane Azkarate-Askasua zaletasun handienak bertsolaritza eta musika dira. Bestalde, Irakaskuntza ikasi ostean, Logopedia ikasten dihardu, eta azken hori du gustukoan.

Zer izan gura zenuen nagusitan?

Txikia nintzanean, irakasle izan gura nuen.

Batzuek diote irakasle ona izateko aurretik ikasle ona izan behar duzula...

Ikasle txintxoia izan naiz. Aldi berean, zaletasunak eta bestelako gauza asko uztartzen ditut ikasketekin batera. Eskolan edo unibertsitatean ez dut hutsik egiten, horretara joaten gara-eta hara, ikastera.

Irakaskuntza ikasi zenuen. Beste zerbaiteko ikasteko asmotan ere ibili zinen?

Bai, zalantzan egon nintzen Irakaskuntza edo Kazetaritza egitea, baina justu unibertsitatean hasi aurretik udaleku batzuetan begirale ibili nintzen, ume txikiekin. Oso gustura ibili nintzen, eta horrek animatu ninduen Irakaskuntza ikastera. Egia esan, beti erakarri nau irakasle izateak.

Ikastera ez zinen urrun joan, Eskoriatzan ibili zinen...

Bai, Donostiara joateko asmoa neukan, baina Bergaran trikiti eskolak emateko eskaintza egin zidaten eta baietza eman nuen. Hortaz, Donostiatik eskolak ematera joan eta etorri ibili beharrean, ibarrean, Eskoriatzan, gelditu nintzen.

Itxuraz ikasle bizimodua gustuko duzu. Irakaskuntza ikasi ostean, Salamancara jo zenuen Logopedia egitera.

Bai. Irakaskuntza bukatzean pentsatu nuen hori gutxiegi zela, eta 21 urterekin lanean hasteak alferkeria puntua eman zidan. Hortaz, Logopeda ikastera jo nuen Salamancara. Bi ikasturte egin ditut, eta oraingoa azkena da. Dagoeneko gogoz nago lanean hasiteko.

Eta zer moduz zabilta Salamanca aldean? Bergara faltan sumatzen duzu?

Lehenengo urtean ia ez nintzen Bergararekin gogoratzen, hain berria zen guztia... Baina gerora bai, faltan sumatzen dut jaioterria. Hilean behin-edo etortzen naiz Bergarara. Bestalde, Salamancako giroa oso ondo dago. Jende gaz-



JOSETXO ARANTZABAL

PERTSONALA

Herria: Bergara. **Adina:** 23 urte. **Zaletasunak:** Musika entzun eta egin, mendia, bertsoak eta lagunekin irten. **Zer beste lanbidetan ikusten duzu zure burua?** Agian kazetaritza. **Betetzeko daukazun amets bat?** Musika taldearekin emanaldiak egitea. **Debagoiene-**

kotxoko politena? Udala. **Parranda onena, non?** Zarauzko Euskal Jaian aurten, eta baita iaz ere. **Inoiz diskriminatuta sentitu zara emakumezkoa izateagatik?** Ez. **Maniaren bat badaukazu?** Zapatak lurrean jartzen ditudanean, beti eskumakoa aurrea jartzen dut.

te asko dago han, eta, gainera, leku guztietakoa.

Zer gurago duzu, Salamancako edo Euskal Herriko parranda?

Hemengoa. Salamancako musika ez da hain ona, eta, gainera, han ez dute txikiteorik egiten.

Zer dela eta aukeratu zenuen Logopedia ikastea?

Irakaskuntzarekin lotutako zerbaiteko aukeratu nuen. Proba egitearren hautatu nuen. Orain, konturatu naiz Logopediak Irakaskuntzak baino gehiago erakartzen nauela.

Bertsolaritzan ere buru-belarri zabilta aspalditik...

Tira. Txikitan etxekoek *Hitzetik hortzera* ikusten zuten eta bertso saioak ikustera eramaten ninduten. Bertso eskolan 18 bat urterekin hasi nintzen. Oso giro ona daukagu eskolan, baina Salamancan nabilenetik ia ez naiz joaten. Horrez gain, udan bertso-eskoletan begirale ibili naiz eta oso ondo pasa dut. Datorren udan ere errepikatuko nuke.

Zure beste zaletasun handi bat musika da, ezta?

Bai. Txikitan Musika Eskolan hasi nintzen. Solfeoa ikasi ostean, 11 urterekin hasi nintzen soinua jotzen. Horrez gain, gitarra nire kontu ikasi dut. 13 urterekin hasi nintzen horretan.

Musika asko entzuten duzu? Zer motatako musika?

Musika euskalduna entzuten dut, batez ere: rocka, folka, ska, trikitia... Kanean ez naiz MP3arekin ibiltzen, baina Salamancara bidean trenean bai. Salamancan soinua eta gitarra daukat, eta etxeko guztiak kantuan ibiltzen gara askotan: Benitoren kantua...

Jakina, zuk zeuk ere abestuko duzu, talde bat sortu duzue-eta.

Betidanik abestu dut etxean, eta birritan Euskal Herriko Kantu Txapelketara aurkeztu naiz lagun batzuekin. Horieta baten Gipuzkoako bigarren sailkatu ginen. Horren ostean, orain dela urte batzuk, lagun batzuk talde bat egiteko asmotan hasi ginen. Pasa den udan entseatzeko hasi ginen lagun baten baserrian. Kortatu, Deabruak Teilatueta... eta beste-lakoan kantua jotzen ditugu. Oraindik ez daukagu kantu propioirik. Nik abestu eta gitarra akustikoa jotzen dut. Soinua beste lagun batek jotzen du. Ea fundamendua hartzen dugun...

bila-bila 7



hitz gezidunak

	Eraman	Otoitz egi- ten duena	Aurpegia- ren atal
	Galtzagorri	Nafarroako herria	10
Bokal erre- pikaturia			Kíloa
Mahai joko			Bira
Eltze	Jasaile, pairatzaile		
Adiskide	Sendo, irmo		
		Zuzen, tante	
		Dimako auzoa	
Bozkario, alaitasun		... egin, agurtu	
IRUDIKO MENDIA		Kromosomen osagaia	
			Utikan!
Beldurtu, kikildu			
Goien, garaien			
		Pausaldi (alderan- tziz)	

GOIENKARIA



umore giroan

Kike Amonarriz

Bonboi partiketa

Matematika ordua da eta Karmele andereñoak honako ariketa hau jarri dio Patxikuri:
- Ea, Patxiku, adi entzun.
Zuk hamasei bonboi dituzu eta zure anaiarekin partitu behar dituzu. Zenbat emango dizkiozu?
- Lau!
- Patxiku, mesedez, ez al dakizu zatiketak egiten edo?
- Nik bai, baina nire anaiak ez.

Hegan


- Zuek ba al dakizue nola orientatzen diren Tolosako hegazkin pilotoak?
- (!!!)
- Errepideetako seinaleak irakurritz!

sudokua

		5	4		3	6		
4	1			2			8	9
6								5
	8		2		1		7	
				9				
	5		8		4		6	
9								3
5	4			6			1	2
		3	1		5	8		

hieroglifoa

Euskal Herriko herrialdea




hizki salda

Debagoieneko 5 mendiren izenak

A	Z	E	H	U	G	I	J	Z
N	U	B	O	S	H	K	A	L
D	E	D	I	M	A	I	R	U
A	N	U	A	R	R	O	I	G
R	A	D	H	L	K	E	N	O
T	S	E	T	B	A	T	D	I
O	N	G	A	E	I	I	O	R
D	E	M	E	K	T	O	T	A
D	I	Z	P	I	Z	T	E	Z

soluzioak



T				N	R	E	O	G
I	A							
U	R	T		L	D	A	K	
				A	B	A	V	
S				L	E	O	Z	P
T				Z	N	U	G	L
O				S	I	P	A	L
K				O	O	O	O	
O				X	A	T	I	R
K				O	E			

bono fotoa



Arrasateko Gesalibar auzoa dago argazkian. Nola du izena, Gesalibar auzoa izenburua duen liburua argitaratu duen elkarteak?

Argazkia eta galdera > Joxefe Diaz de Tuesta.

Super BM IFA

Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Ariel Essential edo Essential Alpine detergentea
3,96 kg 33 garbiketa

9,95 € 1.656 pta.
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
XABI LEUNDArendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: Herri eguna, Oñatiko jaietan.

6	9	8	5	4	1	3	7	2
9	6	7	1	2	3	4	8	5
2	4	5	3	6	1	7	8	9
1	6	2	4	3	8	9	5	7
8	3	5	7	9	2	4	1	6
7	4	1	9	7	5	2	8	3
3	8	6	2	5	1	9	7	4
6	3	2	9	7	8	1	4	5
9	8	4	1	7	5	2	6	3
8	9	5	4	1	3	6	2	7

Jeroglifikoak: Bizkaiak
bi-kala

Z	E	T	Z	I	P	Z	I	D
A								
R								
I								
D								
I								
O								
N								
O								
A								
N								
A								
A								
R								
A								
V								
E								
I								
N								
O								
S								
H								
K								
A								
L								
J								
Z								

berriak

PUBLIZITATEA

Danbakako spotak gaurtik aurrera ikusgai

Danbaka, Debagoieneko Musika Lehiaketa laster martxan izango da. Urriaren 20an izango da lehen kontzertua. Kontzertuak iragarriko dituen spotak, estreinatuko dugu gaur bertan. Beste spot batek berriz, Danbakako kamiseta erakutsiko digu. Danbaka musika lehiaketako komunikazio grafikoa, Arteman Komunikazioak egin du. Modelo lanetan Nerea Gorostidi arrasatearra ibili da.

> GOITB

Asteburuan ere San Migel jaien saioak eskainiko ditugu

Oinaztu batek kalteak eragin ditu Goiena Telebistak Murun dituen antenan. Horregatik eguaztenean antena bidez ezinezkoa izan zen Goiena Telebista ikustea. Beraz, Oñatiko San Migel jaien inguruko saio berezia ikusteko aukerarik izan ez baduzu, asteburuan ikusi ahal izango duzu. Zapatuan eta domekan Aretxabaleta eta Oñatiko San Migel jaiak ikusgai.

> ARRASATE IRRATIA

Maritxu kajoiaren omenez, saio berezia gaur Arrasate Irratian

Urtero moduan, aurten ere, mikrofonoa eskuetan hartuta kalera irtengo gara, txikiteroen jaiaren berri zuzenezuzenean eman asmotan.

Zure begi eta belarri izan nahi dugu; horrela bada, kaleko giroaren berri emateaz gain, Mendia Jauregitik Maritxuren miraria kontatuko dizuegu. Iluntzean, 20:00etan eskainiko dizuegu zuzeneko saioa, eta 22:00etan errepikapena eskainiko dugu.

> ARRASATE IRRATIA

Hainbat ikuskizunetarako sarrerak eskuragai

Arrasate Irratiko autobusera igotzen bazara, hainbat kultura ekitaldietako sarrerak eskuratzeko aukera izango duzu. Datorren astean, esateko, Arrasateko kultura sailak oparitutako Barricada taldeak Amaia Antzokian emango duen kontzerturako sarrerak banatuko ditugu.

Eskuratzeko, bada, deitu 943 71 1731 telefonora edo idatzi irratia@goiena.com helbidera eta zozketan parte hartzeko aukera izango duzu.


'JAIK 2006' > MARTITZENA, 21:15

Maritxu Kajoi: saio berezia martitzen gauean, GOITBn

Arrasateko kaleak eguerdirako girosten hasten dira. Goizean goiz, ile-apaindegiak jendez lepo daude

GOIENKARIA > ARRASATE

Ile-apaindegi batetara hurbilduko gara gu ere. Orrazkera ezberdinak erakustez gain, jendeari galdetuko diogu jai berezi honen inguruan. Gero eta arrasatear gehiagok eguerdirako ematen diote hasiera Maritxu Kajoi jaiari. Horren erakusle, inguruko jateak bazkaltzeko beteta daudela. Horietako jateak bertako giroa jasotzeko. Eta noski, miraria ere jasoko dute gure kamerek. Maritxu Kajoi jaiaren gaineko saio berezia martitzenean, urriaren 10ean, eskainiko dizuegu, 21:15ean.



MARITXU KAJOI Gaurko miraria ere jasoko dute gure kamerek.

GOIENKARIA

'BERRIAK' > EGUNERO

Eguerdian hasi eta laurden gutxi oro informazioa nagusi Goiena Telebistan

GOIENKARIA > ARRASATE

Eguerdiko 13:45ean eskaintzen dizue Goiena Telebistak eguneko lehen informatiboa. Gaurkoak izenburupean hiru minututan eguneko lehen albisteen errepasoa eskaintzen dizue begi kolpe batetan. Ordubete beran-

duago, albisteak landuago datoz Albiste Aurrerapena saioan. Goiatz Arana kazetariak aurkezten du informazio tarte hau. Arratsaldeko Berriak saioa Julen Iriondok aurkezten du. Egun osoko lana batu eta orduerdian Debagoienan egunak

utzi dizkigun albisteak batzen dira. Albiste hauek lantzen Goienako kazetari lantalde profesionala dabil: Amagoia Lasagabaster, Jokin Etxebarria eta Txomin Madina. Eta kazetariekin batera Jone Inunziaga, Haritz Altbete eta Mikel Saiz kamera lanean.

Gogoratu informazio saioek laurden gutxi oro dutela lekua Goiena Telebistan. Baina astelehenetik aurrera, Berriak saioa arratsaldeko 19:45ean eta ordubetara, gaueko 20:45ean eskainiko dizuegu. Informazio gertukoen, GOITBn duzue.

telebegi

Unai Loidi

Bi errepidean

Bi gauza ditu programak gustatu ez zaizkidanak. Bata izena: *Bi errepidean*, gaztelarazko *Dos en la carretera*-ren kalkoa. Baziren aukeran izen egokigoak. Beste ordua. Oso berandu. Eta *Goenkale* noiz bukatuko zain egon behar Aristi eta Aizpuru "elkarrizketatuaren larruan sartzen" ikusteko. Gaueko hamaikak jota, eta *Goenkale* ezin bukatu. Hamaikak eta laurden, eta *Goenkale*-ko eszenak esperentikoagoak ezin izan.

Gainerakoan, hurbilekoa eta arina iruditu zitzaizdan astelehenean *Bi errepidean*. Arina, zentzu txarrean ulertu daiteke, baina zentzu ona azpimarratu nahi dut: erritmo onekoa eta erraz ikustekoa. Azalekoa ere bai, gidoiak behartutako txiste eta guzti. Baliteke lehen emisiorako grabatuta zeukaten kartutxorik onena erre izana. Datorren astean ikusiko dugu. Baina ez da erraza elkarrekin zerikusirik ez duten bi pertsonaren ibilerak istorio paralelo moduan kontatzea, biak errepidean ibili arren. A! Gustatu ez zaidan hirugarrena: erreportaje saio moduan saldu digute ETBtik tarte berria. Ez dut uste hala dei dakikeenik..

arrasate irratia

FM 107.7

Egubakoitza

20:00 Maritxu Kajoi saio berezia.
22:00 Maritxu Kajoi saio berezia (errep).

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.
Jose Mari Velez de Mendizabalekin, Jose Luis Iñarra parrokoari buruz; Jose Luis Korta, arraun patrioi-oiha; Erakundeen geltokian, emakumeentzako aholkularitza zerbitzuaren gainean; lorategiaren geltokian balkoia txukuntzeko aholkularitza...

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Zorion agurrak
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tarte (errep.)

GOITBko
programazioa

Egubakoitza, 6

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Bihurkorra. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Jaiak 06. 14:15 Klip@. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Iparorratza. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean. 16:15 Klip@. 16:45 Albisteak. 17:00 Jaiak 2006. 17:30 Eltze beroa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 16 mm. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albisteak. 19:00 Klip@. 19:15 Jazz. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Bihurkorra. 20:45 Gaurkoak. 20:47 Behazulo. 21:15 Gatza eta berakatza. 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean. 22:45 Gaurkoak. 22:47 Sustrai. 23:15 Izan ziren. 23:30 Eltze beroa. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 7

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Nonochan, Bihurkorra eta Snorkeldarra. 11:00 Behazulo. 11:30 Ilunpean. 12:00 Eltze beroa, sukaldaritzako saioa. 12:15 16 mm. 12:45 Iparorratza. 13:45 Harmailatik. 14:15 Klip@. 14:15 Musikari taldeen bideo klipak. 14:30 Astekoak. 14:45 San Migelak Aretxabaleta. 15:15 Izan ziren. 16:00 Erreportajea. 16:30 Gatza eta berakatza. 16:45 MKT. 17:15 Elkartasunaren bideak. 17:45 Marrazki bizidunak: Snorkeldarra eta Bihurkorra. 19:15 Eltze beroa. 19:30 16 mm. 20:00 Behazulo. 20:30 Zera dio eta Motzean. 20:45 Ilunpean. 21:15 Teknopolis. 21:45 San Migelak Oñati. 22:30 Astekoak. 22:45 16 mm. 23:15 Erreportajea. 23:45 Emisio amaiera.

Domeka, 8

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Snorkeldarra, Nonochan eta Bihurkorra. 11:00 Klip@. 11:15 Astekoak. 11:30 Iparorratza. 12:00 S. Migelak Oñati. 12:30 Izan ziren. 13:00 Gatza eta berakatza. 13:15 Elkartasun bideak. 13:45 Klip@. 14:15 Marrazki bizidunak, Snorkeldarra. 15:45 Ilunpean. 16:15 Behazulo. 16:45 16 mm. 17:15 Astekoak. 17:30 Marrazki bizidunak. 18:45 Klip@. 19:15 Iparorratza. 19:45 Erreportajea. 20:15 Zera dio eta Motzean. 20:30 Ilunpean. 21:00 16 mm. 21:30 Behazulo. 22:00 Izan ziren. 22:15 San Migelak Aretxabaleta. 23:00 Teknopolis. 23:30 Emisio amaiera.

Astelehena, 9

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Bihurkorra. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Behazulo. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Munduari bueltak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean. 16:15 Klip@. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Erreportajea. 17:30 Motzean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Berbaire. 18:15 Klip@ eta MKT. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klip@. 19:15 16 mm. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Bihurkorra. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Gatza eta berakatza. 22:00 MKT. 22:15 Harmailatik. 22:45 Berriak. 23:15 Erreportajea. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Izan ziren. 00:00 Eltze beroa. 00:30 Emisio amaiera.

Martitzena, 10


13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Jazz mintegia. 14:15 Klip@. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Elkartasunaren bideak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Harmailatik. 16:15 Klip@. 16:45 Albisteak. 17:00 Jazz mintegia. 17:30 Danbaka. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Behazulo. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Albisteak. 19:00 Klip@. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan. 20:45 Berriak. 21:15 16 mm. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Jaiak 2006: Maritxu Kajoi. 22:15 Berbaire. 22:45 Berriak. 23:15 Behazulo. 23:45 Gaurkoak. 23:47 MKT. 00:00 Eltze beroa. 00:30 Emisio amaiera.

Eguaztena, 11

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Bihurkorra. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Danbaka. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Teknopolis. 15:45 Gaurkoak. 15:47 16 mm. 16:15 Klip@. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Iparorratza. 17:30 Zera dio. 17:45 Gaurkoak. 17:47 16 mm. 18:15 Klip@. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Motzean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Sustrai. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klip@. 19:15 Erreportajea. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Bihurkorra. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Gatza eta berakatza. 22:00 Zera dio. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Elkartasun bideak. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Izan ziren. 00:00 Emisio amaiera.

Eguena, 12

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazkiak. 11:30 Ilunpean. 12:00 Eltze beroa. 12:15 16 mm. 12:45 Iparorratza. 13:15 Erreportajea. 13:45 Harmailatik. 14:15 Klip@. 14:30 Astekoak. 14:45 Maritxu 06. 15:15 Izan ziren. 16:00 Erreportajea. 16:30 Gatza eta berakatza. 16:45 MKT. 17:15 Elkartasunaren bideak. 17:45 Marrazkiak. 19:30 16 mm. 20:00 Behazulo. 20:45 Ilunpean. 21:15 Teknopolis. 21:45 JAIK 2006: Maritxu Kajoi 06. 22:15 Izan ziren. 22:30 Astekoak. 22:45 16 mm. 23:15 Erreportajea. 23:45 Emisio amaiera.



UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA II. LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/udakoargazkiak

Banatu ditugu sariak

Banatu ditugu Udako Argazkien Asteleheneko Goienkaria II. Lehiaketako sariak. Idurre Amozarrain arrasatearrak irabazi du lehen saria, *Gatzagetako loreak*

argazkiarekin. Argentinan egin zuen argazkia, Purmamarka herriko gatzagetan. Bigarren saria Aretxabaletako Mireia Olabek eskuratu du, Cadizen ateratako *Eguzkiari*

burlaka argazkiarekin, eta hirugarrena, Iñigo Arriaran arrasatearrak, Debako Elorrixa auzoan egindako *Kalekumea baserrian* argazkiagatik



SARI NAGUSIA.

Idurre Amozarrain arrasatearrak irabazi du sari nagusia, argazki-kamera digital bikaina, **Kiñu argazki dendak** emana. Dendako Juanjeren eskutik jaso zuen saria. Pozik, gainera, izan ere, orain arte ez du kamera digitalik izan. Ezustea ere hartu duela esan digu irabazleak.

2. SARIA

Mireia Olabe aretxabaletarra-
rendako izan da. Lehenengoz hartu du parte lehiaketa baten eta pozik jaso du epaia. Saria eman dio **Barceló bidaia agentziako** Bergarako bulegoko Garbiñek: Hoteletan egonaldia egiteko Talon Plan txartela



3. SARIA.

Iñigo Arriaran arrasatearra izan da hirugarren saritua. Bi pertsonarendako bazkari edo afaria irabazi du Gatzagako **Gure Ametsan**. Semearekin eta Gure Ametsako ugazaba Marisarekin ageri zaigu alboko irudian.



Babeslea:



Laguntzaileak:



Harpidedun egiteko:
902 36 38 51

Urriak 6-12

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

Kontzertua



ARRASATE

> Barricada taldearen kontzertu akustikorako sarrerak salgai daude

Barricada taldea zuzenean ikusteko aukera paregabea izango da hilaren 14an, eta sarrerak salgai daude Kutxan (www.kutxa.net). Betiko abestiak joko dituzte, formatu akustikoan. Amaia antzokian izango da emanaldia.

Jaiak



ARAMAIO

> Untzilla auzoko jaiak ospatuko dituzte asteburu osoan

Gaur, egubakoitza, hasiko dira Untzillako jaiak. Besteak beste, bertso afaria, antzerkia, Murumendi elkarteko bolo txapelketa, Mikaela Portillari omenaldi meza eta dantzaldia izango dituzte auzotarrek.

Erakusketa



ESKORATZA

> Margolan eta poema erakusketa ipini dute Ibarraundin bi gazte arrasatearrek

Begirada poetikoa erakusketa dago egunotan Ibarraundi museoan. Maider Zubillaga eta Maite del Rey arrasatearrek antolatuta dute: Zubillagak margolanak egin ditu, eta Del Reyk, poesiak. Bi lan motek elkarrekin zerikusia dute.

artekoak, sindikatueta eta politikan ibili ziren, eta Errepublikaren alde lan egin zuten; horregatik, kartzela, tortura eta erbetea bizi izan zituzten. Horiei omenaldia egiteko modua da erakusketa, eta Rafael Zeziaga Argentinan errefuxiatuak bere lanak erakusten ditu.

Intxorta 1937 Kultur Taldeak antolatzen du erakusketa.

ELGETA

> Kontxi Idigoras margolan erakusketa zabalduko dute

Kontxi Idigoras margolaria- ren lanen erakusketa izango da Espaloia kafe antzokian. Hilaren 16an, astelehena, inauguratuko dute.

Urriaren 26ra arte egongo da zabalik.

Antzerkia

ARETXABALETA

> Ludoteka ikasturte hasierako antzerki emanaldia

Amama Pantxikaren altxor ezkutua izeneko antzezlanaren egongo dute gaur, egubakoitza, Arlutz osteko plazan, 17:00etan. Familia osoarendako moduko ikuskizuna da.

Algara ludotekak antolatzen du.

ESKORATZA

> Helduendako ipuin kontaketa saioa egingo dute

Jose M. Carrere ipuin kontaketa helduendako ipuinak kontakatu ditu gaur, egubakoitza, Inkeru tabernan, 23:00etan.

Aitzorrotz kultur elkarteak antolatzen du.

Bestelakoak

BERGARA

> Jardunen jolasleku ibiltaria Simon Arrietan dago

Jardun euskara elkartearen jolasleku ibiltaria Simon Arrietan egongo da gaur, egubakoitza. Euskaraz jolas egin eta abesteko baliabideak aurkituko dituzte umeez.

6-12 urte bitarteko umeez dago zuzenduta.

BERGARA

> Ipuinak kontatzen ikasteko oinarritzko tailerra

Ipuinak kontatzen ikasteko oinarritzko mailako ikastaroa antolatu du Oihulari Klown antzerki taldeak, Bergarako Aibar baserrian, bihar, zapatua, eta etzi, domeka.

Argibideak: 607 20 45 03 edo virginiaarmelo@euskalnet.net helbidean.

ESKORATZA

> Tortolis ludoteka zabalik dago bihar 3-5 urte bitartekoendako

Tortolis ludoteka zabalik egongo da bihar, zapatua, 3-5 urte bitarteko umeez.

Ordutegia: 11:00-12:30.

Ikuskizunak

BERGARA

> Etiopian oinez egindako bidaiaren gainekoak

Etiopian oinez egindako ikus-entzunezkoa egongo dute Mila Gallastegik eta Asier Arantzabalek.

Hilaren 19an, eguena, kultura etxean, 19:00etan.

Lehiaketak

DEBAGOIENA

> Euskadiko argazki zaharren lehiaketa, KZguneetatik

Euskadiko 1975 aurreko argazki lehiaketa antolatu du Eusko Jaurlaritzak, eta KZguneetatik parte har daiteke horretan. Trolley mailetak, reflex kamera digital bat eta belaunaldi berriko bideo-kamerak dira sariak.

Argibideak: www.kzguna.net.

ARAMAIO

> Aramaioren gaineko argazki lehiaketa deitu du Udalak

Aramaioren gaineko argazkiak behar dituzte udal argitalpenetarako (egutegiak, esku-orriak eta beste batzuk). Norberak nahi adina argazki aurkez ditzake, koloretan edo zuri-beltzean. 200, 150 eta 100 euroko sariak daude.

Urriaren 20a baino lehen utzi behar dira lanak udaletxean edo kultura etxean.

ARAMAIO

> Zuiako Koadrilak argazki lehiaketa antolatu du

Zuiako Koadrilari begirada bat izenburua duen argazki lehiaketa antolatu dute. Gai horren inguruko argazkiak behar dituzte, eta, horren barnean, edozer gauza izan daiteke. Gura duten guztiak parte har dezakete. 400, 300 eta 200 euroko sari bana dago.

Lanak honako helbidera bidali behar dira urriaren 27a baino lehen: Zuiako Koadrilari; Udaletzeko plaza 1, 2. ez; 01130 Murgia, Araba.

Argibideak: www.cuadrillazua.com edo 945 43 01 67 telefono zenbakian.

Musika

ELGETA

> Danbako lehiaketak lehen kontzertua egingo dute

Danbako musika lehiaketa-ko lehen kontzertua izango da urriaren 20an Espaloia antzokian, eta sarrerak eta abonua erosteko aukera dago. Kontzertu bakoitzerako sarrera 4 euro da, 2 euro Gaztekutxarekin. Sei kontzertuetarako abonua 18 euro da, 10 Gaztekutxarekin. Erosteke, deitu 902 36 38 51 telefonora edo jo Espalaira.

Argibideak: www.danbaka.com.

BERGARA

> Musika Eskolako Orkestrak kontzertua egingo du

Bergarako musika eskolako orkestra Capelladesera doa, Bartzelonara. Horren aurretik, kontzertua egingo dute: urriaren 11n, eguaztena, joko dute Mariaren Lagundiko elizan, 18:00etan.

Urriaren 12tik 14ra bitartean izango dira Capelladesen.

BERGARA

> Techno jaialdia egingo dute datorren zapatuan, hilak 14

Jam aretoa bere 10. urteurrena ospatzen hasiko da. Lehenengo emanaldia techno jaialdia izango da, Ben Sims (Theory UK) disko jartzailearekin. Sarrera 20 euro da.

Bestetik, hilaren 20an Lordik, Eurovision jaialdiko talde irabazleak, joko du.

Urriak 14, zapatua, gauerdian.

PROPOSAMENA

ARRASATE

> Maritxu Kajoi, jai dotorena, ospatuko dute arrasatearrek

Beste urte batez, dotoredore jantzi, eskapularioa ipini eta kalera irtengo dira Arrasaten bertakoak eta kanpokoak Maritxu Kajoi ospatzera.

Txikiteoa eta parranda gau partean egingo dituzte, batik bat, baina egun osoan bestelako ekintzak izango dira: etxafuegoak, kale animazioa... eguna girotzeko. 20:30ean, Maritxuri lore eskaintza egingo diote, eskerrak emateko eta eskaerak egiteko.

Gaur, egubakoitza, ospatuko dute Maritxu Kajoi jaiak.



nire aukera



Patricia Urrutia
Aranzadi ikastolako zuzend.
Bergara

"Maritxutara joango naiz gaur, urtero bezala"

Gaure, egubakoitza, Mari-txu Kajoi ospatzera joango naiz Arrasatera. Urte askoko tradizioa da niretako, eta aurten ere bete egingo dut! Mutil-laguna hangoa dut, eta hango lagun koadri-la osoa batuko gara. Lagun asko gara, eta gutxitan batzen gara denok. Urtero eramaten dut Bergarako lagun bat, eta aurten ere hala izango da. Jatetxe erreserba hilabete batzuk lehenago egin zuen koadrilago batek, eta hantxe afalduko dugu denok; gero, parranda pixka bat egingo dugu.

Zelako soinekoa eramango duzu Maritxutara?

Bergarako lagun batek oparitu zidan soineko bat, eta huraxe eramango dut.

Ohiko asteburuetan ere gau giroa gustatzen zaizu?

Normalean, plan lasaiegoa egiten dut. Nahiko ethezalea naiz.

Kilometroak antolatzen ari zaretela eta, asteburuetan lanik izaten duzu?

Noizean behin egoten da egiteko zerbaite, bai. Orain, antolaketan fasean gaude. Inoiz burura etortzen zait ideien bat eta apuntatu, landu... egiten dut.

Liburu bat gomendatuko zeniguke?

Victor Hugoren *Miserableak*.

Eta film bat gomendatzeko-tan, zein?

La lista de Schindler.

Naturazalea zara?

Inoiz ematen dut bueltatxo bat, baina hirizalea naiz. Ihesalditxo bat egiteko, Londres aukeratu nuke. Han bizi izan nintzen, eta berriz bisitatuko dut laster.

Zinema

ARAMAIO KULTURA ETXEA

Las aventuras de Sharkboy y Lavagirl
Domeka: 17:00.

ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

Kutsidazu bidea, Ixabel
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Astérix y los vikingos
Domeka: 17:00.

ELGETA ESPALOIA ANTZOKIA

Sin city
Eguaztena: 21:30.

OÑATI KULTURA ETXEA

C.R.A.Z.Y.
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Bambi 2
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

EIBAR UNZAGA

Serpientes en el avión
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztena: 19:30, 22:15.

RIALTO

Kutsidazu bidea, Ixabel
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

GASTEIZ GURIDI

Alatriste
17:00, 19:45, 22:30.

La increíble pero cierta historia de Caperucita Roja
16:45, 18:15.

Los Borgia
16:45, 19:40, 22:35.

World Trade Center
17:30, 20:00, 22:30.

Kutsidazu bidea, Ixabel
17:30, 20:00, 22:30.

Serpientes en el avión
17:30, 20:00, 22:30.

Volver
20:00, 22:30.

Salvador
17:00, 19:45, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

El viento que agita la cebada
17:30, 20:00, 22:30.

El perro mongol
17:00.

El diablo viste de Prada
17:30, 20:00, 22:30.

Cabeza de perro
17:00, 19:45, 22:30.

La distancia
18:45, 20:45, 22:45.

Vete de mí
17:30, 20:00, 22:30.

Llamando a las puertas del cielo
17:00, 19:45, 22:30.

Las partículas elementales
17:00, 19:45, 22:30.

ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

Pequeño pero matón
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

Alatriste
17:00, 20:00, 23:00.

El diablo viste de Prada
16:30, 19:00, 22:15, 00:30.

Los Borgia
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Serpientes en el avión
16:30, 19:00, 22:15, 00:30.

Garfield 2
16:00, 18:00.

El jefe
16:00, 18:00.

Príncipe de los ladrones
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

La joven del agua
20:00, 22:15, 00:30.

Polleke
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

Ciudad sin ley
20:00, 22:15, 00:30.

Gaurediko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Alatriste
12:15, 16:15, 19:00, 21:45, 00:30.

El diablo viste de Prada
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Serpientes en el avión
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

Los Borgia
12:15, 15:40, 18:30, 21:30, 00:20.

Corrupción en Miami
19:40, 22:10, 00:40.

Separados
12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.

Click
12:15, 15:45, 18:00, 20:15,

22:30, 00:45.

Piratas del Caribe 2
12:15, 15:45, 18:45.

Cabeza de perro
12:15, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

Garfield 2
12:15, 16:45.

Ant bully
12:15, 16:00, 18:00.

World Trade Center
12:15, 16:30, 19:00, 21:30, 00:00.

Pequeño pero matón
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

La increíble pero cierta historia de Caperucita Roja
12:15, 16:20, 18:20, 20:20.

Mi súper exnovia
18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

La noche de los girasoles
22:05, 00:25.

La última puerta
20:00, 22:00, 00:00.

Monster house
12:15, 15:50, 17:50.

El viento que agita la cebada
21:45, 00:10.

Gaurediko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

ÁBACO BOULEVARD

Alatriste
12:00, 16:25, 19:15, 22:10, 01:00.

Salvador
22:20, 01:00.

Serpientes en el avión
12:10, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

Los Borgia
12:00, 16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Corrupción en Miami
19:45, 22:25, 01:00.

Separados
12:00, 17:00, 19:30.

El diablo viste de Prada
12:00, 17:00, 19:45, 22:10, 00:45.

Piratas del Caribe 2
22:10, 01:00.

Click
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

Garfield 2
12:15, 16:20, 18:00.

Cabeza de perro
12:00, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.

Ant bully
12:00, 16:10.

World Trade Center
12:10, 17:00, 19:40, 22:15, 01:00.

La distancia
18:00, 20:10, 22:25, 00:45.

La increíble pero cierta historia de Caperucita Roja
12:15, 16:25, 18:15, 20:00.

Mi súper exnovia
12:00, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

Gaurediko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.



Kutsidazu bidea, Ixabel **

Zuzendariak: Mireia Gabilondo, Fernando Bernues.

Aktoreak: Mikel Losada, Ainere Tolosa.
Espainia, 2005.
97 min. Komedia.

Kutsidazu bidea, Ixabel-era hurbiltzerakoan botila erdi hutsik edo erdi bete dagoen galde die-zaiokegu gure buruari, eta aukera biak baliozkoak dira. Marrazki bizidunen filmak alde batera utzita, fikziozko lanei dagokienez, *Kutsidazu bidea, Ixabel* izan da urte osoan estreinatuta den euskaraz eginiko film bakarra. Eta horrek argi eta garbi erakusten du euskaraz eginiko filmen egoera ez dela batere ona. Film bakar bat, eta honen balioa ez dut esango txarra denik, baina bai nahiko mugatua. Hau izango litzateke botila erdi hutsik ikustea.

Beste aldetik, botila erdi bete ikusteko aukera dauka. Nahiz Zinemaldian estreinatua izateak eta estreinatze-ko moduak euskarazko zinemaren ordezkari bihurtu, ez dugu ahaztu behar Bernues eta Gabilondoren lehen filma dela. Hortaz, badute aukera lan hau hobetzeko.

Filmak baditu ondo pasatzeko eszena batzuk. Egunero-ko egoeretatik ateratako umore uneak edo amodio istorioa ondo dago, baina parodian sartzen denean erabilitako umoreak nahiko nabaria eta zaharra ematen du. Eta pertsonaiei, buruz gauza bera: Mikel Losadak, Ainere Tolosak eta Jose Luis Ugartemendiak lan txukuna egiten badute, sinisgarriak diren pertsonaiak sortuaz, alderantziz, amonaren pertsonaiak edo Asier Hormazak eta Joseba Apaolazak egiten dituzten pertsonaiak nahiko pertsonaia eskasak dira. Filma zinemaldi batean aurkezteko pixka bat motz geratzen da.

Antonio Zabala

Eskasa: * Balekoa: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

Salvador

España-Errumasa Batua, 2006.
Zuzendaria: Manuel Huerca.
Aktoreak: Daniel Brühl, Tristán Ulloa, Leonardo Sbaraglia.
138 min. Drama.

70eko hamarkada hasieran, Askapenerako Iberiar Mugimendua langile mugimenduari laguntzen dio. Poliziak hainbat kide atxilotzen ditu, tartean Salvador Puig Antich. Giro politikoak, epaiketa falsua eta Antich-en exekuzioa kontatzen ditu filmak.

Chica XXL

AEB, 2006. Zuzendaria: Nnegest Likké. Aktoreak: Mo'Nique, Jimmy Jean-Louis, Godfrey.
99 min. Komedia.

Bi emakume gazte handien istorioa kontatzen da. Euren pisuarekin obsesionatuta daude, eta gorputz perfektudun emakumez betetak mundu baten, maitasunaren bila dabiltza.

Nueve vidas

AEB, 2006. Zuzendaria: Rodrigo García. Aktoreak: Kathy Baker, Amy Brenneman, Elpidia Carrillo.
114 min. Drama.

Bederatzi emakumeren bizitzako une bat jasotzen du filmak: gartzelan dagoen emakumea, iraganeko harreman bat berragertzen zaitona, gurasoen harreman kaltegarriaren harrapatuta dagoen neska gaztea...

La distancia

España, 2006. Zuzendaria: Iñaki Dorronsoro. Aktoreak: Miguel Ángel Silvestre, José Coronado.
105 min. Thrillerra.

Daniel boxeatzailer gaztea da. Hainbat aldi egon da titulua irabazteko zorian, baina beti porrot egiten du. Azkeneko porrotaren ondoren, lapurretan egiten du eta kartzelara eramaten dute. Guillermo izeneko polizia batek xantaia egingo dio kartzelan norbait hil dezan.

Vete de mí

España, 2006. Zuzendaria: Víctor García León. Aktoreak: Juan Diego, Juan Diego Botto, Cristina Plazas.
90 min. Komedia dramatikoa.

Santiagook, egun batzuetan, Guillermo 30 urteko semea hartu beharko du etxean. Esperientzia horrek bizitza aldatuko dio: bi berekoitz hutsek elkarrekin bizi beharko dute.

El diablo viste de Prada

AEB, 2006. Zuzendaria: David Frankel. Aktoreak: Meryl Streep, Anne Hathaway, Stanley Tucci.
109 min. Komedia dramatikoa.
New Yorkeko emakumeendako aldizkari dotoreneko editorea da Miranda Priestly, eta Andrea bere laguntzaile berria da. Andrea ez da Mirandaz fidatzen.

Lo que sé de Lola ***

Frantzia-España, 2006. Zuzendaria: Javier Rebollo. Aktoreak: Michaël Abiteboul, Lola Dueñas.
112 min. Drama.
Léon gizon bakartia da. Bakardadetik ihes egiteko, bizilagunen posta lapurtzen du, elkarrizketak entzuten ditu izkituan... Halako baten, Dolores izeneko espainiar zalapartatsa bat bere auzora joango da bizi izatera.

Los Borgia

España, 2006. Zuzendaria: Antonio Hernández. Aktoreak: Sergio Peris-Mencheta, Lluís Homar, Paz Vega.
120 min. Drama.
Rodrigo Borgia Aita Santu aukeratu berri dute, Alejandro VI.a.

Vatikanoarendako ahalik eta lur gehien konkistatu nahian, Rodrigok gudaroste- en buru izendatzen du Juan semea; Cesar kardinal egiten du; eta Lucrecia ezkondu egiten du.

Serpientes en el avión

AEB, 2006. Zuzendaria: David R. Ellis. Aktoreak: Samuel L. Jackson, Julianna Margulies, Nathan Philips.
105 min. Thrillerra, akziozkoa.
Sean Jones Los Angelesko fiskal baten hilketaren lekuko bakarra da Hawaiin. Lekukotza eman dezan, Los Angelesera eramanez behar dute FBIkoak. Baina hiltzaileak badaki zein hegazkinetan doan, eta Sean hegazkinetik bizirik irten ez dadin saiatuko da.

Las partículas elementales

Alemania, 2006. Zuzendaria: Oskar Roehler. Aktoreak: Moritz Bleibtreu, Christian Ulmer, Martina Gedeck.
105 min. Drama.
Michael eta Bruno erdi anaiak dira, baina zeharo desberdinak: bata biologo molekularra da, bestea sexu fantasietan balduta bizi da. Halako baten, biak maitemindu egingo dira, baina kontua ez da hain erraz bukatuko.

ZINEMA MERKEAGO

Txartel hau moztu eta sarrera merkeago izango duzu

www.cinesabaco.com



Promozio baliagarria 2006-10-31, astelehenetik ostiralera, jai egunetan eta bezperetan izan ezik. Ez da bateragarria beste promozioekin.



ZINEMA MAILA GORENEAN

Perretxikoak batzeko irrikaz

SASOIA Onddoak, gibelurdinak edo zizak batzeko sasoiak hasita dagoen arren, ez da egon asko orain arte

ZALE UGARI Bailarako perretxikozaleak Elgean, Urbian, Urkiolan edo Gorbeia inguruan ibiltzen dira nagusiki

HIRU FAKTORE Euriak, tenperaturak eta ilargiak berebiziko garrantzia daukate perretxikoak irteteko

EDU MENDIBIL > BERGARA

Perretxikozaleendako egun aproposak dira hauek. Onddoak, gibelurdinak edo ziza horiak batzeko sasoiak hasita dago. Jose Mari Larrañaga elgoibartarra (60 urte) txikitatik izan da zalea, gaztetxotik bere aitarekin perretxikotara joaten zenetik. Iaz, Bergarako Jardun elkarteak egindako mikologia jardunaldietan, perretxikoen inguruko sekretuak azaldu zituen. Aranzadi Elkarteak 5.000 perretxiko inguru sailkatuta dauzka: "Hala ere, gehienak ez dira jatekoak. Onenak, nire ustez, gibelurdinak, onddoak, tricholoma eta kuletoa (*Amanita caesarea*) dira. Eta arriskutsuei dagokienez, kontuz ibili behar da *Amanita phalloides*-arekin (gibelurdinarekin nahasten da askotan) eta *Entoloma lividum*-arekin (pardillarekin nahastu daiteke). Zalantza kasuetan onena da adituren batekin kontsulta egitea", diosku Larrañagak.

Perretxikoak batzeko irrikaz dago Jose Mari: "Ekainetik azarora izaten da sasoirik onena

baina perretxiko gutxi egon da orain arte. Euria egitea komeni...". Bailarako perretxikozaleak Elgea, Urbia, Urkiola edo Gorbeia ingurura joaten dira nagusiki. Pedro Andrinua bergararra Arabara, Azazeta eta Egileta ingurura joan izan da. "Egunak egoten dira. Udan, esaterako, Urduña aldean 14 bat kilo ekarri nituen egun baten...". Atzo, eguna, Elgeta aldean ez zuen horrenbeste zorte izan Andrinuak.

ILARGIAREN ERAGINA

Larrañagaren arabera, hiru faktorek berebiziko eragina daukate perretxikoak irteteko orduan: euria, tenperatura eta ilargia. "Ilbete edo ilberri dagoenean perretxiko gehiago izaten da". Perretxikotara bakarrik joatea gustatzen zaio Jose Mariri. Hala ere, lagun koadrilarekin joaten hasiko dela dio. Eta jateko argi dauka zein perretxiko duen gustuko: "Gibelurdina kipularekin frijituta. Eta arrautza bat ondoan badu, askoz hobeto. Afari ezin hobea".



ZALE AMORRATUA Pedro Andrinua oraingo astean hartutako perretxiko batzuk erakusten.

E.M.

ahobero

"Euskararen normalizazioa irakaskuntzaren kalterako litzateke Nafarroako Unibertsitatean"

Miguel Sanz > Nafarroako presidentea

Hipotenusa edo kateto euskaraz nola esaten den jakitea garrantzizkoa ez dela gehitu zuen Sanzek. Kateto eta baldarra ez da gauza bera. Baldarra beti izango da baldarra, Nafarroako Gobernuko presidentea izan arren.

iturri onetik

Hurrengo urtean Aretxabaletan ospatuko da Mundumira

Mundumira jaialdia Aretxabaletan ospatuko da 2007ko udaberrian. Mundumira 2005ean jarri zuten abian Mankomunitateak eta *Euskal Herria* aldizkariak; aurreneko bi ekitaldiak Arrasaten eta Oñatin ospatu dira eta badirudi 2007an Aretxabaletaren txanda izango dela. Herrialde askotariko kulturak gurera hurbiltzea eta Debagoiena ezagutzera ematea da jaialdiaren helburua.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa


Ttakun ttakun

Zine zalea naizen arren, ez diot segizio apartekorik egiten Donostiako Zinemaldiari. Aurten, ordea, Garazi ilobak parte hartzen zuela film batean eta ikustera joan ginen senitartean. *Nomadak tx* du izena eta erabat hunkigarri egin zitzaidan.

Oreka Tx taldeko txalapartariak bost bidaia egin dituzte munduko ertzetara; tartean Sahara, eta han izan zuten Garazi gidari. Txalapartaren ttakuna eraman dute eta hango soinuak ekarri, musika primitiboetan zubi nabarmenak aurkituz. Horren kontaketa polita da filma.

Baina hunkitu ninduen izan zen amaierako apoteosia. Artze/Laboaren kantu esanguratsua oinarri, ikus daiteke herrien arteko elkartasunaz inoiz egin den irudikatze argiena, nire akorduan. Sekulakoa da, ez gelditu ikusteke.

ai, ene!



Ezkutuan argazkiak ateratzeko modua

Paparazziarena egin nahi duzula? Argazkian aterako dena ez konturatzeko hobe izango da metxeroa atera eta klik! egin.

<http://tinyurl.com/r8dr4>



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzu

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51